ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko otsailaren 8a > Astelehena > VI. urtea > 264. zenbakia > 1,10 euro
www.goiena.net TOKIKOM



"36.000 lagunek egin zituzten bortxazko lanak Euskal Herrian frankismo garaian"
**Edurne Beaumont**
Historialaria > 08

**G2a** 'Haizea Garizumakoa', Arrasatera > 29

**BERGARA** Pintxo-poteo ekimen berria arrakastarekin hasi dute > 11

**ARRASATE** Oraingo urbano zerbitzua bikoiztu egingo dute irailean > 14

**ALOÑA** Vasconia baino hobeak izan eta 2 eta 1 irabazi zuten gorriek > 22




**PROTESTA** Aramaioko hainbat auzotarrek eta kaletarrek kontzentrazioa egin zuten domekan Azkoagan; bideari 'benetako' konponbidea ematea gura dute. JOSETXO ARANTZABAL

**ARAMAIO** > LUR-JAUSIA AHT-KO LANETAN

# "Bide alternatibo hau ez da konponbidea"

**OSO KEZKATUTA** Aramaioko kaletarrak eta auzotarrak sututa daude bide alternatiboarekin.

**ERANTZUKIZUNA** Adif-eri eskatu diote informazioa eta "benetako konponbidea" emateko > 04

**POLITIKA** > BATASUNA

## Aittor Arantzabal, aske

Fidantzapean askatu zuten bergararra barikuan > 04

**UDALAK** > E-PLANA

## Ibarreko udalek, 25 proiektu

6,8 milioi euro adjudikatu dituzte ibarrerako > 03

AURKIBIDEA

**Debagoiena** > 04-05
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-32
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-irratia** > 37
**Eskelak** > 38
**Berri-zakua** > 38-39
**Azkena** > 40

**GASTRONOMIA** > AZOKA

## Olagarroaren maisuaren gutiziak

Olagarroa zerbitzatzen maisu izateko ohorea duten gutxi daude eta horietako bat izan genuen Bergaran: Javier Ferreiro (irudian). Itsasoko gutizia horietaz eta beste askotaz gozatzeko aukera izan dute askok asteburuan. > 13



Javier Ferreiro. J.A.

Goiena kluba
Umeentzako Puzzleak opari. Nahi?
Zoaz 7. orrialdera



Goiena kluba

**Abantailaz betetako kluba!**



# 300 euro opari. Nahi?

***http://zozketa.goienakluba.com***
web orrian sartu, eta bete hutsuneak, bazkide txarteleko zenbakia erabilita.

**Parte hartzeko azken eguna: otsailaren 28a.**

GOIENA KLUBA | Telefonoa: **943 25 05 05** | e-posta: ***kluba@goiena.com***



**UDALAK** > E PLANA

# Madrilera bidean enplegu eta iraunkortasunerako proiektuak

**EPEA AMAITUTA** Proposamenak aurkezteko epea joan den eguenean amaitu zen; bailarako udalek 25 proiektu bidali dizkiote Madrilgo Gobernuari

**6,8 MILIOI** Horixe da bigarren fondoaren bidez Debagoieneko udalerrietarako eta Aramaiorako adjudikatu duten kopurua

**ASKOTARIKOAK** Aretxabaletako Udalak zortzi egitasmo aurkeztu ditu aurten; Bergarak eta Oñatik, bakarra; eta gainerakoek, bizpahiru

**M.BITERI**> BERGARA

Debagoieneko udalak lanpetuta ibili dira azken asteotan Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Fondoekin finantzatzeko proiektuei azken ukituak ematen eta onartzen. Joan den eguenean, otsailak 4, amaitu zen Espainiako Gobernuari proposamenak aurkezteko epea, hark onartu edo alboratu ditzan. Bigarren plan horren harira, Madrilek 6.832.384 euro bideratuko ditu aurten bailarara.

Askotariko proiektuak egiteko asmoa dute udalek horrekin. Arrasatekoak, esaterako, Gelmako etxeetatik Nafarroa etorbiderainoko gunea urbanizatu eta oinezkoendako ibilbidea egokitzeko eskaera egin du. Kiroldegiaren egitura hainbat puntutan sendotu eta igerileku handia berriro iragazgaiztu eta sakonera egokitu egin nahi du.


Arrasaten, Gelmatik Nafarroa etorbiderainoko oinezkoendako ibilbidea egiteko 850.000 euro behar dituzte. UBANE MADERA

**IRIZAR, GOITIK BEHERA BERRITU**

Bergaran, bestalde, Irizar jauregia goitik berritzeko erabiliko dute dirua. Zetabiko arkitektoek egindako proiektuak bi oinarri nagusi izan ditu: Aldundiaren Ondare Departamentuko teknikariek ezarritako irizpideak –eraikinaren barruko banaketa eta izaerak mantentzea, babestutako ondare den heinean–, eta, hezkuntzarako erabilera izango duenez, bada, ezaugarri horiek dituen egoitza baten beharrak asetzea. Gainera, irisgarritasuna bermatzeko igogailua jarriko dute.


Bergaran, Fondoko 1.594.151 euroak Irizar jauregia konpontzera bideratuko ditu Udalak. MONIKA BELASTEGI

**ERREKALDE ITXURALDATU**

Oñatiri dagokionez, Errekalde auzoa berritzeko erabiliko dute dirua. Auzoa zeharkatzen duen errepidea eta inguruak hobetzeko, oztopo arkitektonikoak kentzeko, autoen abiadura moteltzeko eta oinezkoendako bideak hobetzeko asmoa dute, besteak beste.

**SANTA ANA ANTZOKIA**

Bestalde, Aretxabaletak zortzi proiektu egitea aurreikusi du; tartean, Lausittako saneamendu eta hornidura plana garatzeko erdia bideratzeko asmoa du; hain justu, 324.000 euro. Bolinaga auzoko errepidea konpontzeko proiekturako, berriz, 174.000 euro jarriko ditu. Eskoriatzari dagokionez, Santa Ana antzokia egiten hasiko dira. Hau da, zinema zaharreko eraikineko egitura eta teilatua egonkortzeko eta anfiteatroa egiteko 400.000 euro jarriko dituzte.

Antzuolan, besteak beste, Lizarraga auzoko Abaroko iturri ondoan egingo den ur biltegirako 190.000 euro pasatxo aurreikusi dituzte. 200 metro kubikoko edukiera izango du horrek. Sei hilabete beharko dituzte lan horiek egiteko.

**BI ERABILERAKO ERAIKINA**

Bestalde, Aramaion 300 metro koadro izango dituen eraikina egin nahi dute. Bi erabilera izango ditu: erdia udal biltegi moduan erabiliko dute. Jakina denez, asmoa dute egurra erreta Ibarra berotzeko sarea garatzeko; bada, horretarako erabiliko diren egur eta ezpalak biltzeko eta erre ahal izateko prestaketa lanak egiteko erabiliko dute biltegi hori. Eraikinaren beste zatia lehenengo sektorera bideratuko dute, Aramaixo Baserri Barri elkarte sortu berriarendako.

**UDALETXEKO LEIHOAK ALDATU**

Urtarrilaren 28an, Elgetan egindako osoko bilkuran, besteak beste, udaletxeko leihoak aldatzea eta ikastetxeko itoginak konpontzea onartu zuten. Lehenengoan 30.353 euro eta bigarrenean 36.587 euro bideratuko dituzte. Leintz Gatzagan ere bi proiektu onartu zituzten egun berean: plazan oinezkoendako segurtasun neurria jartzea eta Jakion enpresako biltegiko teilatua konpontzea.

Espainiako Gobernuak orain aurkeztutako egitasmo horiek aztertuko ditu, onartu edo albora ditzan. Lanak 2010 urtean zehar egingo dira; horiek ere abenduaren 31rako egon beharko dira horiek guztiak amaituta.

DATUA

**6,8**

MILIOI

Debagoieneko udalek eta Aramaiok 6.832.384 euro jaso ahal izango dituzte denera Madrilgo Gobernuak onartu duen Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Fondotik.

## Herriz herri

| | |
|---|---|
| **ARRASATE** | **2.375.551** |
| Gelmatik Nafarroa etorbiderainoko gunea urbanizatzea | |
| Kiroldegiaren egitura sendotzea | |
| Udal eraikinak sarez konektatzea | |
| **BERGARA** | **1.594.151** |
| Irizar jauregia berritzea | |
| **OÑATI** | **1.169.289** |
| Errekalde auzoaren eraberritzea | |
| **ARETXABALETA** | **718.481** |
| Lausittako saneamendu eta hornIduraren gaineko plana | |
| Belorrieta, Loramendi eta Mitarte hobetzea | |
| Argiteria publikoaren energia-eraginkortasuna neurtzea | |
| Udaletxean dauden traba arkitektonikoak kentzea | |
| Bolinagara doan bidea hobetzea | |
| Futbol zelaiko galdara gela berritzea | |
| Ponpaketa instalazio eta ur biltegien arteko sareak hobetzea | |
| Tailer sarea eratzea | |
| **ESKORIATZA** | **440.105** |
| Santa Ana antzokia egitea | |
| Luis Ezeiza eta Gaztañaduiko argiteria publikoa aldatzea | |
| **ANTZUOLA** | **231.890** |
| Ur biltegia eraikitzea | |
| Antigua eta Errekaldeko argiteria publikoa hobetzea | |
| **ARAMAIO** | **160.972** |
| Nabe industriala eraikitzea | |
| Oleta auzoan suaren kontrako azpiegiturak hobetzea | |
| Goiko errotako fosako ur-zikinak Ibarrara eramatea | |
| **ELGETA** | **113.513** |
| Udaletxeko leihoak aldatzea | |
| Ikastetxeko itokinak konpontzea | |
| Herrian hainbat baranda jartzea | |
| **LEINTZ GATZAGA** | **28.432** |
| Jakion enpresako biltegiko teilatua konpontzea | |
| Plazan oinezkoendako segurtasun neurria jartzea | |

ITURRIA: UDALAK




Aramaioko auzotar eta kaletar talde handi batek kontzentrazioa egin zuen domekan Azkoaga auzoan, lur-jausiaren ondorioengatik haserre. JOSETXO ARANTZABAL

**ARAMAIO** > LUR-JAUSIA AHT-KO LANETAN

# "Gugana inor ofizialki azalpenak ematera ez etortzea lotsagarria da"

Domekan Aramaioko hainbat auzotako eta Ibarrako zenbait bizilagunek kontzentrazioa egin zuten Azkoagan, "benetako" konponbidea eskatuz

**IKER BARANDIARAN** > ARAMAIO

Joan den asteko zapatu iluntzean Cuatrovientos baserriko bidean AHTko lanen ondorioz lur-jausia egon zenetik, aramaioarrek ez dute bakerik izan. Hala, Arrasatekin lotzen dituen bidea erabat moztuta dago, eta hara eta hona egiteko Untzilla eta Azkoaga bitarteko bidea erabili behar dute. Bidea hain estua izanik eta AHTko lanak egiten ibiltzeaz gain, izugarrizko zirkulazio handia dagoenez, bost egunetan 17 istripu egon dira orain arte.

Hala, Arrasatera joan gura duten aramaioar guztiak dira kaltetuak, baina baita egun batetik bestera ate paretik obretako kamioiez gain, auto kopuru izugarria pasatzen ikusi behar duten auzotarrak ere: Untzilla, Zabola eta Azkoagakoak, batez ere. Aipatutako auzoetako bizilagunak oso kezkatuta daude eta horregatik kontzentrazioa deitu zuten atzo, domeka, eguerdian Azkoaga auzoan.

**100DIK GORA LAGUN**

"Presaka egin genuen deialdia, ia denbora eta propaganda barik, baina jende multzoa elkartu gara. Hau lehenengo ekimena da, baina ziurrenik egin beharko ditugu gehiago", azaldu zigun Azkoagako auzo alkate Pili Lasagak. Haren inguruan Untzilla, Zabola, Azkoaga, Gantzagarrak eta baita kaletarrak ere, 100dik gora lagun: horien artean edadetuak, helduak, gazteak eta umeak ere.

"Harrigarria da halako makro-proiektu bat egiten ibili eta aurreikuspenik ez hartzea. Eta, zer esanik ez, gugana inor ofizialki azalpenak ematera ez etortzea errespetu falta ikaragarria da", azaldu zigun Lasagak.

"Umeak eskoletara eramaten dituena ere larri dabil, bidea estuegia da gauza onerako; eta txarrena da AHTko arduradunek hau gertatutako zela bazekitela", azpimarratu zuen Jose Luis Lasagak. Lasagaren ustetan, betiko errepidean erreka bestaldetik zabaldu beharko lukete bide alternatiboa.

Horrez gain, auzotarrak haserre daude komunikabideek ez dutelako aramaiotarrek duten arazo larriaz berba egiten.

ALDUNDIA ETA ADIF

## Untzillako bidea egokitzeko asmoa

Arabako Aldundiak prentsa ohar baten bitartez jakinarazi du Adifekin (AHTren lanetaz arduratzen den enpresa publikoa) konponbide bila "elkarlanean" dabilela.

"Azkoaga eta Untzilla arteko errepidea egokitu eta zabaltzen dihardutela" diote. Eta jausitako mendi hegalari eutsi, eta harrilubeta egin gura dute.

Bestalde, helburua "errei bat zabaltzea dela diote, baina alternatiba azkarrena"-tzat Untzillako bidea egokitzea dutela gaineratu dute.

KALTETUEN IRITZIA



**Irune Ugalde**
Ibarrakoa

"Eguazten goizean fabrikara nindoala furgoneta errepidetik irten zitzaidan. Aseguru konpainak Ertzaintzara bidali ninduen denuntzia egiteko, eta ertzainek, eurek ezin dutela ezer egin".



**Loli Lasaga**
Azkoaga auzokoa

"Egun batetik bestera hainbeste zirkulazio daukagu ia ezin garela etxetik irten, umeek ere ezin dute kanpoan jolastu. Bide alternatiboa hemen jartzea ez da konponbidea, istripu asko egon dira jada".



**Jose Luis Lasaga**
Zabola auzokoa

"05:00etarako auto zirkulazio eta zarata itzela egoten da; bide estuegia da gauza onerako. Eta lotsagarria da Goiena ezik, beste hedabide guztiek ez dutela ezer esaten, AHT atzean dagoelako".



**Susana Garcia**
Zabola auzokoa

"Bukatu da auzoko bakea. Autoa beldurrarekin hartzen dut orain. Konponbidea aurretik aurkitu behar zuten. Bidea arriskutsua da: gutxienez ondo garbitu eta semaforoak jarri behar dituzte".

**POLITIKA**

# Fidantza ordainduta, aske Aittor Arantzabal

2008ko otsailaren 11n atxilotu eta ordutik espetxean egon da Batasunako mahai nazionaleko kide izateagatik

**I.B.** > BERGARA

Joan den egubakoitzean Aittor Arantzabal bergararra aske fidantzapean lagatzeko agindua eman zuen epaileak eta 50.000 euroko fidantza ezarri zion baldintza moduan. Familiak hori jakinarazi bezain laster, dirua batzen hasi eta Bergarako epaitegira eraman zuen dirua egun berean. Jarraian senide batzuek Navalcarnero espetxera jo zuten Arantzabalekin batzera. Hara heldu eta gutxira, 20:45ak aldera, aske utzi zuten. Familiakoekin Bergarara heldu orduko, askok zuten horren berri eta bergarar askok harrera egin zioten Arranoaren parean.

Epaiaren autoak azaltzen du Arantzabalek ezingo duela "batzar, kale agerraldi ezta ekitaldi publikoetan esku hartu; eta ezingo duela talde politiko edo antzekoen eraketan esku hartu". Auzi berdinagatik espetxean zeuden eta egunotan askatu dituzten gainontzekoei ere baldintza berak jarri dizkiete.

**IA-IA BI URTE ESPETXEAN**

Aittor Arantzabal 2008ko otsailaren 11n atxilotu zuten. Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaile Baltasar Garzonek Arantzabalekin batera, Mikel Garaiondo bergararra eta beste 12 independentista atxilotzea agindu zuen; atxilotu eta espetxera bidali zituzten guztiak. Orain horietako batzuk fidantzapean askatzen hasi dira.

**ASTELEHENEAN, GARAIONDO**

Bestalde, Bergarako Ezker abertzaletik GOIENKARIAri jakinarazi diote epaileak agindua eman duela 2008ko operazio berean atxilotu ea espetxeratutako Mikel Garaiondo bergararra astelehenean askatzeko; hori ere fidantzapean.

**ARALARREK, ELKARTASUNA**

Bergarako Aralarrek bidalitako prentsa ohar baten bitartez elkartasuna adierazi nahi die Aittor Arantzabalei eta haren senide eta lagunei. Are gehiago, salatu dute "politika egite hutsagatik pertsonak atxilotzea giza eskubideen kontrako jarduna" dela.

Josemari Velez de Mendizabal > Historialaria

# "Geroko industria garatzen hasteko azpiegitura ahalbidetu zuen hiri-kartak"

JON BEREZIBAR > BERGARA

**Arrasate Mondragon bihurtu eta hiria sortzeko karta jaso zueneko 750. urteurrena beteko da maiatzean. Herriaren historian berebiziko garrantzia izan zuen gertakizun haren harira hitz egin zuen eguenean Velez de Mendizabal historialariak Edu Mendibil Arrasate Irratiko kazetariarekin.**


Josemari Velez de Mendizabal. GOIENKARIA

**Hiribildua sortzerakoan karta ala forua zer ekarri zion horrek Arrasateri?**

1260an errege batek emandako forua da, hain zuzen, *Arresate* [sortze agirian dator horrela] delako lekuan bizi zen giza kolektibo bati emanikoa. Bista politiko ikaragarriarekin eman zion erregeak Gasteizko forua. Geroagoko Arrasate industrialaren lehen zelula sortzea bideratu zuen horrek; Arrasate industriagune izan da ordutik hona. Nik ez dakit zenbat jende biziko zen Arrasaten 1260an; 200 lagun? Foru horrek ematen zien zergak biltzeko gaitasunarekin joango ziren garatzen pixkanaka. Industria hori guztia finantzatzeko azpiegitura ahalbidetu zion foruak. Orduruko bazeuden meatzeak Arrasaten, gerora Europan ezagun egingo zirenak.

**Interes estrategikoa zegoen Arrasaten, hortaz.**

Bizkaitik eta Gaztelatik zetorren bidegurutzean zegoen. Bazegoen Leintz ibar osoa domeinatzen zuen Oñatiko Gebaratarren eskua eta horrekin batera Bizkaiko Jaunaren erasoak ere hor zeuden. Horregatik, Gaztelako erregeak, bista guztiarekin, erdigune horretan jarri zuen bere hiritxoa. Momentu hartan Antso Jakituna zenduta, desegiten. Guduen garaia zen. Armarriko kateek erakusten duten moduan, 1212an Navas de Tolosako (Andaluzia) gerran izan ziren arrasatearrak, Haroko Diego Lopez II.aren agindupean, bizkaitarrekin borrokan. Azken finean, biztanleak errege eta jaunen mende zeuden panpinak ziren, guduetan erabiliak. Horregatik, pentsa liteke arrasatearrak hiribildua jasotzean nahiko lasai geratuko zirela, behintzat norbaitek zainduko zituela zekitelako.

> "Arrasatek adinako agiri historikoak dituen herri gutxi egongo dira; urtemuga historikoa da"

**Historiako beste pasarte ezagun bat da hiriari su eman ziotenekoa, 1448an.**

Liskar haiei buruz garbi esaten da –agiri piloa dago– arrasatearrak eurak haserretu zirela. Orduan, orain moduan, herria erabat zatituta zegoen: herriak izan zituen bi alkate, bi zaintza, bi hermandade... zeuden ganboatarrak eta oinaztarrak, Ahaide Nagusien garaiak ziren eta liskar haiek ekarri zuten 1448ko hondamendia. Herri barruan zegoen gorrotoa. Arrasatearrok eurok erre zuten herria. Gebaratarrak, Oñatitik, laguntzera etorri ziren.

**Argi-ilun eta erdi-uste asko dago, hortaz, historia hartan?**

Gogoan ditut 1960an egindako ospakizunak; besteak beste, hitzaldi sorta interesgarriak antolatu zituzten horiek argitu guran. Manuel Lekuona bera etorri zen. Niri pena ematen dit efemeride honen aukera galtzea, hain zuzen, ez delako forum bat irekiko espezialistekin gai historiko haien guztien inguruan argi apur bat emateko. Doke anterzki taldean ere badugu testu bat egokia dena ospakizunerako, baina Udaletik ez digute kasu handirik egin.

etxeko leihotik


Inazio Arregi > 'zuzen@goiena.com'

## Lau milioi

Lau milioi langabe pasa. Agudo esaten da. Europa osoko estatuetan liderretako bat zoritxarreko lasterketan. Gureko zenbakiak ere ez dira pozik egoteko modukoak: %8,7 Gipuzkoan 2009aren amaieran, Eustatek dioenez. Langabeen portzentajeak ez dira modu homogeneoan banatzen. Gipuzkoan, urtarrilean langabezian zeudenen portzentajeak nabarmen handiagoak ziren 16-24 urtetako geruzan, 45 urtetik gorakoan baino: %25,4 eta %4,9 hurrenez hurren.

Beti bezala, momentua iristen denean, gazteenei egokitzen zaie aurreko gehiegikeria guztiak ordaintzea. Hobeto prestatuta daudenei. Ezagutza tekniko hobea dutenei. Energia gehiago dutenei.

> "Gazteenei egokitzen zaie aurrekoen gehiegikeriak ordaintzea"

Botere politikoa, krisia ukatzeko izan duen obsesioa tarteko, ez da gai izan gazteen langabeziaren arazoari irtenbideak aurkitzeko. Ez dute arazoa ikusi nahi izan.

Eredu ekonomikoa aldatzea, garapen iraunkorra bultzatzea, horiek asmo hutsalak dira iraultza hori egiteko gaitasuna dutenak lan merkatutik kanpo mantentzen baditugu.

Europako Batasuneko presidentzia egokitu behar izan zaio Espainiari lan merkatuaren erreformak iragartzeko. Lan egin nahi duten gazteei zuzenduko zaie erreformaren zati handi bat. Ikusi egin behar politikariak eta agente sozial eta ekonomikoak gai diren ezer adosteko. Aurrekariak ezagututa ez dago baikor izateko arrazoirik.

**> Asierri**
**nire elkartasuna. GOIENAko Errektore Kontseiluan dut lankide. Galdeketa batengatik auzipetua izango da Madrilen. Ez dit axola galderak, galdetzeagatik auzipetua izan daitekeela ikustea baizik.**

**> Estebani**
**adiorik ez. Lan bikaina egin du Oñatiko Ganbara Abesbatzan azken urteetan. Zapatuan ospatu genuen beste norabide bat aukeratu izana. Aurki beza Ganbarak ere berea. Aurrera Esteban! Aurrera Ganbara!**

LURRIKARA > ELKARTASUNA

## Ospitalean Haitirako materiala batzen dihardute

### Besteak beste, udako arropak, pasta, mantak eta toallak batuko dituzte hilaren 28ra arte

M.B. > ARRASATE

Debagoieneko Ospitaleko langileek Haitin izandako lurrikarak eragindako kaltetuekin konpromisoa hartu dute. Hala, jantziak, janariak eta eguneroko garbitasunerako produktuak jasotzen dihardute. Hilaren 28ra arte jasotako produktu guztiak ospitaleko Mesedeetako Ahizpei emango dizkiete Haitira bidal ditzaten, eta mojak arduratuko dira materiala banatzeaz.

Askotariko produktuak utzi dituzte ospitaleko langileek errehabilitazio zerbitzuan; besteak beste, kontserba latak, pasta, arroza, azukrea, lekaleak, esnehautsa eta zerealak. Gainera, umeendako eta helduendako udako arropak, mantak, izarak eta toallak eta higiene pertsonalerako produktuak eman dituzte; hain zuzen, konpresak, haurrendako oihalak, xaboia, hortzetako zepilloak eta hortzetako pasta.

Dirua ere bidaliko dute Haitira. Ospitaleko langileek erabiltzen duten aparkalekuan bildutako dirua bidaliko dute; egunero, batez beste, 900 euro.

**GURPIL-AULKI TOLESGARRIAK**

Debagoieneko Ospitaleko langileek martxan duten ekimenaz gain, beste hainbat elkartek eta GKEk ere badihardute askotariko materiala batzen. Esaterako, Bergarako bizilagun batek gurpil-aulki tolesgarriak eta makuluak (muletak) batzen dihardu. Halakorik etxean dutenek 649 57 70 59 telefonora dei dezakete, 15:00etatik 15:30era eta 20:00etatik 21:00etara. Materiala etxean bertan batuko dute. Ekimenaren antolatzaileek esan dute jasotakoa Mesedeetako Ahizpen bidez bidaliko dutela Haitira. Mojek eramango dute, martxo aldera.

> HEDABIDEAK

### Sinadura bilketa Nafarroan ETB ikusi ahal izateko lege proposamenari babesa emateko

Eusko Ikaskuntzak, Kontseiluak eta Euskaltzaindiak sinadura bilketa abian jarri dute Espainiako Gorteetan aurkeztuko duten lege proposamenari babesa emateko. Mugarik gabeko telebista eskatzen duen lege proposamena onartuz, besteak beste, Nafarroan ETB ikusi ahalko dute. Kanpainarekin bat egin gura dutenek Arrasateko AED elkartera jo dezakete hilaren 20a baino lehen.

> TEKNOLOGIA

### Txomin Gartziaren lekua hartuta, Iñaki Aranburu izango da aurrerantzean Ikerlan-IK4ko presidentea

Ikerlan-IK4ko errektore kontseiluak Iñaki Aranburu izendatu du presidente, Txomin Gartziaren ordez. 2009-2012rako plan estrategikoa egitea da esku artean duen erronketako bat.

Iñaki Aranburuk 15 urtean egin zuen lan Ikerlan-IK4 enpresan. Ondoren, Goizper kooperatiban hasi zen lanean. Lau urteren ondoren, Oronara heldu zen. Orain dela bi urtetik, Oronako korporazio, promozio eta marketin saileko zuzendaria da.

**POLITIKA** > AURKEZPENA

# Herri ekimena jarri dute martxan eskubide zibil eta politikoen alde

Gizarte, kultura eta politikako eragileek eta herritarrek bat egin dute Euskal Herriak bizi duen eskubide urraketa gainditzeko adierazpenarekin

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Babes zabalarekin aurkeztu zuten urtarrilaren 31n Bilboko Euskalduna jauregian *Adierazi EH, Eskubide zibil eta politikoen Ekimen Herritarra*, jarduera sozial, kultural, sindikal, politiko, akademiko zein kiroletako 100 ordezkari inguruk babestu zuten-eta hori aurkezpenean.

Tartean, Ezker abertzalea, Aralar, Alternatiba eta Eusko Alkartasuna alderdi politikoak, LAB, EILAS, EHNE eta Hiru sindikatuak, ESAIT, Askapena, Bilgune Feminista, Ikastolen Elkartea eta EHU egon ziren ordezkatuta han; Madrilgo Auzitegi Nazionalean euren kontra auziak zabalik dituzten herritarrak ere izan ziren.

Izenak dioen moduan, euskal herritarrek jasaten duten eskubideen urraketa gainditzeko jarri dute martxan, eta horretarako, adierazpena egin dute; Euskaldunako ekitaldiaren amaieran, EHUko irakasle Yolanda Jubetok eta urrian atxilotua izan zen ezker abertzaleko kide Amaia Esnalek irakurri zutena.

**ZORTZI OINARRIZKO ESKUBIDE**

Zortzi oinarrizko eskubideren "egikaritza efektiboa" aldarrikatzen dute. Hain justu ere, nazioarteko erakundeen txostenetan jasotakoak: iritzi-askatasuna; intimitaterako eta pribatutasunerako eskubidea; adierazpen-askatasuna; justiziarako eskubidea; elkartzeko askatasuna; botoa emateko eskubidea; hautagai izateko eskubidea; eta egoera konpontzeko eta demokrazia berrezartzeko eskubidea.

Horrenbestez, adierazpenak dio Europan parekorik gabeko eskubide urraketei aurre egiteko garaia heldu dela: "Horregatik, egoera hori iraul dezaketen eta eskubide zibil eta politikoen errespetua eta bermea, demokrazia, berreskuratzeko lagungarriak diren lanabesak martxan jarri behar ditugu herri bezala. Pertsonen eta kolektiboen adierazpen librea defendituko duena. Esfortzu kolektibo bat herri honetako askotariko ideia eta iritziek berriro ere plaza publikoan zirkulatzeko egoera berri bat elkarrekin bultzatzeko".

Ekimeneko sustatzaileek jakinarazi zuten hilabeteotan Euskal Herri osoan zabalduko dutela.

ALDERDI POLITIKOEN IRITZIA



**Enrike Letona**
Ezker abertzalea

"Oso beharrezkoa da. Sentsibilitate ezberdineko jendea batzea Euskal Herrian eskubide zibil eta politiko barik bizi garela salatzeko garrantzitsua da, pentsatzen dugulako demokraziarik ez dagoela. Pozgarria da alderdi askok bat egitea; ez dugu atzera begira egon behar".



**Oxel Erostarbe**
Aralar

"Gainditu egin behar dugu egun bizi dugun egoera. Inoren zain egon gabe bakoitzak gure erabakiak hartu behar ditugu eta herria bake bidean ipini. Giza eskubideak eta zibil zein politikoak guztiontzako defenditzen diren heinean, hartuko dugu parte horrelako ekimenetan".



**Pello Urizar**
Eusko Alkartasuna

"Hainbat eskubide ez dira bermatzen eta indarkeriaren harira, gauza asko ezkutatzen dira. Indarkeria gaitzesten dugun moduan, beste eskubideak ezin ditugu ahaztu. Ez du aurkezpenean bakarrik geratu behar, luzera begirako ekimenak anitza izan behar du".



**Ander Rodriguez**
Alternatiba

"Edozein eskubide urraketa salatu dugu beti, eta oraingoan ere egon behar dugula uste dugu. Gizartearen zati bati eragiten dion eskubide zibil eta politikoen urraketaz ari gara kasu honetan; baina beste hainbat mugimendutatik iritsitako salaketekin ere egin dugu bat".

**MEDIKUNTZA** > EMAKUMEA ETA OSASUNA IZANGO DA SAIOEN GAIA

## Osasungoa Euskalduntzeko Erakundearen jardunaldiak, Arantzazun ekainean

Emakumea, minbizia, osteoporosia eta halako gaiak landuko ditu osasunaren arloan euskara normalizatzeko lan egiten duen erakundeak

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

Gandiaga Topagunean egingo dituzte jardunaldiak, ekainaren 4an eta 5ean, Osakidetzako eta zentro pribatuetako sendagileek, erizainek eta, baita ere, unibertsitateko irakasle eta ikasleek osatzen duten elkarteak; 600 baino gehiago izango dira. Arantzazuko Gandiaga Topagunean egingo dituzte topaketok, aurten Debagoieneko kideei zegokienez eta antolatzea.

**HITZALDIAK ETA TAILERRAK**

Oro har medikuntza arloko kideek parte hartuko badute ere, deialdia irekia dela diote antolatzaileek. Landuko dituzten gaiak, hain zuzen, interes orokorrekoak dira, genero-indarkeria kasu. Izan ere, saioen ardatza emakumea eta osasuna izango da. Arantzazu Ugarte Debagoieneko Ospitaleko mediku eta antolatzaileetako batek dio "gaiak osasun mailakoak" direla eta "horregatik arloko jendea gerturatzen" dela "gehienbat, baina interesa duen edonori" zabalduko dizkiotela ateak.

Hitzaldiez gain, bestelako trebakuntzetarako saioak ere antolatuko dituzte; ahozko komunikazioren inguruan, esaterako, edota posterrak zelan egin azalduz. Arantzazu Ugarte Debagoieneko Ospitaleko sendagileak dio saioen "gaiak oso eguneratuak eta azken nobedadeak kontuan hartuta" izango direla, "guztia euskaraz". Hitzordua ekainean izango da eta Gandiaga Topagunean egingo dituzte saiook, 4ean eta 5ean. Hau ez da, baina, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak urtean zehar antolatzen duen ekintza bakarra. Medikuntzako arlo ezberdinak euskaraz lantzen saiatzen dira argitalpenak kaleratuz edo Osakidetzaren *Osatuz* aldizkarian parte hartuta. Usurbilen daukate egoitza. Hainbat ekintza antolatzen badituzte ere, urteko ekitaldi nagusia jardunaldiak izaten dira. Iaz Altsasun egin zituzten eta osasun berrikuntzak izan zituzten hizpide eta aurten Debagoienean egingo dituzten lehen aldia da.

**EUSKARA**

## Abian da abizenak aldatzeko kanpaina

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

UEMAk bultzatuta, *Guk abizena, zuk?* kanpaina jarri da martxan bailarako UEMAko herrietan (Elgeta, Antzuola, Aramaio eta Bergara) euskal abizenak euskaraz izan nahi dituztenendako.

Abizena euskal grafiara moldatu nahi dutenek herriko erregistro zibilera edo bake epaitegira joan eta han emango dieten eskaera orria bete behar dute. Horrekin batera, nortasun agiriaren fotokopia, hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria, errolda agiria eta, ezkonduta edo seme-alabarik izanez gero, familia liburua aurkeztu beharko dituzte.

ESKAERA NON

**> ARAMAIO**
Udaletxean, bake epaitegian, astelehenetan, 09:00etatik 15:00etara.

**> ANTZUOLA**
Olaranen, bake epaitegian, eguenetan, 09:00etatik 14:00etara.

**> BERGARA**
Erregistro zibilean, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 14:00etara.

**> ELGETA**
Bake epaitegian, martitzenetan, 09:00etatik 14:00etara.

**ESKORIATZA**

## Luiziaren tokian parkea egin nahi dute

**M.B.** > ESKORIATZA

Eskoriatzako PSE-EE alderdiak proposatu du luiziagatik kaltetutako mendi magalean parke bat egitea. Talde horretako bozeramaile Iñaki Pierruguesek azaldu duenez, parke horrek AP-1 autobideko sarreratik Mazmela elizaterako bidegurutzerainoko zabalera hartuko luke.

Horretarako, Udal Gobernuari eskatu dio ingurune horretako lurzoruak eskuratzeko: "Ideia izango litzateke arrisku handien duten tokietatik hastea, hala nola San Pedro, Arbiñoste, Aranburuzabala eta Olaeta. Asmoa da ingurunea hobetzea, eta segurtasuna bermatu".

auzorik auzo

**ARRAGA** > Esan daiteke Aramaio erdialdean dagoela Arraga auzoa; handik, Aramaioko auzune gehienak ikusten dira. San Pedro jaiak ospatzen dituzte ekainean, eta ermita zegoen tokia interes arkeologikotzat izendatuta dago.


San Pedro ermitaren aurrealdean Iker Olaziregi auzo-alkatea. A.E.

Iker Olaziregi > Arragako auzo-alkatea

# "Etxe gehiago ezin direnez eraiki, auzoa hutsik geratuko den kezka daukagu"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARAMAIO

**Aurretik zortzi urtez izan zen Arragako auzo-alkate Olaziregi; eten baten ostean, orain berriro dabil alkate lanetan. Auzoa gainbehera doala dio, "gero eta gazte gutxiago" daudela eta Arraga hutsik geratzeko arriskuan dagoela dio.**

**Gero eta gazte gutxiago dago auzoan. Egoera txarra dela esan daiteke?**

Bai, auzoa gainbehera doa. Zazpi baserri daude, eta guztietan bizi da jendea baten izan ezik. Bizilagunak, ostera, 20 inguru gara. Gertatzen dena da gazte gutxi garela eta kezka dagoela denborarekin auzoa hutsik geratuko den.

**Izan ere, Plan Orokorraren arabera, auzoan ezingo litzateke etxe gehiago eraiki.**

Bai, hala da. Plan Orokorraren arabera, landagunea izango litzateke Arraga auzoa. Gutxienez, sei etxe egon behar dira etxe gehiago eraikitzen uzteko; eta Arragan, erdialdean, lau baserri besterik ez dago. Hortaz, ez gara gutxiengora iristen.

Hala, ez dago aukerarik baserri gehiago egiteko eta jende gehiago etortzeko auzora.

**Garai baten, nekazaritzatik bizi ziren auzotar gehienak, baina gaur egun hori ez da horrela izango!**

Gaur egun ez da inor bizi nekazaritzatik. Garai baten, baserri guztietan zeuden nekazariak, baina orain, ez.

Bestalde, esan behar dut beste auzoekin alderatuta, Arragan ez dagoela pinudirik; edo pinudi gutxi daudela. Hau da, oraindik txukun mantentzen ditugu zelaiak, pinua sartu barik.

**Zein da auzoak gaur egun duen arazo nagusia?**

Errepidea, adibidez, oso egoera txarrean dago. Hala ere, esan behar da orain dela gutxi auzolanean konpondu genituela errepide bazterrak. Urtean behin egiten dugu auzo-lana.

Errepidea gaizki dagoela eta konpondu beharra dagoela esan dugu Udalean, baina betikoa gertatzen da: ez dago dirurik.

**Saneamendua egin berri duzue, E Planarekin.**

Bai, E Planeko dirua erabili dugu saneamendua egiteko. Ura, adibidez, orain dela 20 urte inguru jarri zuten. Egia esan, zerbitzu aldetik ondo gaude, ez dugu arazorik.

**Ermita ingurua interes arkeologiko izendatuta dago.**

San Pedro ermita lehen beherago zegoen, baina jausi egin zen. Gune hori da interes arkeologikoa duena.

Garai baten, San Pedroren irudia gure etxean egon zen eta gerora eraman zuten gaur egun dagoen tokira. Auzoan morroi zegoen mutil bat Ameriketara joan zen lanera eta agindu zuen han egindako diruarekin ermita egingo ziola santuari. Hala, 1892an egin zuten San Pedro ermita berria.

**Nola ospatzen dituzue auzoko jaiak?**

San Pedrotan, ekainaren 29an, meza eta luncha izaten dugu. Arratsalde partean, berriz, hemen batzen gara auzotarrak.

**Auzoak ze mendi ibilaldi egiteko aukera ematen du?**

Arangioko mendiak bertan daude. Bi tontor dira nagusiak: Orixol –1.126 m– eta Santikurtz ermita –994 m–. Esan behar da beste auzo batzuetan jende gehiago ibiltzen dela. Bestalde, auzoan sagardotegia dugu.

**"Errepidea gaizki dago eta konpondu beharra daukala esan izan dugu Udalean"**

**"Lehen San Pedro ermita zegoen tokia interes arkeologiko gune izendatuta dago"**

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
OTSAILEKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: *kluba@goiena.com*
Kuota: 45 euro

ESAIT-EKO TERMIKO BERDEA ETA BISERA
Bidali KLUBA ESAIT [Bazkidearen izena] 5195 zkra.
esait


UMEENTZAKO PUZZLEAK
Bidali KLUBA PUZZLEA [Bazkidearen izena] 5195 zkra.
Ikastolen Elkartea


SASKIBALOIRAKO SARRERAK
Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen izena] 5195 zkra.
LAGUN ARO SAN SEBASTIAN GIPUZKOA BASKET


EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA
Bidali KLUBA ZIRA [Bazkidearen izena] 5195 zkra.
EKFB Euskal Selekzioa


SARI NAGUSIA URTARRILA-MARTXOA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
JOCCA RACLETTE

• Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
• Ez du oliorik behar.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

*Esklabotza frankismoan: errepideak eta fortifikazioak Mendebaldeko Pirinioetan* izeneko erakusketa dago Aretxabaletako Arkupe kultura etxean otsailaren 28ra arte. Horren osagarri moduan, *Frankoren esklaboak* izeneko ikus-entzunezkoa aurkeztu du Edurne Beaumont historialari nafarrak. Fernando Mendiolarekin batera egin du 30 minutuko lan hori.

**Edurne Beaumont** > Historialaria

# "36.000 lagunek egin zituzten bortxazko lanak Euskal Herrian frankismo garaian"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

**Francoren garaian Euskal Herrian egon ziren 20.000 esklabo ingururen historia ikertu du Edurne Beaumont (Zaraitzuko Espartza, 1976) historialariak eta garai hori larrutik bizi izan zutenen testigantzak jaso ditu, besteak beste, *Frankoren esklaboak* izeneko ikus-entzunezkoan.**


Edurne Beaumont, Memoriak Bidean elkarteko kidea eta historialaria. GOIENKARIA

**1936ko gerraren beste ondorio bat izan ziren esklaboak?**

Bai. Estatu-kolpearen eta gerra zibilaren ondorioz frankismoko diktadurak jarritako beste errepresio bat izan zen egoera hori. Erakusketak jasotzen du Euskal Herrian egon ziren 20.000 esklaboen esperientzia eta horrek izan zuen eragina euren familiengan, denboran eta esklaboak egon ziren herrietan.

**Nongoak ziren esklabo haiek?**

Jaizkibeldik Erronkarira egondako esklaboen esperientzia jasotzen du Arkupeko erakusketak eta guk ditugun datuen arabera, 20.000 inguru ibili ziren.

Estatu-kolpeak arrakasta izan ez zuen tokietakoak ziren, batez ere: andaluziarrak, bizkaitarrak, asturiarrak...

**Zer lan egin behar izaten zituzten?**

Mugaldean, batez ere, errepideak eta bunkerrak, 1939tik aurrera plan bat jarri zutelako muga indartzeko, fortifikatzeko. Militarren mugimendua errazteko errepideak eta bunkerrak ziren. Gipuzkoan, esaterako, Aiako Harrien aldean, Gaintxurizketan eta Jaizkibelen eraiki zituzten bunkerrak. Errepideak, berriz, Oiartzun eta Lesaka lotzen dituena, Irundik Erlaitzara doana eta Lezotik Jaizkibelera doana dira adibide batzuk. Nafarroan ere egin zituzten errepideak, Baztanen eta Erronkari eta Zaraitzu ibarretan, esaterako.

Barrualdean, berriz, aireportuetan, trenbide sareak eraikitzen, meategietan eta herrien berreraikitze lanetan ibili ziren, besteak beste, bai Euskal Herrian eta baita Espainian ere.

**Debagoieneko daturik batu duzue?**

Guztira, Euskal Herrian 36.000 preso eta esklabo behartu zituzten bortxazko lanak egitera. Nafarroan ibili ziren gehienak, baina Bizkaian eta Gipuzkoan ere 8.000 esklabo ibili ziren. Aipatutako bunker eta errepideez gain, bestelako lanak ere egin zituzten esklaboek; adibidez, Eibar eta Soraluzeko arma lantegietan, Zumarragako fundizio lantegian, Arronako porlan fabrika baten, Saturraran eta Donostiako espetxeetan eta Irungo eta Errenteriako kanalizazio lanetan. Gipuzkoan, hala ere, esklabo gehienak, 7.000, bunkerrak eta errepideak eraikitzen ibili ziren, mugaldean.

**Lan fisikoak egitera behartzen zituzten, beraz?**

Bai. Goizetik gauera arte ibili behar zuten pikotxekin eta palekin, zigorraren eta heriotzaren mehatxupean.

**Zeintzuk ziren euren betebehar eta eskubideak?**

Bi esklabotza mota zeuden: esklaboena eta presoena. Espetxeetan zeuden presoek epaiketa izan zuten aurretik, baina esklaboek ez. "Desafektu" moduan sailkatu zituzten pertsona haiek eta ez zuten inolako eskubiderik. Lanik egin ez edo kexatu egiten baziren, zigortu edo erail egin ahal zituzten. Guk haien egoera ikertu dugu, batez ere.

GIPUZKOAN

**"Gipuzkoan 8.000 esklabo ibili ziren, gehienak bunkerrak eta errepideak egiten"**

NOIZ ARTE

**"Gehienak 1939tik 1942ra arte ibili ziren esklabo lanak egiten; batzuk 1945era arte ere"**

TESTIGANTZAK

**"Gutxi batzuek ez dute bizitakoa kontatu nahi izan, denbora luzean egon direlako isilik"**

**Ze baldintza zituzten? Non egiten zuten lo? Zer jan? Ze bizimodu zuten?**

Eurendako espresuki egindako txapazko teilatua zuten egurrezko barrakoietan egiten zuten lo, eta izugarrizko hotza pasatzen zuten.

Lanari dagokionez, berriz, esperientzia ezberdinak ezagutu eta ikusi ditugu, esklaboak egondako herrien arabera. Batzuk herrian bertan bizi ziren eta haiek bazuten aukera, gutxi bada ere, herrikoekin harremanak izateko, bai lanetik kanpoko orduetan, baita egin behar zuten lanarekin lotuta. Herrietatik kanpo zeudenek, ordea, lanean ematen ez zituzten orduak barrakoietan ematen zituzten.

**Noiz arte iraun zuen egoera hark?**

Guk ikertu ditugun esklabo gehienak 1939tik 1942ra arte ibili ziren lan haiek egiten, baina 1945era arte ibili zenik ere bada.

**Eta gero, zer? Berriro bueltatu ziren euren herrietara? Euskal Herrian egin zuten bizimodua?**

Bortxazko lanak egiten bukatu zutenean, esklabo gehienak derrigorrezko soldadutza egitera bidali zituzten. Hura bukatutakoan, gehienak euren jaioterrira bueltatu ziren, zer esanik ez bizkaitarrak eta gipuzkoarrak. Topatuko dugu kasuren bat, hala ere, Erronkari edo Zaraitzu ibarreko neska batekin elkartu zena eta neskaren herrian bizi izaten gelditu zena.

**Noiz hasi zinen zu hori guztiori ikertzen?**

Fernando Mendiola eta biok 2000. urtean hasi ginen gai hori ikertzen, gauza gutxi genekielako. Gero eta informazio gehiago izaten eta gero eta testimonio gehiago jasotzen hasi ginen, eta jarraitzea erabaki genuen.

**Trabarik aurkitu duzue informazioa bilatzeko?**

Ez. Topatu ditugun trabak orokorrak dira. Informazioa badago eta artxiboetako langileek ez dute inolako eragozpenik duten materiala uzteko, baina dokumentu asko galdu egin dira eta beste asko katalogatu gabe daude oraindik.

**Iturri onena, hala ere, esperientzia hori bizi zutenek kontatutakoa izango da, ezta?**

Herriko artxiboetan topatu genituen esklaboen zerrendak, eta bizirik zeudenekin jarri ginen harremanetan. Gehienek ez dute eragozpenik jarri gurekin egoteko, baina gutxi batzuek hasieran baietz esan arren, ezetz esan digute gero. Lotsagatik, bizitakoa gogoratu nahi ez dutelako, familiak senide hori babestu nahi duelako... Bestetik, urte askoan egon dira gai horri buruz berba egin barik eta ezezagunak zaizkien bi pertsonari kontatzea ere ez dute nahi izan.

**Afrikako beltzekin lotzen dugu esklabotza, baina hemen ere gertatu zen hori, beraz?**

Bai, eta ez duela urte asko, gainera. Jendeak behar du kontatu eta behar du jakin.

# Haur Hezkuntza ulertzeko era berria: erdigunea haurra da.





## Arizmendi Ikastolako Haur Hezkuntza berrikuntza bidean da. BAGARA egitasmoari lotuta ari da hezkuntzari buruzko hausnarketa sakona egiten eta dagoeneko diseinu, proiektu eta ekimen berrietan murgilduta dabil.

Arizmendi Ikastolako Haur Hezkuntza aldaketa nabarmenak ematen hasita dago iazko ikasturtea geroztik. Bide eta arrazoi desberdinak medio, Arizmendi Ikastolak Rafael Cristobal psikiatra (eta haur psikiatrian ere aditua) aholkulari gisa hartu zuen 2008-09 ikasturtean, eta harrezkero, besteak beste, ikastolak duen egitasmorik nagusietako baten ari da buru belarri, hots, Haur Hezkuntzaren berrikuntzan.

Rafael Cristobal Ikastolara iristeko bideetako bat BAGARA egitasmoa izan da. Egitasmo edo proiektu horren helburu nagusia kooperatibismoa indartzea eta sustatzea da, eta hiru ardatzetako bat hezkuntza du. Arizmendi Ikastola BAGARAn dago, eta beste arlo batzuen artean, hezkuntzaren definizioan ari da lanean. Hezkuntzaren baitan, momentuz, Haur Hezkuntzaren etapari lotu zaio indartsuen, eta dagoeneko hainbat talde ari dira HHko proiektu kurrikularraren gaineko berrikuntzei begira.

### "Haurraren garapena arlo zientifikotik aztertzen dugu"

Haur Hezkuntzako orientatzaile Arantza Lejarragak dioenez, "*ikasturte honetan horren harira hainbat ekimenetan dihardugu: alde batetik, iaz hasita, oraintsu amaitu dugu R. Cristobalekin ikastaro bat, zeinetan "Gizakiaren oinarriak" bere lanean jasotzen diren ideiak azaldu dizkigun. Bertan egon gara HHko irakasle batzuk, kudeatzaile taldeko hainbat kide eta baita Hezkuntza Proiektuko partaideak ere.*" Laster HHko irakasle guztiek jasoko dute oinarri horiek beste ikastaro baten. Laburbilduz, R. Cristobalek arlo psikologikoan zein pedagogikoan orain arte egon diren teoriak aintzat harturik, eta osotasun ikuspegia emanez, arlo zientifikotik aztertzen du haurra. Bere ekarpen nagusia hori da. "*Gaur egun, baditugu garai batean ez bezala, umea ulertu ahal izateko beste oinarri batzuk ikerketa eta datu zientifikoei esker*" dio Lejarragak. Horrek guzti horrek eraman du Arizmendi Ikastola konturatzera aldaketa batzuk ezinbestekoak direla gaur eguneko Haur Hezkuntzan, bai metodologia aldetik, bai espazio aldetik eta baita irakasleak jokatzen duen rolari dagokiola ere. Arantza Lejarragak adibide bat ematen digu: "*orain arte gure lanaren erdigunea ez da izan haur bakoitza, alderantziz egin dugu, umea gure jarduerara egokitu behar izan da; orain ikusten dugu erdigunea haurra dela eta gure eguneroko jarduera horren inguruan antolatu behar dugula, bere garapen erritmoak eta erritmo biologikoak zainduz. Haurrarengan konfiantza izan behar dugu. Haurrak berak esango digu, hainbat bideren bidez, nondik jo behar dugun bere garapenean laguntzeko (laguntzeko baino gehiago, berarekin eta bere ondoan joateko).*"

### "HHn ematen ari diren pausuek nolabaiteko iraultza ekarriko dute"

HHko orientatzaileak dioenez, "*jasotzen ari garen teoria dela eta, hasi gara lehenengo aldaketak egiten. Esaterako, Arimazubi guneko Haur Hezkuntzako ume guztiak nahastuta hartzen ditugu txokoetan (adinen arteko elkar jolasak garatzeko dira txokoak). Arratsaldero haur bakoitzak txoko bat aukeratzen du bere jarduerarako eta adin desberdinetakoak elkartzen dira bertan.*" Antolaketa berria eskatu du horrek, baina abantailak asko dira nagusiak txikien erreferente izan daitezkeelako, eta alderantziz, rol eta protagonismo ezberdinak hartu ditzaketelako, besteak beste. Halaber, haur bakoitza bere garapenaren protagonista bihurtzen da, norberak bere erritmoa jarraituz.

"*Gurasoak hezkuntza komunitatearen parte direnez, eta gainera, eratzen ari garen Haur Hezkuntza berri honetan ezinbestekoa denez denon elkarlana eta ildo berean ibiltzea, "Guraso izatea, gaur" guraso mintegia jarri genuen abian ikasturte hasieran*" dio Lejarragak. Hilero, larunbat baten, 23 aita-ama elkartzen dira R. Cristobalek zuzentzen duen ikastaroan. Saio horietan gurasoei lagundu nahi zaie seme-alabaren mezuak interpretatzen edo ulertzen, horren arabera erantzun egokiena eman ahal izateko. "*Ikasturte honetako mintegia zuzenduta dago haurra izateko dauden gurasoei eta 18 hilabetera arteko haurra dutenei, baina urtez urte gora egingo du adinak, eta gure nahia da ikaslea nerabezarora iritsi bitarteko etapa guztiak lantzea guraso mintegian.*"

Arantza Lejarragaren ustez "*Arizmendi Ikastolaren Haur Hezkuntzan momentu honetan ematen ari diren pausuek nolabaiteko iraultza ekarriko dute etapa horretara ez ezik, gainerakoetara ere. Izan ere, Cristobalen hitzei kasu eginez, pertsonaren nortasunaren oinarriak bizitzako lehenengo bi urtetan ematen dira*".

## Haur Hezkuntzan aisialdia eskaintzeko era berria: tailer motzak eta anitzak.

**Arizmendi Ikastolan, Haur Hezkuntzan ere, aisialdia ardatzetako bat da, eta Kulturguneak hainbat egitasmo ditu horren inguruan, ikastolako familiek benetan estimatzen dutena.**

Arizmendi Ikastolak betidanik izan du aisialdiari lotutako egitasmoren bat eskuartean. Haur Hezkuntzako etapan eta ikastordutik kanpo urteetan izan dute haurrek psikomotrizitatea eta igeriketa ikastaroak egiteko aukera. Orain bi ikasturte, tailer laburrak eta anitzak antolatzeari ekin zitzaion. Umezaintzako gurasoen eskaerari erantzunez etorri zen proposamena, eta 2007-08 ikasturtean poliki hasi bazen ere, iazkoan gauzatu zen indartsu txikienen aisialdia planteatzeko modu berria.

Kulturguneko arduradun Gari Ibarzabalek aipatu duenez, "*plan berri honetan, tailer motzak jartzen ditugu martxan, zortzi orduko ikastaroak izaten dira, eta hamar-hamabi partaideko taldeak sortzen dira gai desberdinen inguruan.*" Iaz, esaterako, sei ikastarorako eskaintza egon zen ikasturtean zehar: patinajea, euskal dantzak, artelanak, antzerkia, abesbatza eta kirol jolasak. Asmoaz galdetzean Ibarzabalek dio: "*aniztasuna eskaintzea eta haurrak denetatik jasotzea da helburua. Horrela, Lehen Hezkuntzan izango duen eskaintzari zuzenago erantzungo dio eta egokiago egingo du bere aukera.*" Ikastaroa ematen dutenak, oro har, irakasle-ikasketak egiten ari diren gazteak izaten dira, gaiaren arabera, baita TAFYD (Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustatzea) heziketa zikloko ikasleak ere. "*Batzuetan, monitore eskolako ikasleak izaten dira, izan ere, maila ona erakusten duten aditu batzuk ere baditugu gure ikasle gazteen artean*".

Partaidetza zabala du Haur Hezkuntzako aisialdiak ikastolan. 2008-09 ikasturtean Arrasateko gune guztietan zabaldu zen tailer motzen egitasmo berria eta 276 ikaslek hartu zuten parte. Aurten Aretxabaletan ere, Basabeazpin, gurasoek interesa azaldu dute.

Bestalde, familia osoa hartzen du kontuan Kulturguneak, eta horren harira gurasoentzat ere antolatzen dira ikastaro motzak. Iaz sei egin ziren (montera ikastaroa, ardo dastatzea, euskara, trikitia, panderoa eta patinajea) eta 204k eman zuten izena, horietatik 46 Haur Hezkuntzako aita-amak. Arizmendi Ikastolako Haur Hezkuntzako haurrek, gainera, aukera dute udalekuetan parte hartzeko. Bost urtekoentzat izaten da eta Lehen Hezkuntzako txikienekin batera joan ohi dira Garesera (Nafarroa) bertan egun batzuk pasatzera.

Arizmendi
ikastola

## kale inkesta

# Torradak dira Aratusteetako bereizgarrietako bat. Zuek ba al duzue egiteko edo jateko ohiturarik?



**Luciano Domingez**
Erretiratua
Bergara

Emazteak egiten dituenean jateko ohitura daukat. Urtean behin edo birritan egiten ditu, data seinalatuetan. Aurreko batean txerriaren koipeaz egindako errezeta bat entzun nuen; nik edozein modutara ditut gustuko.



**Maite Gomez**
Langilea
Bergara

Amak egiten ditu, nik egingo banitu guztiak jango nituelako... Egiteko ez, baina jateko badut ohitura. Urteko edozein egunetan jango nituzke, baina amak data berezietan egiten ditu; bereak dira onenak.



**Emiliano Fernandez**
Erretiratua
Bergara

Bai badugu torradak jateko ohitura, baina nik ez ditut egiten. Emazteak egiten ditu, eta oso onak, gainera. Asko gustatzen zaizkit. Hori bai, ez ditugu edozein egunetan jaten, data seinalatuetan bakarrik.



**Marisa Davila**
Langilea
Bergara

Noiz edo noiz jan izan ditut, baina ez dugu data zehatzetan jaten. Ez dugu ohitura hori. Probatu ditudanean amak egin dituelako izan da. Gainera, diabetikoa naiz eta ez zait halakoak jatea komeni.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE
**> Su-itzalgailuak autoen kontra, Bizkaia etorbidean**
Gezurra badirudi ere, Arrasateko Bizkaia etorbidean bizi den arrasatear batek autoen kontra su-itzalgailuak bota dituztela salatu zuen duela aste batzuk. Ezezagunak harriekin hasi zirela dio baina horrekin nahikoa ez eta su itzalgailu bi –bata hutsik eta bestea beteta– bota zituzten autoen kontra. Harrigarriena da erasoa kalearen gainetik doan zubitik egin zela, hau da, 30 bat metrotara dagoen zubitik, hain zuzen.

ARRASATE
**> Aretxabaletarako bidearen mozketa ondo seinalatu barik**
Irakurle baten deia jaso dugu asteon erredakzioan Arrasatetik Aretxabaletara doan bide zaharraren mozketa behar den moduan seinalatuta ez dagoela esateko. Orain saihesbidera desbideratu dute zirkulazioa eta jarri duten seinaleztapena nahikoa ez dela dio irakurleak. Hala, eta batez ere gauez gidatzerakoan, gune hori "arriskutsu" dagoela jakinarazi du.

OÑATI
**> Fagorreko bezeroaren arretarako telefonoan, euskararik ez**
Oñatiko irakurle batek salatu du Fagorreko bezeroaren arretarako telefonora birritan deitu eta bietan euskaraz berba egiteko aukerarik izan ez zuela. Galdararen berrazterketa egiteko deitu zuen bezeroak eta dio, "lotsagarria" dela Fagor moduko enpresa batean bezeroaren arreta zerbitzuan euskaraz ez dakiten langileak egotea.

## usteak uste

**Jokin Bereziartua**

# Bestelako zinema, doan

Aurrez film batzuk eman dituzten arren, atzo hasi zen ofizialki Arrasateko gaztetxeko zinekluba. Oraingoz otsailerako egitaraua lotu dute: datozen emanaldiak hilaren 21ean eta 28an izango dira (17:30). Sarrera doan izango da eta palomita katxia euro baten salduko dute.

Orain gutxi estreinatu dute zinema berria. Eserleku gutxi eta ohiko zinemetako irudi eta soinu kalitaterik ez. Ezta ohiko zinematan ematen dituzten filmik ere. Izan ere, bestelako zinema eskaintzeko apustua egin du AGAKOk. Otsaileko eskaintza Japoniako marrazki bizidunetan zentratu dute, eta marrazkiak izan arren, ez dira haurrei begira bakarrik eginak: datozen bi filmak borroka ekologistaren barruan kokatzen dira. Beraz, herrian zinema eskaintzarik ez dagoela ez da aitzakia egun; Gasteizera doanak beste arrazoi batzuk izango ditu.

## zorroztailea



**Joxemari Muxika**

# Pentsioak eztabaidagai

"Hego Euskal Herriko herritarren pentsioak ere kudeatzen dituen Espainiako Gizarte Segurantzaren arabera, euskal herritarren batez besteko pentsioa, 2010eko urtarrilean, 967,56 eurokoa zen. Horien artean daude jubilatuak, alargunak, umezurtzak, behin betiko ezinduak..."



**Pentsioak itxuraldatzen dituzten estatistikak**
Argia > 2010-02-07

Bataz bestekoa 967,56 euroko pentsioa izanik, gaur askok kobratzen dituzten pentsioak eskasak direla argi dago gehiengoak batez bestekoa baino askoz ere gutxiago kobratzen duelako (549,80tik 725,20 eurora). Honek esan nahi du pentsioak ziurtatzea ezezik, igotzea ere beharrezkoa dela.

Baina aldaketak ez doaz bide horretatik. Azken garai honetan jasotzen ari garen albisteek diotenez, lanetik langileontzat sortzen dugun soldata eta etorkizunerako egiten dugun kotizazioa murriztu nahian dabiltza enpresetako eta bankuetako nagusiak diren kapital jabe handiak, baita hauen esanetara dabiltzan agintari ekonomiko eta politikoak ere. Hauek soldatak jeistea, lan kontratuak apurtu eta lantokitik botatzea merketzea plenteatzen dute. Pentsioetan ere aldaketak egitea planteatu dute, urte gehiagotan lana eginez eta erretiro pentsioa kalkulatzeko urte gehiagotako kotizazioak kontuan hartuz.

**"Kapital jabe handiek eragin duten krisi ekonomikoa euren diruzorroak loditzeko aprobetxatu nahia ikusten dut, langileen poltsikoaren kontura"**

Krisiak eragin duen egoera berriaren konponbidea ez du soldata jaisteak ekarriko, ez gaur bizirauteko behar diren soldatak jaitsita eta ezta pentsioen funtsetan gorde beharrekoak diren zergak gutxituta ere. Konponbidea lekarketen neurriak produktibitatea handitzetik letozke, horretarako erabaki berritzaileak hartuz eta behar diren inbertsioak eginez. Horretarako dirua behar da eta gerta daiteke langileek ere beren soldaten parte bat inbertsioak egiteko erabili behar izatea. Horrela balitz, soldataren zati hori kobratzeke utzi duenaren jabetzan gordetzea da egokiena eta ez nagusiaren zakura sartzea.

Gure inguruko gehiengo sindikala osatzen dutenek diotenez "onartezinak" dira gobernuak egin nahi dituen erreformak. Proposamenaren atzean finantza erakundeen pentsio sistema pribatuak bultzatzeko helburua sumatzen dela diote, irtenbide guztiak langileen poltsikoaren kontura hartu nahi izatea. Kapital jabe handiek eragin duten krisi ekonomikoa euren diruzorroak loditzeko aprobetxatu nahia ikusten dut nik ere.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Jon Berezibar, Julen Iriondo, Jokin Berziartua
**Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

# Herriak

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20



**> ARRASATE**
Urbano zerbitzua irailean bikoizteko asmoa dute eta horretarako lau autobus jarriko dituzte **> 14**




**> OÑATI**
Pilak birziklatzeko 28 ontzi marroi jarri dituzte herriko saltoki eta eraikin publikoetan **> 18**



**> ESKORIATZA**
Urdelardero egunak egingo die ongietorria Aratusteei, umeek ziriak eskuan dituztela **> 19**

**BERGARA** > JENDARTEA

# Arrakasta handiz hasi da eguenetako pintxo-poteo ekimena Bergaran

**JAN-EDANAK**
Ardo ondua eta pintxoa 1,5 eurotan emango dute bost tabernak (18:00-21:00)

**LAUREHUN PINTXO**
"Guk 400 pintxo eman genituen, eta denak antzera ibili ziren", dio tabernari batek



Ariznoa tabernako Juan Etxabarrik gazta pintxoak ipini zituen joan den eguenean ardo onduarekin jateko. LEIRE KORTABARRIA

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Etxagi, Biko, Ariznoa, Eusebio II eta Deportivo tabernek eguenetako giroa pizteko ekimen berria abiarazi dute: 18:00etatik 21:00ak arteko ordutegian, Faustino etxeko ardo ondua (kriantza) eta ekimenerako propio prestatutako pintxoa zerbitzatuko dituzte 1,5 eurotan. Joan den eguena izan zen lehenengo eguna, eta "oso ondo, uste baino jende gehiagorekin" hasi ere, Ariznoa tabernako ugazaba Juan Etxabarrik. Gainerako taberna jabeekin komentatuta, denek ere inpresio ona zuten egueneko estreinaldiaz. Gaur, astelehena, dira batzartzekoak balorazioa egiteko eta baita oraingo asteko pintxoak erabakitzeko.

**EZOHIKO BEZEROAK ERE BAI**

Ariznoa tabernan bakarrik 400 pintxo inguru zerbitzatu zituzten, eta gainerako tabernak ere antzera ibili ziren. Etxabarrik honakoa esaten digu: "Hasieran prestatuta geneuzkan pintxo guztiak bukatu egin zitzaizkigun, eta gehiago prestatzen ibili behar izan genuen. Izan ere, aurreikusi baino jende gehiago etorri zen, eta denetariko jendea, gainera: gazteak, bikoteak, neska koadrila bat ere etorri zen… Ohiko bezeroez gain, jende berria etorri zen tabernara". Pozik dago ere Deportivo tabernako Txus, "primeran" joan zelako estreinaldia: "Guk txanpinoiak plantxara eskaini genituen, eta kopuru izugarria eman genuen. Beharbada, Santa Ageda bezpera zelaeta jende gehiago zebilen kalean, eta horrek ere lagundu zuen. Ea datorren astean ere ondo irteten den". Deportivoko ugazabak esan bezala, giro ona zegoen ordurako kalean, batez ere San Martin plaza inguruan, eguneean ireki zen azokak ere lagunduta.

Dena dela, datorren astean kaleko giroa ere alde izango dute tabernariek, Eguen Gizen eguna delako.

ESANAK

**"Aurreikusi baino jende gehiago etorri zenez, prestatuta geneuzkan pintxoak bukatu egin ziren azkenerako"**

**Juan Etxabarri** > Tabernaria

**OSAGARRI BARIATUAK**

Asmoa da bost taberna parte-hartzaileetako bakoitzak osagarri jakin batzuekin egindako pintxoak ematea; hau da, ahal den neurrian barietatea egon dadila. Lehenengo egunean, hiru tabernak eman zuten txanpinoietan oinarritutako mokadua, baina, hala ere, jendeak ez zien muzinik egin. Gainera, horiek hasierakoak izan ziren; gauak aurrera egin ahala, beste mota batzuetakoak atera zituzten, bukatzen zebiltzanen partetik: oilasko-hegoak, urdaiazpikoa… Eta guztiak ez ziren onddoak izan: gazta, maionesa, txerri-solomoa eta hirugiharra izan ziren, adibidez, eguenean erabilitako osagarrietako batzuk. "Ahaleginduko gara osagarri desberdinak ematen, jendea asper ez dadin", diote antolatzaileek.

ESANAK

**"Arrasaten urtebete daroagu eta ondo doa ekimena, batez ere eguraldi onarekin: aurrekoan, 700 pintxo eman genituen"**

**Isabel Egia** > Hoteleko arduraduna

**ARRASATEN, URTEBETE**

Gure Ametsa elkarteak antolatutako tabernendako pintxo lehiaketak edukitako arrakasta izan da ekimenaren abiapuntua: "Ohikoa baino jende gehiago ibili zen tabernan. Erdi erotuta ibili nintzen, pintxoak egin eta egin", esan du Eusebio IIko Amaia Txintxurretak. "Horrek animatu gaitu hau antolatzera. Bestalde, badakigu Arrasaten ere egiten dutela ekimen hori eta jende asko ibiltzen dela kalean".

Bestalde, "aste bukaera luzatzea" lortzen da, Ariznoako Juan Etxabarriren esanetan: "Hiribuetan-eta, unibertsitate giroetan-eta, jende askok eguen ilunkeran irteten du kalera. Arrasaten, adibidez, horrela gertatzen da. Hemen ere antzeko zerbait gerta daiteke".

Bergarako tabernariek dioten moduan, Arrasaten dagoeneko urtebete daramate sei tabernak eguenetako pintxo-poteo ekimenean, eta balorazioa ona da –oraintsu sartu dira ekimenean bi taberna–, nahiz eta aste guztiak ez diren berdinak. Hotel Mondragoneko Isabel Egiak dioskunez, "eguraldiak eragin handia du. Hala, aurreko astean eguraldi txarra egin zuen eta 500 bat pintxo eman genituen, eta orain azkenekoan, ia 700".

Egiak dioenez, "lan handia da, eguenetan goizean hasi behar dute sukaldekook pintxoak gertatzen", baina "giro bikaina" sortzen da. "Azken baten, helburua da jendeak irteteko ohitura har dezan. Guk beti txistorra ematen dugu, eta jendeak badakienez, etortzen da", bukatzen du.


Sagardoa eta txistorra doan izan zen pregoiaren ostean. JOSETXO ARANTZABAL


Torrada lehiaketako irabazleei Txapel Txinek eman zizkien sariak. JOSETXO ARANTZABAL


Chuck Norris bihurtu zen Txapel Txin eta aretxabaletarrak Aratusteetan ondo pasatzera *behartu* zituen. JOSETXO ARANTZABAL

**ARETXABALETA** > TXAPEL TXIN EGUNA

# Chuck Norrisen 'babespean' iragarri zituzten Aratusteak

Txapel Txin Chuck Norris bihurtu zen Aratusteak iragartzeko; herriko plaza, beteta

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARETXABALETA
Txapel Txin Eguna ospatu zuten zapatuan Aretxabaletan. Urtez urte sendotzen doan ospakizun eguna da, herrian hain bereziak diren Aratusteak iragartzeko balio duena. Arratsaldetik iluntzera arte hainbat ekintza egin zituzten. Aurten Chuck Norris bihurtu zen Txapel Txin, eta *mehatxu* eta *heriotzaren begirada* artean aretxabaletarrak *behartu* zituen domekan mozorrotu eta eguna jai giroan igarotzera. Mozorrotzeko grina piztu zuen behintzat, aretxabaletarren artean. Txapel Txinen pregoian herriko plazan batu zen jendetza ikusita, aurten ere kolorea, barre algarak eta ondo pasatzeko gogoa izango dira nagusi domekan.

**TORRADA ONENA, ALTUNARENA**
Arratsaldeko lehen orduan, 17:00etan, txikienek Anne Monna taldearen *Ino, ino, ino, badator Bonbardino* antzezlanaz gozatu zuten, Arkupen.Gero, Tusuri taldeak suzko kalejira eskaini zuen eta horren ostean koadrilek osatutako epaimahaiak torrada onenak saritu zituen. Aurten, iaz bezala, Iker Altunarena izan zen torradarik onena, eta 100 euro poltsikoratu zituen. Bigarren saria Mari Carmen Astigarragarendako izan zen (50 euro) eta hirugarren saria Mari Corralendako (30 euro). Ondoren etorri ziren pregoia, doako sagardoa eta txistorra eta goizaldera arteko parranda.

**ARRASATE** > GESALIBARREKO JAIAK

# Jentil-Ola elkartea beteta, egubakoitzeko bertso afarian

**J.B.** > ARRASATE
Jaiak izan dira aste bukaeran Arrasateko Gesalibar auzoan. Bi ekitaldi izan ziren arrakastatsuenak: egubakoitzeko bertso afaria eta zapatuan baserriz baserri kantuan aritzea, Santa Ageda gogoan.

**EGAÑA, LIZASO ETA...AGIRRE?**
Giro aparta izan zen egubakoitzean auzoko Jentil-Ola elkartean. Bertso afaria izan zuten, Sebastian Lizaso eta Andoni Egañarekin batera. Bapo afaldu ostean –txanpinoiak saltsan, piper beteak, arrain-zopa, biribilkia (erredondo)...–, bertsolariek barre algarak eragin zituzten mahaikideen artean. Gaueko bitxikeria izan zen Iker Agirre aramaioarrak ere amaitu zuela bertsotan.

Antolatzaileen esanetan, "inoiz baino gazte gehiago" eseri zen mahaiaren bueltan.


Inoiz baino gazte gehiago izan zen egubakoitzeko bertso afarian, Egaña eta Lizasorekin batera. JOSETXO ARANTZABAL

**BERGARA** > ZAPORE ETA ARTISAUEN AZOKA

# Olagarroaren maisua eta mirari-baietak, arrakasta

18 postu, karpa eta guzti, egon dira asteburuan Bergarako San Martin plazan gutizia tradizionalez eta artisautzaz gozatu ahal izateko

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

"Maestro pulpeiro" bat egongo zela erreklamu nahikoa izan zen ia egun guztian zehar San Martin plazan, udaletxearen albo batean, kokatu zuten karpatxoa jendez betetzeko. Gosetxoa sabelaldean kilimaka hasten den orduetarako, "festa do polbo" batean bilakatu zen zapatuan Javier Ferreiro maisuaren karpa.

**OLAGARROA 11 EUROTAN ANOA**

Espainian, antza, titulu hori daukaten maisu bi bakarrik daude; eta horregatik ala zapore paregabeagatik, baina, anoako kobratzen zituzten 11 euroren truk patxadaz jesarri eta azken bentosaraino aprobetxatu beharra zegoen mokadutxoa. Galiziako gutiziak protagonista izan ziren olagarroaz gain: lakoia, erezak… baina hestebete eta lekale zein zereal aukera zabala ere –20 motatik gora, soia barne– egon zen, interesa izan zuenarentzat. Kantabriako ahuntz gaztak eta bakailaoak arreta asko erakarri zuten. Kontserbek ere Nafarroa eta Errioxako ordezkariak izan zituzten, maisuak hauek ere. Gozozaleenek gutizia etxekoagoak izan zituzten aukeratzeko, euskal pastela, esate baterako.

**MIRARI-ZAPIAK**

Baina arreta aipatuta ezin ahaztu stand-en ertz batean kokatu zuten baieta eta zapi ekologikoen postua. Miraria agintzen duten horietakoak. Horrek bai piztu zuela interesa. Alde batetik garbitu eta bestetik lehortzen zuen baieta, urik behar ez zuen zapia… Zalantzarik ala iruzur usterik gera ez zedin, gainera zuzeneko demostrazioak eta guzti egin zituzten bergarar bat edo beste postura barrura sartuta. Ikuskizun eta guzti, hortaz. Artisautzak ere izan zuen, halere, bere tartetxoa, txikia izan arren. Xaboi eta aloe verarekin egindako ukenduak edo kolore guztietako pasminak aurki zitezkeen. Pertxentenek Valentziatik ekarritako bitxien saltokia izan zuten ikusteko eta hotzari aurre egiteko Bartzelonatik ekarritako larruzko arropak. Merkatu txiki bitxi eta koloretsua JC 2000 enpresak Bergarara ekarri zuena.



Javier Ferreiro, olagarro anoarekin. JOSETXO ARANTZABAL



Emakumea baieta ekologikoaren demostrazioan parte hartzen. JOSETXO ARANTZABAL

**ARETXABALETA - ESKORIATZA** > SANTA AGEDAKO KINTOAK

# 91ko Kintoen dantzak inauterien atariko moduan

**J.B.**> DOMEKA

Aspaldiko ohiturari sasoi betez eusten diote urterik urte Aretxabaleta eta Eskoriatzan. Kintoak, kopuruz urteetan gora eta behera, baina 18 urte betetzen dituzten gazteek, mutil zein neska, gogotsu heltzen diote tradizioari. Aste honetan Santa Ageda egunez zein bezperan – baserrietara – egubakoitz eta domekan egin dute dantza gazteek.

Eskoriatzan 20 bat gaztek egin dute dantza, –kopuru polita aurreko urteekin alderatuta – eta Aretxabaletan ere talde ederra batu zuten 30 bat kiderekin.

**TXINO DANTZA DOMEKAN**

Santa Agedako domekatik inauterietako domekara arteko domeketan dantza egiteko ohitura da kintoena, baina aurten bata bestearen ostean etorri dira ospakizunok. Hortaz, hurrengo hitzordua aretxabaletarrena izango da, baina orduan Txino dantza egingo dute.



Aretxabaletako kintoak. J.A.



Eskoriatzako kintoak. J.A.

**EKONOMIA** > UDAL AURREKONTUA

# Oraingo urbano zerbitzua bikoiztu egingo dute irailean, lau autobusekin

Lehiaketa publikoa deitu gura dute, baldintza berriak zehaztu eta urbano zerbitzua berriro adjudikatzeko; adibidez, autobusak ibilbide berrietatik pasatzeko aukera aztertu gura dute

**UBANE MADERA**> ARRASATE

380.000 euroko partida bideratuko du aurten Udalak herri barruko garraio publikoen zerbitzuak indartzeko. Hortik 30.000 izango dira Garagartza ingurura doan taxi-bus zerbitzuarendako eta gainerakoa, berriz, autobus urbanoarendako.

Izan ere, labur esanda, bikoiztu egin gura dute urbano-zerbitzua. "Urtarriletik irailera arte orain arteko zerbitzuarekin segituko dugu; irailetik aurrera, baina, berriro adjudikatuko dugu zerbitzu hori, kontratu berriarekin", jakinarazi dute Zerbitzu Sailetik. Beraz, besteak beste, horrek esan gura du posible dela beste enpresa batek hartzea urbanoaren ardura, lehiaketa irekia deitzeko asmoa dute-eta.

**LAU AUTOBUS GORA ETA BEHERA**

Dena den, enpresa berria izan ala ez, irailean autobus gehiago ibiliko da Arrasaten: bi autobus ibiliko dira linea bakoitzean, eta, horri esker, arrasatearrek ordu erdiro izango dute urbanoa: "Orain guztira dauzkagu bi autobus. Gero, lau izango dira. Zapatuetan izan ezik; zapatuetan orain arte moduan segituko dute".

Autobusaren ibilbideari dagokionez, hor ere baliteke aldaketaren bat gertatzea: "Jasotako eskaerak aztertu behar ditugu eta baita ere herrian sortu diren gune berrietara iristeko aukera (Garaiako inguruak…)". Herritarren eskaera horien artean, adibidez, Mugarriterako, kanposanturako, San Joseperako… autobusak ipintzea eskatuta dute hainbatek.

**UDALTZAINGOAREN ONDORA**

Urbanoarekin lotutako beste berritasunetako bat da *Matadero*a-ren pareko geltokia lekuz aldatuko dutela, Udaltzaingoaren ondora. "Aurtengo aurrekontuetan sartuta dago oinezkoen zubi bat egitea Gelmatik ospitale ondora; obra hori egiten denean, aurreikusita dago leku bat egokitzea autobus geltokiarendako, gaur egun erretiratutako autoak eramaten dituzten lekuan. Modu horretan, ospitale-gunetik gertuago legoke autobus geltokia".

**TAO IPINTZEKO AUKERA**

Aztertzen dabiltzan beste puntuetako bat da Arrasaten TAO (OTA) ipintzeko aukera; hau da, aparkatzeagatik ordaintzea. "Autobus zerbitzua indartzen bada, ez da aitzakiarik herri barruan automobilean ibiltzeko, eta nahiko ondo dabiltza begiratzen gai hori, bai".

Eta txartel bakarra ipintzeko aukera ere badihardute aztertzen. Gaur egun, urbanoaren txartela da Arrasaten bakarrik ibiltzeko, eta asmoa da aztertzea ea posible den Diputazioaren txartel bakarra ezartzea. "Jendea muntatuko litzateke Garagargatzan, eta Garibain Donostiarako autobusa hartu ahal izango luke txartel bera erabilita".



Arrasateko autobus urbanoa Ferixalekuan herritarrak hartzen, egubakoitzean. U.M.

OSOKO BILKURA

## Bederatzi boto aurrekontuaren alde eta bederatzi, kontra

Autobus urbanoarena da aurtengo aurrekontuetan jasotako asmoetako bat. Gehiago ere badira, jakina, eta horien artean guztiek ez zuten alderdi politikoen adostasunik eskuratu. Hori horrela, eta bi orduko batzarraren ostean, alkatearen kalitatezko botoarekin onartu zituzten aurrekontuak.

Alderdika begiratuta, aurrekontuen alde bozkatu zuten Udal Gobernuko zazpi kideek eta Eusko Alkartasuneko eta Aralarko bi zinegotziek. Kontra egin zuten, berriz, lau sozialistek, Euzko Alderdi Jeltzaleko lau ordezkariek eta alderdi popularrekoak. Eta Alternatiba-Zutik koalizioko hiru ordezkariak abstenitu egin ziren.

**HAINBAT LAN AUZOETAN**

Onartutako txostenean, besteak beste, 2010ean egin gura dituzten proiektu nagusiak finkatuta geratu dira; esaterako, dirupartida handiak erabiliko dituzte Helduen Heziketa Iraunkorra, batetik, eta Udal Ongizate Saila, bestetik, egoitza handiagoetara lekualdatzen.

Horrez gain, Altamirako etxeetarako arrapala egiteko asmoa dute, 400.000 euro pasako inbertsioa eginda, Erguingo oinezkoen bidean hainbat lan egiteko 270.000 euro pasa erabiliko dituzte eta Uarkapen eguzki-plakak ipintzeko beste 250.000 euro. Eta beste inbertsio bat aipatzearren, Amaia antzokiaren sarrerako oztopoak ezabatu eta gunea irisgarriago egin gura dute 200.000 euroko inbertsioaren bitartez.

**EUSKARA** > KANPAINA

# Liburu eta disko zaharrak batzen ari dira Zahar-Berriren alde, azoka egiteko

Interesatuek AED elkartera eraman behar dute materiala; euskarazkoak izan behar dutela gogorarazi dute antolatzaileek

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Beste ekimen bat dabiltza gertatzen Zahar-Berri programakoak. Otsailetik martxora bitartean, liburu eta disko zaharrak batuko dituzte eta jasotako materialarekin azoka txikia antolatzeko asmoa dute.

Zahar-Berriko teknikari Maitena Aranak azaldu digu material guztiak euskarazkoa izan behar duela. Liburuei dagokienez, formatu zehatzik ez dutela eskatzen azaldu du: "Edozein liburu mota izan daiteke: umeenak, eleberriak, komikiak...". Diskoak, berriz, ahal den neurrian euskarazkoak izatea eskertuko luketela gaineratu du. Ekimen horretan parte hartu nahi dutenek AED elkarteko bulegora eraman behar dute materiala. Aranak aipatu du, horren harira, herritarren artean deia zabaltzeaz gain, ikastetxeetara ere jo dutela eskaera berarekin.

**AZOKA, UDABERRIAN**

Liburu eta disko zaharren azokarako data oraindik zehaztu barik dagoela esan digu: "Material nahikoa batzen dugunean egingo dugu hori, udaberri aldera". Horrekin batera, azaldu digu AED elkartearen taberna zaharrean egingo dutela eta horretarako sarrerek bi euro balioko dutela. Bestalde, liburu eta disko gehienak 5 eurotan salduko dituztela ere aipatu du.

**DIRU ITURRI BERRIA**

Zahar-Berri egitasmoa 1997an jarri zen martxan AED, AEK eta Udal Euskaltegiak bultzatuta. Egitasmo horren bidez, euskara ikasten ari diren pertsonei gune aproposa eskaini nahi zaie, ikasi dutena praktikan jartzeko. Horren harira, Aranak aipatu du azkenaldian murriztu egin direla horretarako dirulaguntzak eta, hortaz, diru iturri berriak bilatzeari ekin behar izan diotela.

Azkenik, nabarmendu du lehenengo aldia dela ingurunean horrelako azoka egiten dena: "Frantzian, esaterako, oso ezagunak dira, baina hemen ez".

**MINTZA EGUNA, ARRASATEN**

Bestalde, iragarri du Topaguneko Mintzapraktika sailetik antolatzen duten aurtengo Mintza Eguna Arrasaten egingo dela, ekainean.

**TXATXILIPURDI** > GAZTE TXOKOAK

# Teknikak ikasi eta norberaren buruan aplikatuz, gaztetxoak oso gustura ibili dira gore tailerrean

Gore tailerretan karakterizazioetarako teknikak ikasi ostean, 'gaztetxokeroak' zapatuan aritu ziren Aratusteetako kalejiran aterako duten karroza egiten; Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere egingo dituzte tailerrak



Gorputzeko atal ezberdinetan aplikatu dute tailerrean ikasitakoa. TXATXILIPURDI



Karakterizazio ikusgarriak egiten ikasi dute gaztetxoek. TXATXILIPURDI



'Gaztetxokeroak' zapatuan hasi ziren Aratusteetarako karroza egiten. TXATXILIPURDI

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Gazte txokoetako hezitzaileek bete-betean asmatu zuten duela hiru urte abiarazi zuten gore tailerrarekin. Iaz ere egin zuten eta urtez urte gero eta gaztetxo gehiago erakartzen ditu ekimenak. Lander Juaristi gazte txokoetako koordinatzaileak jakinarazi duenez, urtean zehar antolatzen dituzten hamaika ekimenetatik "arrakastatsuenetarikoa" bihurtu da gore tailerra. "Aratusteak gerturatzen doazen heinean gaztetxoek eurek eskatzen dute gore tailerra egitea", dio Juaristik.

Izaskun Gartzia hezitzaileak erakusten dizkie oinarrizko teknikak, beste hezitzaile batzuen laguntzarekin. Eta gero, gaztetxoak dira euren irudimenaren jarioa askatzen dutenak. Horrenbestez, denetariko karakterizazioak egiten dituzte, eta Juaristik dio "gero eta ikusgarriagoak" direla.

**ARATUSTEETAKO KALEJIRARA**

Gore tailerra Aratusteen bueltan antolatzen den ekimena da eta horregatik helburuetako bat da tailerreko teknikez baliatuz, Aratusteetarako karroza egitea. Eta, noski, behin eginda, zapatuko Aratuste festan egingo den kalejiran ateratzeko asmoa dute. Iaz hilkutxa mugikorra egin zuten. Aurten, berriz, karroza bat baino gehiago egiten ari dira: Osakidetzaren alde iluna atera gura izan dute...

Zapatuan aritu ziren Erguingo gazte txokoan karrozak egiten, baina aste osoan zehar ere aritu ko dira lanean. Beste gazte txokoetako *gaztetxokeroek* hala eskatzen badute, materiala edozein egoitzatara eramango dute.

**ONDOKO HERRIETAN ERE**

Gainera, Aretxabaleta eta Eskoriatzako gaztelekuetara ere zabalduko dute ekimena. Eguaztenean, hilak 10, Aretxabaletako gaztelekuan egingo dute gore tailerra eta hilaren 12an, Eskoriatzakoan.

TEKNIKAK

## Filmetako metodo bera, baina etxeko erara

Izaskun Gartzia gazte txokoetako hezitzaileak gore makillajearen gaineko ikastaroa egin zuela aprobetxatuz, oinarrizko teknikak erakutsi dizkiete gaztetxoei. Teknikari dagokionez, filmetan erabiltzen den antzeko metodoa da; hori bai, etxeko erara egina. Materialen artean, besteak beste, latex likidoa, haragi koloredun masa, makillajerako osagarriak eta odol artifiziala erabiltzen dituzte. Ez da material larregi, egin dituzten karakterizazio beldurgarriendako. Ikusi argazkiak, bestela.

# Kanarietara astebetez, Ibai Arteri esker

Lidia Madinabeitia arrasatearra izan da Ibai Arteren Kanarietarako bidaiaren irabazlea. 2009ko ekaina eta abendua bitartean Ibai Arte txartelarekin egin ziren 25.000 erosketen artean suertatu da irabazle, eta astebete egingo du Kanarietan. Sugar dendan egin zuen erosketa. Argazkian ageri dira Arrasate Bidaietako arduradunak, irabazlea bera, Arantxa Arantzabal Ibai Arteko lehendakaria eta Sugar dendako arduraduna. Ibai Arte oso pozik dago txartelak izan duen harrerarekin; 3.100 dira dagoeneko.




IBAI ARTE

**EUSKARA** > LITERATURA LEHIAKETA

# Aurten eskola-irratia generoa ere egongo da Koldo Eleizalde lehiaketan

Apirilaren 15era arte dago lanak aurkezteko, Udaleko Euskara Zerbitzuan

Idatzizko zein ahozko sei generotan lehia daiteke

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Udaleko Euskara batzordeak antolatzen duen Koldo Eleizalde literatura lehiaketako baldintzak kaleratu dituzte. Aurten, gainera, 25. edizioa da.

Ipuin idatzia, bertsoak, komiki-tira, ipuin-kontaketa edo antzerkia, txiste eta umorezko pasadizoak eta eskola-irratia generoetan lehiatu ahal izango da.

**ESKOLA-IRRATIA, LEHENENGOZ**

Eskola-irratiari dagokionez, aurten ekarri dute lehenengoz genero hori lehiaketara. Helburua da gehienez 15 minutu izango dituen irrati emankizuna aurkeztea. Lanak ikus-entzunezko artxibo digitalean –formatuak: MP3, AVI, MPG edo FLV– grabatuta aurkeztu beharko dira CD edo DVDan edo sare bidez. Parte-hartzaileei dagokienez, jaioturtearen araberako hiru multzo daude: 2001ean edo ondoren jaiotakoak, 1997-2000 jaiotakoak eta 1994-1996 jaiotakoak. Parte-hartzaile talde bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

DATUA

**6**

**GENERO**

Sei generotan parte hartzeko aukera ematen du Koldo Eleizalde lehiaketak: ipun idatzia, bertsoak, komiki-tira, ipuin-kontaketa edo antzerkia, txiste eta umorezko pasadizoak eta eskola-irratia.

**AHOZKO GENEROAK ERE BAI**

Idatzikoez gain, ahozko generoak ere aintzat hartzen ditu lehiaketak; horren adibide da eskola-irratia, baina badira gehiago: bertsoak, ipuin-kontaketa eta txiste eta umorezko pasadizoak. Genero horietan guztietan, CD edo DVDan grabatuta edo sare bidez aurkeztu behar dira lanak.

**PARTE-HARTZEKO BALDINTZAK**

Lehiaketan parte hartu ahal izango du Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edozeinek, bakarka zein taldeka. Genero bakoitzari buruzko oinarrietan azaltzen da aurkeztutako lanek originalak izan beharko duten edo ez. Originala izan beharreko lanen bat hala ez dela frogatzen bada, lana aurkeztu duenak 50 euroko isuna ordaindu beharko du.

Lanak aurkezteko azken eguna da apirilaren 15a, Udaleko Euskara Zerbitzuan. Sari emateari dagokionez, maiatzaren 29an egingo dute, Udal Pilotalekuan.

Parte-hartzaile guztien artean zozkatuko dira euskarazko aldizkari batzuen harpidetzak.

Informazio gehiagorako udal webgunera jo: *www.bergara.net*.



JOSETXO ARANTZABAL

## Epaimahai nagusiak bete du bere lana

Egubakoitzean batu zen amodiozko gutunen lehiaketako lehen, bigarren eta Bergarako gutun onenaren sariak erabakiko dituen epaimahaia. Jasone Osoro idazleak, Amaia Agirre bertsolariak, Gotzon Barandiaran idazle eta musikariak eta Imanol Sorondo iazko irabazleak osatu dute, eta dagoeneko egin dute euren lana. Hala eta guztiz ere, emaitzak ez ditugu egubakoitzera arte jakingo; hain justu ere, *Goienkaria*-n irakurriko dituzue irabazleen izenak beste inon baino lehenago.

Sari emateari dagokionez, datorren zapatuan, otsailaren 13an egingo dute, 12:00etan, kultura etxean. Sariak banatu eta gero, luncha ere egongo da bertaratzen direnendako.

**oharrak**

IRTEERA

**> Hilaren 20an Valdezcarayra eskiatzera joateko irteera**

14-18 urte bitarteko gazteendako irteera da. Materiala etxetik eramaten dutenendako prezioa da 20 euro eta materiala alokatuko dutenendako, berriz, 40. Irteera ordua da 07:00etan eta itzulera, 17:00etan. Izena emateko jo kultura etxera (943 77 91 60), gaur hasi eta hilaren 12ra arte.

IRTEERA

**> San Joxepek Kutxaespaziora irteera antolatu du**

Irteera izango da martxoaren 3an, 09:00etan, autobus geltokitik abiatuta. Izenematea zabalik dago elkartearen bulegoan 11:30-12:30 eta 17:30-18:30 ordutegian.

ODOL ATERALDIA

**> Hurrengo odol ateratzea otsailaren 17an izango da**

Ohi bezala, Seminarioko egoitzan, 18:00etan hasita.

**EUSKARA** > DIRULAGUNTZAK

# Pirritx eta Porrotx ikusteko 290 sarrera geratzen dira

16:00etako emanaldirako 212 geratzen dira eta 18:30eko emanaldirako, 78

**M.B.** > BERGARA

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoek datorren domekan, hilaren 14an, Udal Pilotalekuan egingo duten *Irrien lagunak* ikuskizunerako sarrerak geratzen direla azaldu dute udal arduradunek. Sarrerok emanaldi egunean leihatilan salgai jarriko dituztela ere aurreratu dute. Bi emanaldi izango dira: 16:00etako emanaldirako 212 sarrera daude eskuragarri eta 18:30eko ikuskizunerako, berriz, 78. Leihatila 15:00etan irekiko dute eta kontuan izan behar da sei sarrera baino gehiago ezingo dituela erosi pertsona bakoitzak.

**KONTZERTURAKO SARRERAK**

Udal Musika Bandak eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak egubakoitzean egingo duten Inauteri-kontzerturako sarrerei dagokienez, eskuragarri daude oraindik ere kultura etxean eta Lazkano oinetako dendan, 5 euroren truke. Leihatilan ere salduko dituzte. Emanaldia hasiko da 22:30ean, Udal Pilotalekuan.

Mexiko da Udal Musika Bandak eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak aukeratu duten gaia aurtengo kontzerturako. Bi zati izango ditu: lehenengoan musika bandak eta orkestrak bakarka jardungo dute; bigarrenean, biak elkarrekin arituko dira. Hain justu, *Camino al Rocío* delako ikuskizuna aurkeztuko dute bi taldeek, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean.

**PAZKOAK ANTOLATZEKO BATZARRA**

Kultura Zerbitzutik jakinarazi dutenez, Pazkoak antolatzeko hurrengo batzarra hilaren 23an izango da, 20:00etan, kultura etxera. Udaletik dei egiten diete herritarrei parte hartzeko.

**EUSKARA** > 'AUZOKO' PROGRAMA

# Jardunek eta Udalak 'Auzoko' programa jarriko dute abian

## Topagunea eta UEMAren programak euskararen erabilera bultzatzea du helburu

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Jardun elkarteak eta Udalak *Auzoko* programa jarriko dute abian. Topaguneak eta UEMAk diseinatutako programa da eta helburua zera da: euskararen erabilera bultzatzea eta, bide batez, etorkinek eskurago izatea euskara. Hasieran behintzat, Debagoienari dagokionez, Bergaran bakarrik jarriko da *Auzoko* programa martxan.

Lehen urratsa herritarrak kontzientziatzea izango da, euskaraz bizitzearen aldeko apustua egin dezaten. Ondoren, lagun taldeak sortuko dituzte, dinamika ezberdinak egin ahal izateko: sukaldaritza saioak, irteerak, kultura ekitaldiak eta beste hainbat. Hasieran, baina, gela barruko ekitaldiak izango dira, partaideek elkar ezagutzeko aukera izan dezaten. Taldeak sortzeko *auzotarrak* (herritar euskaldunak) zein *auzokideak* (herritar ez euskaldunak) izango dituzte kontuan. Izenematea datozen egunotan zabalduko dute eta kaleko lana ezinbestekoa izango da parte hartzea lortzeko.

**ELEANIZTASUNAREN INDARRA**

Dinamizazio lanak Jarduneko Maitane Arizabaletak egingo ditu eta Maider Elkoro Topaguneako ordezkariak ere jardungo du harekin. Elkororen hitzetan, "plan xumea da eta uste dugu eleaniztasunak aliatu mordo bat ekarri ahal digula. Denok izango gara irakasle eta ikasle, emateko zein hartzeko daukagulako denok. Ideia da 8-10 laguneko taldeak izatea eta talde bat baino gehiago sortzea, noski. Talde bakoitzak autonomia propioa izango du eta naturaltasun baten bizitzera iristea da helburua".

**HIZTEGIAK KALERATU DITUZTE**

Maider Elkororen koordinazioarekin, hainbat hiztegitxo landu dituzte: quechua, guarania, aymara eta Afrikako hainbat hizkuntzako hitzak euskara itzuli dituzte, etorkinek hiztegitxo horiek erabil dezaten, gutxienez, oinarrizko hitzekin euskaraz jarduteko. 13 hiztegitxo atera dituzte eta hil honen bukaeran beste zazpi kaleratuko dituzte. Hiztegion helburua, baina, bikoitza da: beraien hizkuntzei duten garrantzia aitortu eta, era berean, euskaraz egiteko lehen erremintak eskura ipini.


Maider Elkoro, kaleratutako hainbat hiztegi eskuan dituela. E.M.

**SASKIBALOIA** > HARROBIA LANTZEN

# Bergara KEren deiari erantzunez, 50 gaztetxo izan ziren atzo saskibaloian jolasten

## 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek saskibaloiarekin gozatzea da halako jardunaldien helburua; hurrengoa, otsailaren 28an egingo dute

**E.M.** > BERGARA

Bergara KEko saskibaloi sailak dei egin die 1998tik 2001era bitartean jaio eta saskibaloian aritu nahi duten gaztetxoei. Atzo goizean egindako lehen saioan 50 neska-mutiko elkartu ziren Labegaraietako kiroldegian eta antolatzaileak pozik azaldu ziren jasotako erantzunarekin; ordubeteko entrenamendu saioa egin zuten Iñaki Olaetxea saskibaloi eskolako arduradunaren esanetara. Olaetxearekin batera, saileko bederatzi entrenatzaile eta jokalari izan ziren saioa zuzentzen. Alex Familiar koordinatzailearen arabera, helburua gaztetxoek saskibaloian jokatzen gozatzea da. Hilean behin egingo dituzte halako saioak eta hurrengoa otsailaren 28an izango da, 10:00etan.


Bi mutiko atzoko saskibaloiko entrenamendu saioan, atzerago BKEko Jokin Perez entrenatzailea ageri dela. J. ARANTZABAL


GIARTZU

## Giartzu, txapeldun Astigarragan

Giartzu gimnasioko karatekek emaitza onak lortu zituzten aurreko astean Astigarragan jokatutako Gipuzkoako txapelketan. 75 kiloko kategorian, kumitetan, Jon Rodriguez izan zen irabazlea eta, horrez gain, taldeka, Giartzuk irabazi zuen katetan eta kumitetan hirugarrenak izan ziren. Goian, Jon Rodriguez, Eneko Ruiz eta Carlos Sanchez karatekak, Luis Muñoz entrenatzailearekin.

> IKASTAROA

### Defentsa pertsonaleko ikastaroa, otsailaren 22tik martxoaren 31ra

Bereziki emakumeei zuzendutako defentsa pertsonaleko ikastaroa antolatu du Bizikasik, otsailaren 22tik martxoaren 31ra bitartean. Eskolak astelehen eta eguaztenetan izango dira, Agorrosinen, 17:30etik 19:30era. Argibideak eta izenematea 943 76 93 94 telefono zenbakian edo *info@bizikasi.com* helbidean.

> ERAKUSKETA

### Jesus Mari Zabaletaren margo erakusketa Hamaika tabernan

Jesus Mari Zabaleta bergararraren margo erakusketa ikusgai dago egunotan Espoloiko Hamaika tabernan. Rikardo Azkargortarekin ikasten dabil Zabaleta azken urteotan eta dozena bat margo zintzilikatu ditu Hamaika tabernan. Haren lanen artean paisaiak dira nagusi, herriko hainbat txokorenak tartean.

**INGURUMENA** > BIRZIKLAPENA

# Pilak birziklatzeko 28 ontzi marroi jarri dituzte herrian

Ondoren, jasotako pila guztien material toxikoak errekuperatzen dituzte Recypilas enpresan



Argazkiko ontzia bezalako 28 jarri dituzte herrian. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Pilak birziklatzeko 28 ontzi berezi daude herriko hainbat denda eta ikastetxetan, osasun zentroan eta udaletxean (ikus ondoko taula). Ontziak marroi kolorekoak dira.

Debagoieneko Mankomunitateak 2002an jarri zituen ontziok herriko gune ezberdinetan. Horietan mota guztietako pilak batzen dituzte; besteak beste, alkalinoak, botoi-pilak eta poltsikoko telefonoetako eta argazki kameretako bateria txikiak. Aldiz, ontzi marroietan ezin dira bota karkasak, tresna elektrikoak, poltsikoko telefonoak, horien kargatzaileak eta pilak eroateko erabiltzen ditugun poltsak.

Horiek guztiak utz daitezke herriko 28 ontzietako baten, dendek, ikastetxeek, osasun zentroak eta udaletxeak dituzten lanegunetan eta zabalik daudenean.

**MATERIAL TOXIKOA**
Oñatiko ontzi marroietan biltzen dituzten pila guztiak garbigunera eroaten dituzte. Ondoren, Debagoieneko gainerako herrietan batutakoekin, Erandioko Recypilas SA enpresara bidaltzen dituzte. Han egiten dute pilak birziklatzeko prozesu osoa. Pilak dituen material toxikoak berreskuratzen dituzte; besteak beste, merkurioa, kadmioa eta beruna. Horrela, hondakin toxiko horien kontrolik gabeko isurketak saihesten dituzte.

Debagoieneko Mankomunitateko webguneak (*www.debagoiena.com*) pilak birziklatzearen garrantzia azpimarratzen du datu batekin: bi gramoko botoi-pila batek 600.000 litro ur kutsa dezake, pertsona batek bizitzan kontsumitzen duen ur kantitatearen boskoitza.

### Herriko 28 ontzi marroiak

- > Arkauz Optika
- > Arregi Etxetresnak
- > Osasun Zentroa
- > San Miguel kooperatiba
- > Mendizabal Kirol denda
- > Elkar Hezi Ikastetxea
- > Elortza Burdindegia
- > Eroski Center
- > ETEO
- > Errekalde Herri Eskola
- > Jon Argazkiak
- > Irizar Estankoa
- > Jon Bitxitegia
- > Lege Soziologia Institutua
- > Lete Millar (Olakua)
- > Lete Millar (Kale Zaharra)
- > Pedro Arregi 'Juanitosa'
- > Plazaola Argazkiak
- > Errekalde Autozerbitzua
- > Belar Etxetresnak
- > BM Supermerkatua
- > Txantxiku Ikastola
- > Truku Argazkiak
- > Txintxurreta Elektrizitatea
- > Zelaia Elektrizitatea
- > Zuazola Institutua
- > Larraña Institutua
- > Udaletxea

ITURRIA: DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA


ERREKALDE HERRI ESKOLA

## Errekaldekoak Bernedon, ingeles egonaldian

Errekalde herri eskolako Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleak Bernedon egon ziren aurreko astean. Hain zuzen ere, otsailaren 1etik 5era.
Bost egunean ingelesa izan zuten eredu. Egun haietan egindako ekintza guztiak –eskola orduak, jatorduak, aisialdiak, irteerak...– ingelesa erabiliz egin zituzten. Bernedoko egonaldiaren helburua ingelesaren ezagutza zabaltzea izan zela esan digute eskolako arduradunek. "Ingeles maila hobetzeko lanean egon ginen. Hainbat proiektu eta lan egin genituen, guztiak ere modu erakargarrian".

Bernedoko barnetegiko irakasleriaren jatorrizko hizkuntza ingelesa da; horregatik, ezinbestean, ingelesa erabili dute elkarren artean komunikatzeko.

**KULTURA**

## Naturari buruzko panelak ikusgai

Natura 2000 sareko erakusketa kultura etxean egongo da domekara arte

**M.B.** > OÑATI
*Bizitzeko tokiak, pertsonendako tokiak* delako erakusketa eguaztenean zabalduko dute kultura etxean. Natura 2000 sareko erakusketa ikusgai egongo da domeka arte, egunero, 17:00etatik 20:00etara. Bestalde, gai beraren gainean kale antzerkia egingo dute zapatuan, 12:30ean, herriko plazan.

**IBILTARIA**
Erakusketan panelak izango dira nagusi, kartoiarekin egindako panelak. Hain zuzen ere, irizpide ekologikoak hartu dituzte kontuan materiala aukeratzeko orduan.

Erakusketaren helburua Europako biodibertsitatearen galera geldiaraztea da. Horretarako, Europako proiektu kolektibo eta partehartzaile baten esfortzuak nola batu, eta laguntzak gehitzeko aukerei buruzko informazioa ematen dute. Erakusketa ibiltaria da, eta herririk herri dihardute. Oñatitik Eskoriatzara eramango dute, hilaren 17tik 21ra.

### oharrak

DEIALDIA
**> Sukaldaritza txinatarrari buruzko ikastaroa**
Hilaren 12an eta 13an sukaldaritza txinatarrari buruzko ikastaroa egingo dute Elkar Heziko Lehen Hezkuntzako eraikinean. Ikastaroaren ordutegia partehartzaileek erabakiko dute.

Bestalde, hilaren 17an eta 18an, batukadaren hastapenei buruzko perkusio ikastaroa egingo du Mikel Abeirok. Santa Marinako eraikinean egingo dute.

ZINEMA
**> 'Un novio para mi mujer' pelikula eguenean, zineklubean**
Juan Taratuto argentinarrak 2008an zuzendu zuen filma emango dute egueneko zineklubean, 20:00etan. Pelikulako protagonista Adrian Suarrek eta Valeria Bertucellik sari asko jaso dituzte; besteak beste, aktore onenen sariak irabazi zituzten Malagako eta Montrealgo jaialdietan.



Neska-mutikoak ziriak eskuan dituztela Urdelardero Eguna ospatzen iaz, Eskoriatzako plazan. GOIENKARIA

**ESKORIATZA** > OSPAKIZUNA

# Urdelarderok egingo die ongietorria Inauteriei

Goizean kalejira egingo dute ikastetxeetako umeek ziriak eskuan dituztela eta arratsaldean pailazoen ikuskizuna eta txokolatea dituzte

**MIRARI ALTUBE** > ESKORIATZA

*Urdei lardero, urdeixa janda, bazkaixa gero; hor goixen itturri bat, haren gainean txori bat, ura pilpil etorri da; etxekoandre zabala, etxe oneko alaba!* Sasoi baten legez, kantuan eginda eta ziriak eskuan hartuta ospatuko dute eguenean, hilak 11, eskoriatzarrek Urdelardero Eguna. Usadioa zen txerria hiltzeko sasoian txerriki eske ibiltzea ziriarekin, baina orain, txerrikiaren ordez gozokiak gurago dituzte neska-mutikoek. Hala, Inauteri jaiak gertu ditugula gogoraraziko dute Eguen Gizenean, eta mozorroak gertatzen joateko ordua dela.

**KALEJIRA ETA TXOKOLATEA**

Kalejira egingo dute kantuan eguna hasteko ikastetxeetako umeek eta zirian sartutako jakiak –txorizoa, sagarra, donutsa…– eta txistorra janda bukatuko dute ekitaldia plazan (11:30).

Arratsaldean (17:00), ostera, Hipo eta Tomax pailazoen ikuskizuna izango dute kiroldegian eta bukatutakoan (18:30), txokolate jana eskainiko die Udalak guztiei, herriko plazan –norberak eroan behar du edalontzia–.

**HERRI BAZKARIRAKO TXARTELAK**

Bestalde, Inauteri-zapatuan egingo den herri bazkarirako txartelak salgai daude. Frontoian izango da bazkaria (14:30) eta bi menu gertatu dituzte: umeendakoa, 9 eurotan eta helduendakoa, 15 eurotan. Txartelak Gozo-Txiki dendan eta Inkernu tabernan dauzkate eta erosteko azken eguna eguaztena da, hilak 10.



ESKORIATZA KE

## Luz Ardidenera eskiatzera martxoan berriro

Urtarrilean izan zen argazkiko taldea Luz Ardiden eski estazioan, Eskoriatza Kirol Elkarteak antolatuta. 31 lagun joan ziren orduan eta familia giro bikainean pasatu zuten aste bukaera. Eskiatzeko aparteko giroa izan zuten zapatuan; eta domekan, elurra hasi zuenerako buelta egin zuten.

Martxoan berriro joango dira, 20an joan eta 21ean bueltatu, eta eskoriatzar guztiak gonbidatu gura dituzte. Izena Namaste dendan eman behar da.

**ARETXABALETA** > KIROL ELKARTEA

# Tamara Davilarentzat UDAk zozketatutako 1.000 euroak

Taberna gehienetan dituzte zenbakiak hiru euroren truke eta hilero da zozketa

**M.A.** > ARETXABALETA

Urte berriarekin batera zozketa jarri du abian Aretxabaleta Kirol Elkarteak. 1.000 euro zozketatuko dituzte hilero, eta urtarrileko irabazlea Tamara Davila izan da.

Herriko taberna gehienetan dituzte zozketako zenbakiak –hiru zifradun 50 zenbaki bakoitzean– eta norberak hautatu behar du, hiru euroren truke, zein zenbaki gura duen. Hilabeteko azken eguneko itsuen aldeko zozketako zenbaki irabazlea –azken hiru zifrak– hartuko dute kontuan UDAko kideek saria banatzeko. Eta urtarrilean 483. zenbakia izan zen saritua. Izotz tabernan hartu zuten zenbaki hori eta Aretxabaletan bizi den Tamara Davilaren izena zeukan.

**HILABETE GUZTIETAN**

Kirol elkarteko zuzendaritza batzordeko kideen asmoa da hilabetero egitea zozketa hori, "arrakasta duen bitartean, behintzat".

Elkartearendako dirua batzeko beste zozketa bat ere egiten dute, domeketan, futbol zelaian, eta jatekoa zozketatzen dute orduan: txuletak, txerrikumea, legatza… Urtetan egin izan dute zozketa hori, eta arrakasta handia dauka Ibarrara partiduak ikustera joaten diren zaleen artean.



UDAko Angel Zubillaga, Tamara Davila eta Izotz tabernako Mikel. M.A.

## oharrak

ESKORIATZA

**> Odol ateratzea astelehenean osasun etxean**

Arabako Odol Bankuko kideak izango dira astelehenean, hilak 8, osasun etxean odola jasotzen (16:15-20:00). Betiko odol emaileekin batera, berriak joan daitezen gura dute odol emaileen elkarteko kideek.

ARETXABALETA

**> Gorka Aginagalde aktorearen bakarrizketa eguenean**

Bakarrizketa eskainiko du Gorka Aginagaldek eguenean Arkupen (19:30): *El txou de Patxi*. Zelakoak garen eta zer gura dugun jakiteko gakoak eskainiko ditu Patxi izeneko pertsonaiak umore giroan.

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Hirusta Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



San Jose parkeko behealdean zegoen baratzea txukundu egin dute brigadako langileek. A.E.

**ANTZUOLA** > INGURUMENA

# San Jose ingurua txukuntzen ibili dira

Oraindik zehaztu barik dago ze egingo duten; Udala prest dago proposamenak jasotzeko

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Antzuolako Udaleko brigadakoak San Jose parke ingurua garbitzen eta txukuntzen ibili dira egunotan. "Orain dela bi urte hasi ginen parkea egokitzen, bidea berdindu, goi aldera irteera eman, arbolak landatu eta garbiketa orokorra egin genuen parkea erabilgarri eta erakargarri egiteko", azaldu du Ingurumen zinegotzi Jose Mari Iturbek.

Behin hasierako lanak eginda, beheko partean zegoen baratze ingurua txukuntzea geratzen zen. Hala, azken egun hauetan ibili dira brigadako langileak inguru horretan lanean. "Baratzea zegoen tokia garbitu, goldatu, lurra berdindu eta zerbait ereitea gelditzen da. Gainera, hormak ere apur bat txukunduko ditugu", dio Iturbek. Lanak hasita daude eta asmoa da otsailean bukatzea, eguraldiak laguntzen badu, behintzat.

**HAN MARISTAK ZEUDEN**

Iturbek dio herritarrak ondo gogoratuko direla garai batean maristek zaintzen zutela lursail hori. "Txukun eta garbi zaintzen zuten; ez gara maila hartara iritsiko, baina horrelako inguru batek merezi du txukun zaintzea", dio Iturbek.

**SENDABELARREN BARATZEA**

Lan gehienak brigadako langileek egingo dituztela azaldu du Iturbek. Oraindik guztiz zehaztu barik dago zer egingo duten bertan. "Leku txikia, baina polita da", dio Iturbek. Hala, Udala prest dago herritarren proposamenak jasotzeko. "Herritarren parte-hartzearekin zaintzeko leku egokia da San Jose parkea. Baratzean sendabelarren baratzea, lorategia edo beste zerbait jar daiteke", esan du Iturbek.

**ARAMAIO** > ERAKUSKETA

# Nikaraguaren gaineko erakusketa egingo dute Satiñan egubakoitzetik aurrera

'Nikaragua: atzo, gaur, bihar' erakusketa otsailaren 21era arte izango da ikusgai Isode elkartearen eta Udalaren eskutik

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

Isode elkartearen eta Aramaioko Udalaren eskutik, *Nikaragua: atzo, gaur, bihar* erakusketa zabalduko dute Satiña aretoan, egubakoitzean. Andrea Eidenhammer-en 25 argazkiz osatutako erakusketa da; Hogar Cristo Obrero egoitzan bizi diren nesken irudiak dira, emakumeek sufritzen duten errealitate gordinaren isla direnak. Sexu indarkeriaren biktimak izan dira argazkietako protagonistak.

Erakusketa hilaren 21era arte izango da zabalik Aramaioko aretoan, aste barruan 18:00etatik 20:30ak arte eta asteburutan goizez ere, 12:00etatik 14:00etara.

**AUTOBUS ORDUTEGI BERRIA**

Bestalde, Aramaio eta Arrasate arteko errepidea itxita dagoenez, hauxe duzue autobusen ordutegi berria: Gasteiz-Aramaio-Arrasate: 07:00 - 08:30 - 13:25 - 16:40 - 20:10 (Gasteiztik irteerak); 06:50 - 12:15 - 15:20 - 19:00 (Arrasatetik irteerak); 07:20 -12:45 - 15:50 -19:30 (Aramaion) eta Aramaio-Arrasate: 06:50 -10:05 -11:05 -12:15 -15:20 - 17:55-19:00- 21:15 (Arrasatetik irteerak); 07:40 -09:10-10:30 -11:40- 14:05 -17:25-18:30 - 20:45 (Aramaiotik irteerak).

**LEINTZ GATZAGA** > LANAK

# Santa Kolunba alboko bidea egokitzen dabiltza asteotan

Teilatua konpondu zioten ermitari iaz Estatu Fondoko diruarekin eta orain ura jasotzeko hodiak sartuko dituzte eta bidea txukundu

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Santa Kolunba ermita inguruan lanak egiten dabiltza azken asteotan. Ermita alboan hodiak sartuko dituzte ura jasotzeko, eta, bide batez, bidea txukunduko dute.

Estatu Fondotik iritsitako diruarekin –44.000 euro– teilatua konpondu zioten Santa Kolunba ermitari, baina ezin izan zuten lan gehiagorik egin. Hala ere, Udalak erabaki zuen diru gehiago bideratzea bertara, ingurua txukundu beharrean zegoelako. Eskoriatzako Razkin enpresako langileak dabiltza lanok egiten.

Ermita guztiz berritzeko, baina, oraindik diru gehiago behar dute. Estatu Fondoko bigarren dirulaguntza 28.432 euro da Gatzagarendako, eta, ermitarako diru gutxi denez, beste konponketa batzuk egingo dituzte horrekin herrian.



Santa Kolunbaren alboko bidea txukuntzen. M.A.

**ELGETA** > LANGABEZIA

# Irailetik beheranzko joera hartu du langabeziak

Urtarril amaieran 30 langabetu zeuden herrian, biztanleria aktiboaren %6,10

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Langabeziak gora egin du Debagoienean, baina Elgetan beheranzko joera mantendu egiten da. Urtarrileko datua azken 12 hilabeteek emandako onena da, eta Debagoieneko baxuena. Elgetan 30 lagun daude langabezian, herriko biztanleria aktiboaren %6,10.

**2009AN LANGABEZIAK GORA**

Elgetak ez du krisi ekonomikoaren ondorioetatik ihes egin. Langabeziak gora egin du hemen ere. 2009an martxoak laga zituen datu txarrenak: 47 langabetu eta %9,55eko langabezia tasa. Abuztua ere ez zen batere hilabete ona izan. Langabetuak 46 izan ziren eta tasa %9,35ean egon zen. Ordutik hona, baina, langabeziak behera egin du progresiboki.

**HIRU PUNTU BEHERA**

Ikusteko dago beheranzko joera mantendu egiten den edo ez, baina nabarmentzekoa da azken bost hilabeteotan langabezia tasak hiru puntu egin duela behera.

Abuztuan 46 langabetu, irailean 41, urrian 40, azaroan eta abenduan 35, eta urtarrilean 30... poliki poliki behera egin du Elgetan lanik gabe daudenen kopuruak eta hori datu positiboa da.

Elgeta beti izan da langabezia tasa txikiko herria, eta uneotan berak du Debagoieneko tasarik txikiena; %6,10. Hurrengo Oñatik du langabezia tasarik txikiena (%7,83), eta jarraian Leintz-Gatzagak (%9,77). Egoera larriagoa dute Arrasaten eta Eskoriatzan: %12,48 eta %11,26 hurrenez hurren.



**> BERGARA**
Idiazabal baino hobeto moldatu zen zelaira, eta 3 eta 0 nagusitu > 23



**> ALOÑA MENDI**
Etxekoak lidertzara, Zubikoan inoiz ikusi den partidu onenean > 24



**> KANPANZAR**
Buelta askoko partidua azken unean galdu, Durangoren kontra > 25

# Bi taldeek onena eman gabe, logikak agindu zuen derbian

**ETXEKOAK**
Hegaletan arazoak defentsan, eta erasoan taldeko jokorik gabe

**KANPOKOAK**
Bigarren zatian defentsa estutu, eta erasoan taktikoki ondo

IZARRAITZ ALOÑA MENDI
**21-29**
SORALUCE BKE



Erasoan taldeko lana falta izan zitzaion Aloña Mendiri, eta oñatiarrek ezin izan zuten sarri mahoneroen harresia gainditu. JOSETXO ARANTZABAL

**JULEN IRIONDO** > OÑATI

Ez zen partidu onegia izan zapatuan Aloña Mendik eta Bergarak Zubikoan jokatutakoa. Gipuzkoako txapelketako sailkapenaren bi ertzetan diren taldeak dira, eta azkenean logikak agindu zuen markagailuan, eta estuasunik gabe irabazi zieten mahoneroek oñatiarrei.

Lehenengo zatia izan zen bietan txukunena; parekatuena ere hura izan zen. Bi taldeek nahikoa erraz egin zuten gola lehenengo minutuetan, baina laster hartu zuten hiruzpalau goleko aldea kanpokoek. Atsedena bitartean, baina, alde horrek ez zuen gora egin, gorriek minutu txukunak jokatu zituztelako. 10 eta 14 amaitu zen lehenengo zatia.

Bigarrenean partidua erabakita uzteko asmoarekin kantxaratu ziren Bergarako jokalariak. Defentsa estutu egin zuten, eta erasoan taktikoki gauza politak egiten saiatu ziren, nahiz eta jokaldi batzuk gaizki atera. Bergararren ohiko jokoa defentsa gogorra egin, baloia berreskuratu eta kontraerasora ateratzea izaten da, baina azken bi partiduetan ez dute gehiegi asmatu.

**PARTIDUA ERABAKITA**

Bergararrek martxa bat gehiago sartuta, laster bikoiztu zuten atsedenaldian zuten lau goleko aldea. Noizbehinka ohiko jokoa berreskuratuz, kontraeraso batzuk ere tarteko, handik amaierara artekoak eroso jokatzeko moduko errenta hartu zuen Josetxo Muniategiren taldeak.

Aloña Mendi ez zen alde hori murrizteko gai: defentsan behera egin zuen taldeak, eta arazo handiak zituen hegaletako aurkariei eusten; erasoan, berriz, ez zuten asmatzen baloia mugitzen eta taldean jokatzen, eta sarri bakoitza bere aldetik saiatzen zen jokaldia egiten.

21 eta 29 amaitu zen partidua. Etxekoek sailkapeneko azken postuan jarraituko dute, sei punturekin bakarrik eta mailari eusteko postuekiko dezenteko aldearekin –dena den, komeni zaie badaezpada azkenak ez geratzea–; mahoneroak, ostera, goiko aldean daude, denboraldi amaieran igoera fasea jokatzeko aukera ematen duten hiru postuetako bat lortzeko borroka bete-betean. Oñatiarrek Zarautz eta bergararrek Ormaiztegi izango dituzte hurrengo aurkariak.

EUSKADIKO TXAPELKETA

## Ford Mugarri Arrasatek 29 eta 24 galdu du Romoren kantxan, lehia nahiko arraroan

Euskadiko Txapelketan Ford Mugarrik ezin izan zuen markagailura eraman sailkapenean Romorekiko zuen aldea. Arrasatearrak onenekin eta bizkaitarrak taula erdian egon arren, garaipena etxean geratu zen. Lehenengo zatia hamaikana amaitu zen. Erritmo handian jokatu zen. Arrasatearrak ez ziren erasoan oso ondo ibili, hein batean Romok oso defentsa gogorra egin zuelako. Bigarren zatian oso indartsu atera zen etxeko taldea; Edu Orgazen mutilek, ostera, ez zuten defentsan asmatu. Huts batzuk egin zituzten, eta etxekoek bospasei goleko aldea hartu zuten. Kolpe eta falta askodun partidua izan zen, eta bigarren zatian denbora askoan egon zen geldi.



**Juanjo Arrizabalaga**
Aloñako 2. entrenatzailea

### "Ez dugu geure jokoan sinisten; denok batera egin behar dugu lan"

"Gertatzen zaiguna da ez dugula geure jokoan sinisten. Ondo egiten ditugun gauzak ere ez ditugu baloratzen. Gauzak oso zailak daude. Denok batera egin behar dugu lan; aurreko astean moduan jokatu ezkero, aurrera egingo dugu. Saiatu behar gara geu eramaten partiduaren martxa", zioen Aloñako teknikariak.



**Josetxo Muniategi**
Bergarako entrenatzailea

### "Giroan ikusten da ilusio handia dugula igoera jokatzeko"

Bergarako entrenatzailearentzat "otsaila oso hilabete garrantzitsua izango da. Hilabete honetako emaitzen araberakoa izango da azken sailkapena. Gustua hartu diogu goian egoteari, eta entrenamenduetan eta partiduetan oso zentratuta ibiltzen gara. Giroan ikusten da oso ilusio handia dugula igoera jokatzeko".



Aloña Mendiko zaleak pozik egoteko moduan dira; bigarren itzuliko etxeko bi partiduetan irabazten ikusi dute taldea.

JOSETXO ARANTZABAL

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA** > 21. JARDUNALDIA

# Talde osoaren lan ona borobildu zuten Roberto Idigorasen bi golek

Ondo hasi ziren oñatiarrak, baina Juaristiren lesioarekin hoztu egin zen partidua

Bigarren zatian iritsi ziren etxekoen golak, kanpokoena eta berdintzeko haien aukerak

**ALOÑA MENDI**

**2-1**

**EHU VASCONIA**

**Aloña Mendi** > Oier Zabaleta, Gorka Bernal, Julen Barrena, Roberto Idigoras, Mikel Palacios, Iñigo Zubia, Xabi Agirre, Josu Juaristi, Mikel Ibabe, Mikel Sanchez eta Iker Olalde.

**EHU Vasconia** > Urretabizkaia, Casillas, Dueñas, Arostegi, Barrio, Gomez, Haitz, Garate, Navarro, Aizpurua eta Arizmendi.

**Epailea** > Loran, Aginagak eta Agirrek lagunduta. Ondo, arazo handirik gabe eraman zuen partidua.

**Bestelakoak** > Bitxikeria dezente izan zituen partiduak. Hasteko, kanpoko jokalariek ez zuten euren elastikoarekin jokatu, Aloña Mendiren bigarrenarekin baizik. Euren lehenengo elastikoa oñatiarrenaren antzerakoa izan, bigarrenik topatu ez eta goizean deitu omen zuten Oñatira utziko ote zieten galdezka. Bestetik, hiru epaileek elkarri hitz egin eta entzuteko aparatua zuten belarrian, goiko mailetan moduan. Azkenik, kintoak ere izan ziren, urtero moduan, Azkoagaingo zelaian.

**JULEN IRIONDO** > OÑATI

Sailkapeneko postu lasaiagoetan finkatuz joateko, garaipen garrantzitsua lortu zuen atzo Aloña Mendik bera baino bi puntu gutxiagorekin zen EHU Vasconiaren kontra.

Partidua nahikoa ongi hasi zuen etxeko taldeak, baloia zentzu onez ukituz eta hegaletatik sartzen saiatuz. Aurreneko aukerak ere laster iritsi ziren: falta batean ezustean hartu zituzten EHUko atzelariak, Gorka Bernalek eskuinetik erdiratu eta Aloñako aurrelariak errematerako prest zirela, azken unean, atzelariek kornerrera bidali zuten baloia. Korner hartan eta minutu gutxira izandako bigarren batean, Mikel Palaciosek nahikoa eroso egin zuen errematea buruz area txiki ertzetik, baina bietan kanpora joan zitzaion.

Pablo Diez entrenatzaile gasteiztarra Oñatira iritsi denetik, aurretik jokatzeko minutu asko izaten ez zituzten jokalari batzuk garrantzitsu bihurtu dira hamaikakoetan. Xabi Agirre da bat –oraingoan ere partidu bikaina egin zuen, egiten eta desegiten; erasoko jokaldietan parte hartzen eta kanpokoak jokatzen hasi ez zitezen eragozpenak jartzen–, eta Josu Juaristi beste bat.

Juaristik, baina, zorte txarra izan du. Sorbaldan min hartu zuen 18. minutuan, eta zelaia utzi behar izan zuen. Haritz Garmendia sartu zen haren ordez. Lehenengo zatia moteldu egin zen pixka bat, jokoa asko geratu eta baloia zentzu asko gabe ibili zen hara eta ona.

**ASPALDIKO GOLAK**

Aspaldi golik egin gabea zen Roberto Idigoras; bigarren zatian, baina, asmatu egin zuen edukitako bi aukeretan. 14. minutuan baloi luzea jaso, kontrolarekin bikain jaitsi eta atezainaren gainetik loratuz egin zuen lehenengoa; bigarrena, Jon Astigarragak ezkerretik egindako erdiraketa paregabea buruz errematatuta, 28.ean.

Partidu amaierak lasaia izan behar zuela zirudien. Arauzko denbora betetzear, baina, korner batean buruz egin zuten gola kanpokoek, eta luzapenean bi aukera on izan zituzten berdintzeko. Ez zituzten aprobetxatu.

**Pablo Diez** > Aloñako entrenatzailea

## "Lau partidu on egin ditugu, baina asko falta da liga amaitzeko"

**J.I.** > OÑATI

**Lau jardunaldi daramatza Pablo Diezek Aloñaren aulkian. Taldeak hamazazpi puntu lortu zituen lehenengo itzulian; bigarreneko lehen lau jardunaldietan, berriz, hamar.**



J.I.

**Azkenean behar baino gehiago sufrituta, baina irabazi.**

Azken minutuetan, euren golarekin, estutu egin gaituzte, baina uste dut merezimenduz irabazi dugula partidu osoan egindakoa kontuan izanda.

**Juaristiren lesioa izan da partidua hoztu izanaren arrazoia?**

Josu oso jokalari garrantzitsua da guretzat. Teknikaz gain alderdi fisikotik ere indartsua da. Bere hutsunea igarri dugu 10-15 minututan, baina gero itzuli gara gure jokoa egitera. Oso pozik nago taldearekin.

**Eta Robertok ere gola egin du aspaldiko partez.**

Bolada bat zeraman asmatu barik. Entrenamenduetan harrigarria da, dena sartzen du. Bi gol hauen ostean, espero dut bolada txarra ahaztea.

**Iritsi zinenetik, hiru garaipen eta berdinketa bat kanpoan...**

Espero dut horrela jarraitzea, ze lau partidu on egin ditugu, baina asko falta da liga amaitzeko. Nik nire kontuak egin ditut eta uste dut 37 punturekin salbu izango ginatekeela eta 27 ditugu dagoeneko. Egoera onean gaude.

**FUTBOLA** > OHOREZKO ERREGIONALA

# Zelaira ondoen moldatu zenak eraman zituen hiru puntuak

Indarra eta borondatea baliatu zituen Bergarak goiko postuetan dagoen Idiazabal menderatzeko

Manu Diazen mutilek oso ondo jakin zuten partidua interpretatzen, eta sufritu barik irabazi zuten

BERGARA
**3-0**
IDIAZABAL

**Bergara** > Jokin, Mikel, Iker, Jon, Josu (Jon Garitano 66.min), Markel, Unai, Oier, Jon Alzola (Julen 72.min), Beñat (Martin, 69.min) eta Imanol (Jokin Balzategi, 81. min.).

**Idiazabal** > Gabriel, Mikel, Ander, Alain, Iker, Mikel (Jon, 72.min) Esteben (Ander 88. min.), Jon (Julen 45. min.), Ioritz, Harri (Kepa 45.min) eta David (Xabi 84. min.).

**Epailea** > Ez zuen partidu zaila izan eta nahiko ondo aritu zen . Hiru txartel hori atera zituen, bat etxeko taldeari eta bi kanpokoei.

**JOKIN BEREZIARTUA** > BERGARA

Futbol-zelaiaren egoera tamalgarria delako lurretik jokatu ezin denean, bestelakoa da futbola. Hala, zelaian ondo jarrita egotea, baloira indarrez sartzea, goitik datozen baloietan nagusitzea eta erortzen denean haren jabe egitea –futbolarien artean *bigarren baloiak* moduan ezagutzen direnak– ezinbestekoa da emaitza ona lortzeko. Bada, lan horretan jaun eta jabe izan zen Bergara sailkapeneko goiko postuetan dagoen Idiazabalen aurka, eta merezimendu osoz eskuratu zituen hiru puntuak.

**ZELAIRA MOLDATU ZENA, NAGUSI**

Parekatuta hasi zen lehia; baloia alde batetik bestera eta jokalariak tamalgarri zegoen Agorrosingo zelaira moldatu nahian. Etxekoak hobeto moldatu zirenez, pixkanaka nagusitzen hasi ziren.

Hala, korner batetik etorri zen lehen gola, 22.minutuan. Imanol Cabanillas kapitainaren erdiraketa baten ostean, eta errebote bat aprobetxatuz, Oier Loiolak sarera bota zuen baloia (1-0). 15 minutu barru bigarrena sartu zuen zapatuan bikain aritu zen Jon Alzolak, burukada eder bati esker (2-0). Arrisku gehien Alzolaren eskuin hegaletik sortu zuten etxekoek. Bergararen golen aurrean Idiazabalek ez zuen erantzuten jakin; ito egin zen Agorrosinen. Gainera, bigarren zatian ere gogotsu irten zen Bergara eta kanpokoei ezinezkoa egin zitzaien Bergaratik ezer onik eroatea. Eta kanpokoek aldaketa une okerrean egin izana –baloia etxekoen esku zegoenean egin zuten– aprobetxatu zuen Martin Ibañezek hirugarrena egiteko, buruz (3-0).

**'URTEKO PARTIDU BOROBILENA'**

Pozik zegoen Manu Diaz entrenatzailea lehiaren ostean: "Nahiaz, borondateaz eta une batzuetan joko onaz, merezitako garaipena izan da. Zelaia oso astuna zegoen arren, urteko partidurik borobilena egin dugula esango nuke". Hiru puntu, eta adorea taldeari.



Jon Alzola nabarmendu zen zapatuan, jokatu zuen bitartean bere hegaletik egin zuen arrisku handiena Bergarak. JOSETXO ARANTZABAL

---

**FUTBOLA** > HIRUGARREN MAILA

# Defentsan egindako akatsen erruz, UDA esku hutsik Eibartik

Defentsan makal eta aurrealdean ideiarik gabe, burua ezin altxatu jarraitzen du UDAk; honezkero jaitsiera postuetatik bi puntutara dago taldea

EIBAR
**2-0**
UDA

**J.B.** > ARETXABALETA

Azken jardunaldietako dinamika txarrari buelta emateko aukera paregabea izan zuen atzo UDAk Eibarren, armaginak aretxabaletarren aurkari zuzenak dira-eta sailkapenean. Baina azken jardunaldietan errepikatzen ari diren defentsako beste akats batzuen ondorioz, esku hutsik bueltatu ziren Unbe futbol zelaitik. Igor Gordobil haserre zegoen bere mutilekin: "Azken zortzi asteetako entrenamenduetan behin eta berriz ari gara errepikatzen defentsan sendo aritu behar garela, baina partidu guztietan egiten ditugu barkaezinak diren akats larriak". Kontzentrazio faltak eta zelaian ondo jarrita ez egoteak eragin zituen akatsak.

Partidua nahiko txukun hasi zuen UDAk eta lehen zatian epaileak ez zion aldeko penalti bat adierazi. Hala ere, atsedenaldira galtzen joan zintezkeen, Eibarrek bi aukera garbi izan zituen-eta. Bigarren zatian ere UDA makal aritu zen defentsan, baina orduan eibartarrek eman zizkieten aukerak aprobetxatu zituzten . Merezimenduz galdu zuten aretxabaletarrek eta Gordobilen ustez, taldeak "aldaketa sakona" behar du Hirugarren Mailan mantentzea gura badu.

**GAZTE MAILAKOEK, ETXEAN GALDU**

Gazte mailako taldeak, bestalde, galdu egin zuen etxean Sestao Riverren aurka (1-2). Ondo hasi zen UDA, eta aukeraren bat izan zuen bizkaitarren atea zulatzeko. Hala ere, defentsan egindako akats baten ondorioz, gola egin zuen Sestao Riverrek. Bigarren zatian epaileak bi penalti adierazi zituen, talde bakoitzari bana. Etxekoak saiatu ziren berdinketa lortzen, baina ezin. Iban Rodriguez entrenatzaileak adierazi zuenez, "merezimenduz" galdu zuten zapatuan.

---

> OHOREZKO ERREGIONALA

### Bigarren zatiaren hasieran bi gol jaso ostean, 2-0 galdu zuen Mondrak Beti Gazteren zelaian

Lesakatik esku hutsik bueltatu zen Mondra. Andoni Azkargortak onartu egin zuen porrota: "Gu baino azkarrago jokatu dute eta zelaian hobeto jarrita egon dira". Atsedenaldiaren ostean jaso zituzten golak. Azken minutuetan saiatu zen Mondra berdinketa lortzen, baina bihotzarekin gehiago, buruarekin baino.

> EMAKUMEZKOEN LIGA

### Talde hobea izan arren, egun txarra izan zuten Mondrako neskek eta berdindu egin zuten (3-3)

Mondrako neskek ez zuten euren eguna izan atzo, eta bigarren doan Intxaurdiren aurka puntu bakarra lortu zuten Mojategin. Kalitatez dezente hobea da Mondra eta aurkariak jokatzen ez uztera mugatu ziren; eta lortu zuten. Gainera, atzean makal aritu ziren etxekoak. Golak: Andrea Paredesek bat eta Maitane Roak bi.

> ERREGIONAL PREFERENTEA

### Azken minutuan penalti bat huts egin eta gero, Antzuola esku hutsik itzuli zen Legazpiatik (1-0)

Partidu garrantzitsua galdu zuen zapatuan Antzuolak Ilintxaren aurka. Aukera gutxiko partiduan, etxeko taldearen aldeko penalti baten hautsi zen lehia. Gola jaso ostean, jo eta ke aritu ziren antzuolarrak golaren bila eta azken minutuan penalti bat izan zuten alde berdinketa lortzeko. Baina asmatu ez, eta esku hutsik etxera.

**LEHENENGO MAILA** > 16. JARDUNALDIA

# Morala hartzeko garaipena, jaurtitzean gehiago asmatuta eta presioa eginez




Kanpotik zein barrutik, bietatik asmatu zuten beste askotan baino gehiago jaurtiketak egiterakoan. J.A.

Beste batzuetan falta izan zaien punteria izan dute oraingoan arrasatearrek

Intentsitate handia izan zuten atzean, ia partidu osoan kantxa denean presionatuz

MU
**91-84**
VIAJES MARFIL

**JULEN IRIONDO** > ARRASATE

Garaipen polita lortu zuen zapatuan Mondragon Unibertsitateak Viajes Marfilen kontra. Beste egoera batean, politaz gain, garrantzitsua zatekeen, eta balentria ere bai, sailkapeneko azkenak goi-goiko talde bati irabazteak horrela behar lukeelako. Kontua da, baina, ligako lehenengo fasea amaitzen ari dela, eta nafarrek igoera fasea eta arrasatearrek jaitsierakoa jokatuko dutela seguru; beraz, elkarren aurkako partiduko emaitzak ez du gerorako garrantzirik. Moralerako bai, moralerako primeran etorriko zaie MUkoei zapatuan irabazi izana.

Oso neurketa parekatua izan zen; alde handienak 8-9 puntukoak izan ziren, eta denbora gehienean etxekoak egon ziren aurretik. Atsedenaldira, esaterako, 52 eta 48 joan ziren irabazten. Baina atzetik ere egon ziren etxekoak, une txarrenean gainera; azken laurdenean sei puntuko errenta hartu zuten kanpokoek, baina Javier Zurbanoren mutilek jakin zuten markagailuari buelta ematen.

MUk kantxa osoan presioa egin zuen ia partidu denean, eta honek emaitza onak eman zizkion. Intentsitate handiko defentsa egin zuten.

Erasoan, berriz, lehen zatian kanpotik jaurti zuten batez ere etxekoek, eta oso zenbaki onak lortu zituzten gainera. Hirukoetan fin ibili ziren. Bigarren zatian, ostera, barruko jokoan oinarritu zuten gehiago erasoa, eta alor onetan ere txukun moldatu ziren.

**ATZERATUTAKO PARTIDUA**

Baina zapatukoa ez zen izan asteburuko partidu bakarra. Domekan Ardoiren kontra jokatu zuten Arrasatekoek atzeratutako partidua. Partiduaren zati handienean aurretik joan arren, hirugarren laurden txarra egin eta hamarregatik galdu zuten. Hiru partidu falta zaizkio MUri lehen fasea amaitzeko, hauetako bi irabazi beharrekoak.

**MAILA AUTONOMIKOA** > 16. JARDUNALDIA

# Luzapen eta guzti, garaipena eta lidertza

Alor guztietan lan asko eginda eta zaleen laguntza handiarekin, gorabehera askoko partidua etxekoentzat

ALOÑA MENDI
**108-103**
SANTURTZI

**JULEN IRIONDO** > OÑATI

Jokaldi eta saskiratze ederrak, joko gogorra, polemika, zaleen bultzada, emozioa... Denetik izan zuen zapatuan Zubikoan Aloña Mendik eta Santurtzik jokatu zuten partiduak. Goi mailako saskibaloia izan zen; asko zegoen jokoan, lidertza besteak beste, eta garaipenarekin oñatiarrek eskuratu zuten. Oraindik asko falta da, dena den, liga erregularra amaitzeko.

Lehenengo zatian Aloña Mendik normalean sartzen dituen hainbat jaurtiketa egin zituen huts, eta errebotean, gainera, kanpokoak nagusitu ziren. Iñigo Biain faltengatik aulkian zela, etxekoen hutsegite batzuk eta zortzi eta hutseko partzialarekin atsedenaldian 39 eta 41 ari ziren irabazten kanpokoak.

Bigarren zatian baloia ongi mugitu zuten bizkaitarrek, eta joko azkarra eginez aldea handitu zuten, ia hamar punturaino. Barruko jokoa utzi eta kanpotik saiatzea erabaki zuten orduan oñatiarrek. Aldea gutxitu bai, baina berriz ere aurrea hartzen zuten kanpokoek. Etxeko jokalari beteranoek hartu zuten erantzukizuna, eta luzapena behartu. Luzapenean, Iñigoren hiruko bikain batek eman zien garaipena Xabi Igartuaren mutilei.



Beteranoen ekarpena garrantzitsua izan zen une erabakigarrietan. J.A.

**EMAKUMEZKOAK**

# Bareak-i irabazi eta 2. fasera bikain

**J.I.** > ESKORIATZA

Eskoriatzak 40 eta 28 irabazi zion egubakoitzean Beasaingo Bareak taldeari. Ligako lehen faseko azken partidua zen eta, honenbestez, porrot bakarrarekin lehenengo postuan amaitu dute debagoiendarrek. Honela, bigarren faseari bost garaipen eta porrot bakarrarekin ekingo diote. Bigarren fase honetatik aterako dira aurten Eskoriatzan izango den lauko finala jokatuko duten taldeak.

Egubakoitzekoari dagokionez, hirugarren laurdenera arte lehia parekatua izan zen. Baina orduan hartu zuten aldea etxekoek. Buruz-buruko defentsa gogorrean oinarritu zuten jokoa talde biek.

**ERRUGBIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Buelta dezenteko partidua azkenengo uneetan galdu zuten etxekoek

Amaiera aldera aurretik iritsi arren, bizkaitarren zigor kolpe batek zapuztu zuen arratsaldea. Jarrera ona erakutsi zuten arrasatearrek, baina huts gehiegi egin zituzten

KANPANZAR ART
**23-25**
DURANGO RT


Abiadura baino gehiago, jokalarien pisua eta sendotasuna izan zen erabakigarria zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL

**JULEN IRIONDO** > ARRASATE

Partidua hasi eta berehala egin zuen Durangok aurreneko entsegua. Dena den, berdinketa ere laster iritsi zen, eta atsedenaldia baino lehen, bigarren entsegu bat egitea ere lortu zuen Arrasatek. Atsedenaldian 12 eta 7 ari ziren irabazten etxekoak. Bigarren zatiaren hasieran, baina, beste bi entsegu egin zituzten kanpokoek. Hala ere, beste entsegu bati eta zigor kolpeei esker, azken uneetara 23 eta 22 irabazten iritsi zen etxeko taldea. Tamalez, bizkaitarren azken zigor kolpe batekin puntuek alde egin zuten Mojategiko zelaitik.

Defentsako lanerako, bi taldeetako jokalarien pisuan eta sendotasunean zegoen aldea agerian geratu zen; kanpokoen entsegu gehienak indarrez eginak izan ziren. Arrasatearrek jarrera ona erakutsi zuten, baina akats gehiegi egin zituzten. Lehen fasea Elorrion eta Gernikan jokatuz amaituko du Arrasatek.

> ESKIA

### Gaztetxoendako irteera antolatu du Bergarako Udalak

14 eta 18 urte arteko gazteendako eski irteera da Udalak antolatu duena. Otsailaren 20an izango da, Valdezcaray-ra (Errioxa). Zapatuan bertan, 07:00etan irtengo da autobusa Bergaratik, eta 17:00etan izango da itzulera ordua.

Izena egubakoitza –hilak 12– bitartean eman daiteke, kultura etxean (edo 943 77 91 60 telefono zenbakian). Materiala etxetik daramatenek 20 euro ordaindu beharko dute, gainerakoek 40.

> ESKIA

### Aukera ugari izango dira hileko azken bi asteburuetan

Otsailaren 20 eta 21eko asteburuan izango dira irteera gehienak. Arrasatetik Formigalera joango dira, eta Aretxabaletatik eta Eskoriatzatik Luz-Ardidenera. Besaidek mendi eski irteera ere antolatu du –Batallance-Piau Engaly-Gedre– asteburu bererako. Azkenik, Oñatitik eta Bergaratik Baqueirara joango dira otsaileko azken asteburuan. Izena ohiko leku eta orduetan eman behar da.

## Futbola

### 3. MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Real Sociedad B** | **50** | 25 |
| 2. **Amorebieta** | **49** | 25 |
| 3. **Cultural** | **41** | 25 |
| 4. **Gernika** | **41** | 25 |
| 5. **Portugalete** | **41** | 25 |
| 6. **Zamudio** | **40** | 25 |
| 7. **Beasain** | **39** | 25 |
| 8. **Elgoibar** | **38** | 25 |
| 9. **Basconia** | **37** | 25 |
| 10. **Amurrio** | **36** | 25 |
| 11. **Zalla** | **32** | 25 |
| 12. **Arenas Getxo** | **32** | 25 |
| 13. **Santurtzi** | **31** | 25 |
| 14. **Leioa** | **31** | 25 |
| 15. **Lagun Onak** | **30** | 25 |
| 16. **Eibar** | **28** | 25 |
| 17. **Aretxabaleta** | **27** | 25 |
| 18. **Laudio** | **25** | 25 |
| 19. **Retuerto Sport** | **22** | 25 |
| 20. **Salvatierra** | **9** | 25 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Arenas-Salvatierra | 3-0 |
| Eibar B-**Aretxabaleta** | 2-0 |
| Real Sociedad B-Leioa | 4-0 |
| Amorebieta-Retuerto | 6-0 |
| Santurtzi-Amurrio | 1-1 |
| Laudio-Portugalete | 0-2 |
| Zalla-Elgoibar | 0-0 |
| Gernika-Zamudio | 1-0 |
| Beasain-Basconia | 1-2 |
| Lagun Onak-Durango | 2-1 |

**Hurrengoak**

**Aretxabaleta-**Arenas

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Pasajes** | **44** | 20 |
| 2. **Zarautz** | **42** | 21 |
| 3. **Aurrera** | **41** | 21 |
| 4. **Tolosa** | **33** | 20 |
| 5. **Idiazabal** | **32** | 20 |
| 6. **Ordizia** | **31** | 21 |
| 7. **Berio** | **29** | 21 |
| 8. **Aloña Mendi** | **27** | 20 |
| 9. **Oiartzun** | **27** | 20 |
| 10. **Bergara** | **26** | 20 |
| 11. **Trintxerpe** | **25** | 20 |
| 12. **Mondra** | **25** | 20 |
| 13. **Hondarribia** | **24** | 21 |
| 14. **Hernani** | **23** | 20 |
| 15. **UPV-Vasconia** | **22** | 20 |
| 16. **Euskalduna** | **19** | 20 |
| 17. **Beti Gazte** | **18** | 20 |
| 18. **Real Union** | **17** | 21 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Aurrera-Euskalduna | 1-0 |
| Berio-Trintxerpe | 2-0 |
| **Aloña Mendi-**EHU Vasconia | 2-1 |
| **Bergara-**Idiazabal | 3-0 |
| Tolosa-Zarautz | 2-2 |
| Hondarribia-Ordizia | 1-0 |
| Pasajes-Hernai | 2-1 |
| Real Union-Oiartzun | 4-1 |
| Beti Gazte-**Mondra** | 2-0 |

**Hurrengoak**

Trintxerpe-**Aloña Mendi**
EHU Vasconia-**Bergara**
Oiartzun-**Mondra**

### BESTE KATEGORIAK

**GAZTEEN LIGA NAZIONALA**

| | |
|---|---|
| Aretxabaleta-Sestao | 1-2 |

**GAZTEEN EUSKAL LIGA**

| | |
|---|---|
| Amorebieta-Bergara | 3-0 |

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

| | |
|---|---|
| Ilintxa-Antzuola | 1-0 |
| Soraluze-Aretxabaleta B | 1-1 |

**LEHEN ERREGIONALA, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Mondra-Martutene | 7-0 |
| Lengokoak-Bergara | 2-1 |

**LEHEN ERREGIONALA, KOPA**

| | |
|---|---|
| Eibartarrak-UDA Arizmendi | 4-0 |

**GAZTEEN OHOREZKO MAILA, KOPA**

| | |
|---|---|
| Mondra-Lagun Onak | 1-0 |
| Sporting-Aloña Mendi | 0-1 |

**GAZTEEN LEHEN MAILA, IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Aretxabaleta B Arizmendi-Vasconia | 1-1 |

**GAZTEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Bergara B | Atsedena |
| Urola-Arizmendi | 2-3 |

**KADETEEN OHOREZKO MAILA, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Bergara-Aurrera | 5-6 |
| Aretxabaleta Arizmendi-Añorga | 2-2 |

**OHOREZKO KADETEAK KOPA ETA JAITSIERA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Tolosa | 2-3 |

**KADETEEN LEHENENGO MAILA, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Anaitasuna-Aloña Mendi | 6-0 |
| Real Union B-Arrasate | 1-2 |

**EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Mondra-Intxaurdi | 3-3 |
| Añorga B-Arizmendi | 2-0 |

## saskibaloia

### MAILAZ MAILA

**LEHENENGO MAILA**

| | |
|---|---|
| MU-Viajes Marfil | 91-84 |

**SENIOR AUTONOMIKOA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Santurtzi | 108-103 |

**SENIOR MUTILAK**

| | |
|---|---|
| Soraluce BKE-Beiztinberri | 48-78 |
| Soraluze BKE-Oiartzungo S. | 60-61 |

**SENIOR NESKAK**

| | |
|---|---|
| Eskoriatza-Bareak | 32-29 |

**GAZTE MUTILAK**

| | |
|---|---|
| MU B-Oiartzungo S. | 64-47 |
| Soraluce BKE-Andraitz | 39-55 |
| Aloña Mendi-BKL | 61-74 |

**GAZTE NESKAK**

| | |
|---|---|
| Eskoriatza-Premank BKL | 27-38 |

**KADETE MUTILAK**

| | |
|---|---|
| Soraluce BKE-Antigua | 83-60 |
| Aloña Mendi-Oiarso | 87-29 |

**KADETEAK NESKAK (PARTAIDETZA)**

| | |
|---|---|
| Andraitz A-Aloña Mendi | 68-38 |
| Andraitz B-Eskoriatza | 8-53 |
| Soraluze BKE-Goierri | --- |
| C. Atseden-Arizmendi Eskoriatza | --- |
| Eskoriatza-Aloña Mendi | 49-15 |
| Goierri-Arizmendi Eskoriatza | 75-30 |
| Soraluce BKE-Andraitz A | --- |

## eskubaloia

### MAILAZ MAILA

**EUSKADIKO TXAPELKETA, GIZONAK**

| | |
|---|---|
| Romo-Ford Mugarri | 29-24 |

**EUSKADIKO TXAP. EMAKUMEZKOAK**

| | |
|---|---|
| Zuazo-Verkol Aloña Mendi | --- |

**GIPUZKOAKO LEHEN TERRITORIALA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Soraluce BKE | 21-29 |

## errugbia

### MAILAZ MAILA

**SENIOR GIZONEZKOAK**

| | |
|---|---|
| Kanpanzar-Durango | 23-25 |


Harmailatik
Debagoieneko kirola GOITBn
Astelehenero 22:15ean.
Goitb Goiena Telebista
Ikustekoa!

**BERGARA**

# Eskubaloi jokalari eraginkorrak direla erakutsi zuten gaztetxoek

**GOL UHOLDEA** Pase eta gol festa izan ziren nagusi joan den zapatu goizean Labegaraietako kiroldegian

**TALDEAN JOKATUZ** Antolatzaileek arau bereziak jarri zituzten gaztetxoek taldean jokatzen ikas zezaten

**GUZTIEN PARTE-HARTZEA** Jokalarien arteko aldaketa etengabeekin, guztiek antzeko minutuak jokatu zituzten

**JOKIN BEREZIARTUA** > BERGARA

Eskubaloia izan zen protagonista zapatu goizean Labegaraietako kiroldegian. Oro har ez da gaztetxoen kirol gustukoena; hala ere, pasez pase eta golez gol eskubaloi jokalari eraginkorrak direla erakutsi zuten. Euritsu esnatu zen eguna eta, beraz, umeendako egun paregabea izan zen kiroldegi barruan jokatzeko. Haurrendako aukera paregabea, ez hainbeste euren seme-alabak ikustera joan ziren gurasoendako. Izan ere, guraso bat baino gehiago kexatu zen barruan egiten zuen hotzaz.

9:30ean hasi eta 12:30ak arte hainbat partida jokatu ziren, ohikoa denez kantxa handian hiru kantxa txiki eginez. Hamaika partidu eta beste hainbeste gol

**ARAUAK EGOKITU, GUZTIEN ALDE**

Antolatzaileek eskubaloiaren ohiko arauetan aldaketa batzuk egin zituzten gaztetxoek taldean jokatzen ikasi eta guztiek antzeko minutu kopurua joka zezaten. Hala, hiru pausu egin ostean baloia botatzera behartzeaz gain, baloia botarazi ostean pasatzera behartu zituzten gaztetxoak. Hortaz, guztien parte-hartzea bermatu zuten. Aldaketak berehala barneratu zituzten eta emaitza ezin hobea izan zen.

Horretaz gain, entrenatzaile bakoitza behartuta zegoen aldaketak egitera eta beraz, ez zen inor izerditu barik gelditu. Izan ere, horretarako da eskola kirola: lagunekin kirolaz gozatzeko, kirolaren baloreak barneratuz.



J.B.

**San Martin A.** Ezkerretik eskuinera: Aitorrek, Olatzek, Alexek, Danelek, Unaiek eta Angelek osatzen dute taldea.



J.B.

**Mariaren Lagundia A.** Asier, Julen, Oihane, Iker, Xabier, Lander, Iker, Mikel eta Oier dira taldeko jokalariak.



J.B.

**Mariaren Lagundia B.** Gaizkak, Julenek, Gonzalok, Aimarrek, Paulek, Markelek, Igorrek eta Norak osatu zuten taldea zapatuan.



J.B.

**Aranzadi 1.** Ezkerretik eskuinera, zapatuan agertu ziren taldekideak: Julen U., Julen M., Julen E., Jon, Ibon, Unax eta Imanol.

ZER DA ESKUBALOITIK GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUENA? ESKUBALOIAZ GAIN, ZEIN KIROL DUZUE GUSTUKOEN?



**Gaizka eta Igor**
Mariaren Lagundia

Biek ederto pasa zuten eskubaloian jokatzen. Gaizkari gehien gustatzen zaiona baloiarekin paseak egitea da eta Igorrek, berriz, nahiago du atezain moduan jokatu. Eskubaloiaz gain, futbola eta saskibaloia gustatzen zaie.



**Imanol eta Jon**
Aranzadi

Eskubaloia ez da euren kirol gustukoena, baina ederto ibili ziren Imanol eta Jon. Atezain edo jokalari, bietara gustura. Eskubaloiaz gain, futbola da gehien gustatzen zaien kirola, baina pilota eta saskibaloia ere gustuko dituzte.



**Iker eta Lander**
Mariaren Lagundia

Gustura ibili ziren Iker eta Lander. Eskubaloitik onena golak sartzea da biendako. Ikerrek ez zuen atezain moduan jokatu; Landerrek bai, eta gustura ibili zen. Bestalde, biei gehien gustatzen zaien kirola futbola da, "zalantza barik".



**Alazne, Maite eta Nerea**
San Martin

Taldeko neska bakarrak dira, baina oso ondo moldatzen dira mutilekin. Eskubaloia gustuko dute, eta taldekideen artean paseak egitea da kirol horretatik gehien gustatzen zaiena. Bestalde, saskibaloia hiruren kirol gustukoena da.



**Paul eta Markel**
Mariaren Lagundia

Gola sartzera botatzea gustuko dute Paul eta Markelek. Beraz, euren saltsan ibili ziren zapatuan. Eskubaloiaz aparte, saskibaloia da euren kirol gustukoena. Izan ere, saskibaloiak gero eta gaztetxo gehiago erakartzen ditu.

**Iban Letamendi eta Aitor Otxoa** > Euskadiko mendiko eskiko txapeldunordeak

# "Taldeka lehiatzeko, bikotekidea ondo ezagutzea ezinbestekoa da"



Iban Letamendi eta Aitor Otxoa, egubakoitzean, Oñatin.

XABIER URTZELAI

**XABIER URTZELAI** > OÑATI

**Bigarren urtez jarraian Iban Letamendi (Oñati, 1978) eta Aitor Otxoa (Oñati, 1972) Euskadiko txapeldunorde izan dira. Joan den asteburuan egin zuten lasterketa Frantziako Pirinioetan, eta egindako lanarekin oso gustura geratu diren arren, Otxoak onartu digu pena apur batekin itzuli dela, lehen sailkatuak "oso gertu" izan zituzten-eta.**

**Pozik Euskadiko txapelketan egindako lanarekin?**

Iban: Ni oso pozik geratu nintzen, lasterketara zalantza askorekin joan nintzelako. Aurten beste urte batzuetan baino gutxiago entrenatu naiz elurretan, eta hemen korrika eta bizikletan ibili banaiz ere, zalantzak nituen. Eta, nire harridurarako, uste baino hobeto ibili naiz. Pentsa, aldapa gora Aitor atzean uzten nuen. [Barre]

Aitor: Bai, pozik geratzeko moduko emaitza izan da, baina ni arantza txiki batekin itzuli naiz, Iban baino askoz ere gehiago entrenatu naizelako eta ez nuelako lasterketa oso ona egin. Irabazle geratu ziren Joseba Ormazabal eta Joseba Tobar gure aurretik izan dira beste batzuetan ere, baina oraingoan oso-oso gertu izan genituen, baina ezin harrapatu ibili nintzen, neurri handian, gorantz nahi baino okerrago ibili nintzelako. Ibanek, ostera, neurria eman zuen, eta zelan, gainera.

**Aurreikuspenak ez ziren bete, eta eguraldia aldeko izan zenuten bi eguneko proban.**

Iban: Bai, alde horretatik zorte galanta izan genuen. Izan ere, zapatu goizean ez zuen elurrik bota, eta zapatuko saioa amaitutakoan elurra hasi zen gogotik botatzen. Eta domekan oso eguraldi ona izan genuen. Baina elur mordoa bota zuenez, antolatzaileek ibilbidea aldatzea erabaki zuten, elur-jausi arriskurik ez izateko, eta bete-betean asmatu zuten. Alde horretatik, Federazioko ordezkariek sekulako lana egiten dute.

Aitor: Gainera, ordezko ibilbidea ere ederra izan zen, benetan. Pierra Mentako etapa bati hartu nion antza.

**Bikoteka egiten diren probetan, ondoko laguna ezagutzea ezinbestekoa izango da.**

Aitor: Bai, oso garrantzitsua da hori. Ibanek eta biok bizpahiru urte daramatzagu elkarrekin bikotea osatzen; lehen, nik haren anaia Arkaitzekin osatzen nuen taldea. Eta Ibanek beste bikotekide bat zuen, Fernando. Baina egia da kirol lotua dela eta bizitzan beste ardura batzuk ere izaten direla. Hala, gure lehengo bikoteek lasterketak alde batera uzteko erabakia hartu zutenean elkartu ginen gu.

**Esan, bada, zeuen kirol-bikotekidearen alde indartsuena, eta baita makalena ere.**

Aitor: Hasteko, esan behar da bikote perfektua ez dela existitzen eta lasterketa baten oso zaila dela biok sentsazio berekin egotea; eta hor, ondokoa zelan dagoen ere kontuan izan behar da. Iban aldapa gora *makina* hutsa da. Guk urtean zehar egindako lana metrotan neurtzen dugu. Nik dagoeneko 40.000 metro igo ditut eta Ibanek 10.000 egingo zituen, eta aldapa gora atzean uzten nau. Kontrara, aldapa behera ez da horren ondo moldatzen.

Iban: Eta Aitor, alderantziz. Kontua ez da aldapa gora txarto joaten dela, ondo igotzen duelako, baina aldapa behera ikustekoa da zelan joaten den...

**Geroago eta zale gehiago dituen kirola da. 300 bikotek hasi zenuten proba.**

Iban: Pasada hutsa da, baina orokorrean kirol guztietan dabil parte-hartzea igotzen: mendiko eski probetan, mendiko lasterketan...

HURRENGOA

**"Espainiako txapelketa Formigalen izango da, eta hor ere proba txukuna egin nahi dugu"**

ZALETASUNA

**"Geroago eta jende gehiago dabil, materiala lortzeko ere zailtasun handiak izaten dira"**

PROBAK

**"Ziklistendako Tourra moduan, eskiatzaile guztiok Pierra Menta proban egon nahi izaten dugu"**

Aitor: Pentsa, azken bi urteotan konturatzen nabil lasterketetako materiala lortzeko geroago eta zailtasun handiagoak ditudala. Geroago eta eskaera handiagoa dago, baina horretara dedikatzen diren etxeek beste lurralde batzuetara bideratzen dute materiala, Alpeetan denetik izaten da, baina hona ekartzeko...

**Euskadiko bikotekako txapelketa espresuki prestatzen duzue?**

Iban: Prestaketa lana irailean hasten dugu. Eta, normalean, prestaketa lanak ez dira proba bakarrari begira egiten. Oraingo asteburuan atseden hartuko dugu, eta otsailaren 14an Formigalen Espainiako txapelketa dugu, eta horra ere gogoz goaz. Ea lehenengo hamabosten artean sailkatzen garen. Ondoren Kataluniara joango gara bikotekako beste lasterketa batera, eta pena da, lan kontuengatik aurten Pierra Menta gabe geratuko naizelako.

Aitor: Berez, bikote moduan eman dugu izena, baina ez dakit hartuko gaituzten. Nik Pierra Menta eta Patrulla de los Glaciares probak egin nahi ditut, urteko proba ikusgarrienak direlako. Pierra Mentarako hartzen bagaituzte, bikotekidea topatu beharko dut eta Patrulla de los Glaciares probara *josebatarrekin* joango naiz.

**Ondo ezagutzen dituzuen lasterketak dira horiek.**

Aitor: Pena da, Ibanek ezin duelako oraingoan etorri. Aurten joaten banaiz, zortzigarren Pierra Menta izango da, eta akaso asko eskatzea da, baina hamar egin gura nituzke. Gogoan dut lehenengo urtean ze poztasun hartu nuen proba amaitzearren. Lau eguneko proba da, lasterketa teknikoa eta fisikoki oso gogorra; ziklistendako Tourra moduan, eskiatzaile guztiok nahi izaten dugu hor egon.

**Patrulla de los Glaciares egun bakarrean egiten da**

Aitor: Distantzia luzeko proba da, Zermatt eta Verbier herrien artean egiten dutena eta berezitasunetako bat da militarrek antolatzen dutela. Mendian eta gauez horrenbeste kilometro [55 kilometro] dituen lasterketa bat ondo antolatzeak sekulako zailtasuna du.

**ETXEKO LANAK** > AHOLKUAK

# Umeak eta nagusiak elkarlanean etxeko garbiketak egiten

Gurasoen laguntzak oso presente egon behar du etxeko lanak konpartitzerakoan, umeen motibazioa suspertu gura bada, behintzat

**ITXASO MANIAS** > ARRASATE
Erraza izaten da umeei esatea etxeko lanak egiten laguntzeko, etxea garbitzen laguntzeko. Esan bakarrik ez, gurasoek horretan lagundu ere egin behar dute, ordea. Gurasoen laguntzarekin suspertu ahal izango da umeen motibazioa; bestela, gurasoek nekez lortuko dute seme-alabek euren eskaerak betetzea.

**UMETATIK HASTEA ONENA**
Gurasoen estresak eta seme-alaben jarrerak talka egiten dute sarri eta horrek elkarren arteko giroa okertu egiten du. Modu horretan, zailagoa izaten da edozer esan edo egitea. Etxeko lanekin ere antzera gertatzen da: seme-alabek kasurik egiten ez badute, garrasika hasten dira guraso batzuk, etxeko lanak egiteko kolaborazio hori lortzeko. Garrasika, baina, gauza gutxi lortzen dira. Horretarako, beharrezkoa da etxean giro ona mantentzea.

Onena gaztetxotatik irakastea da. Urtebete dutenean, besteak beste, entretenimendua eta garbiketa ekintzak erlazionatzea oso garrantzitsua da, estimulu eta erantzun gisa. Pixoihala hartu eta zakarrontzira botatzen lagundu, adibidez. 5 urterekin, berriz, automobila garbitzea dibertigarria izan daitekeela ikas dezakete. Gurasoendako joko aspergarriak izan arren, eskertu egiten dute umeek helduak egiten hasten direnean.

Exigentzia mailarekin, hala ere, kontuz ibili behar da beti, gauzak ikasteko umeek denbora eta praktika behar izaten dituztela ahaztu gabe.



Bi gazte ohea egiten. CAPY 87

**ADINKA**

**2-3 URTEREKIN**
> Jostailuak jaso
> Ohea egiten lagundu
> Hautsa kentzen lagundu
> Sardexkak eta koilarak jarri

**4-5 URTE BITARTEAN**
> Oheak egin
> Mahaia jarri eta jaso
> Erosketa poltsak hustu

**6-8 URTE BITARTEAN**
> Logelak txukun mantendu
> Landareak edo loreak ureztatu
> Arropa garbia gorde
> Automobila garbitzen lagundu
> Arropak tolestu

**9-10 URTE BITARTEAN**
> Izarak aldatu
> Komuna garbitu
> Sukaldean lagundu
> Platerak garbitu
> Aspiradora pasatu
> Erratza pasatu

**11 URTETIK AURRERA**
> Leihoak garbitu
> Arropak garbigailuan sartu
> Bonbillak aldatu
> Armairuak eta lurra garbitu



Mamografia bat. ETB

**OSASUNA** > PREBENTZIOA

## Mamografiak egiteko adina jaistea eskatu dute

Bularreko minbizia da emakumeei gehien eragiten dien minbizia mota

**O.E.** > ARRASATE
EAEn bularreko minbizia antzemateko probak (*screener*-a) egiteko adina jaistea eskatu dute Bularreko Minbiziaren Bizkaiko Elkarteak eta Alderdi Popularrak. Oraingo 45 urtetatik 40 urtera jaisteko eskatu dute.

"Bularreko minbiziaren diagnostiko goiztiarra bularreko minbiziaren aurkako borrokaren alderik garrantzitsuena dela ulertu behar dute politikariek; horregatik, mamografiak egiteko adina 40 urtera jaisteko aldarrikapena egin dugu; minbizi txiki bat antzematea ez da handi bat antzematea bezala, bizi iraupena askoz txikiagoa da", Bularreko Minbiziaren Bizkaiko Elkarteko presidenteorde Kaika Gilen hitzetan.

Detektatzen diren bularreko minbiziko kasuen %30 gertatzen dira 40 eta 49 urte bitarteko emakumeen artean.

**AUTO-AZTERKETA**
Bularreko minbizia da emakumeei gehien eragiten dien minbizia. Gaitz horri aurre hartzeko, diagnostiko goiztiarra aipatu du Katxalin elkarteko Arrate Plazaolak.

Diagnostiko goiztiar horiek egiteko, asko laguntzen dute mamografiek. Jaurlaritzaren programak 49 eta 79 urte bitarteko emakumeen mamografiak jasotzen ditu, baina badira adina jaisteko eskariak ere. Autoazterketa ondo egitea ere garrantzitsua da gaitza antzemateko, eta gaztetatik hasiz gero horretan, hobeto.

**KOLABORAZIOA** > KONTU KONTARI

## Ipuinak kontatzearen balioa, beste modu baten izan arren

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE
Ipuinak kontatzeak duen balioa, garrantzia, defendatu gura izan du Irati Pagoagak bere azken artikuluan. "Gaur egun ipuinak ez dira ipuin soilak, liburu askok musika edo ikus-entzunezkoa ere izaten dute. Bestalde, kolore, forma eta material ezberdineko produktuak ikusi ahal dira edozein liburu-dendatan", dio Pagoagak, baina ipuina kontatzeko ohiturari eutsi gura dio hark.

"Ipuin kontaketak umearen sormena garatzen du, euren hizkuntza aberasten du, entzuten egoten ikasten dute eta kontalariak bere maitasuna ematen dio", jarraitu du.

**NORBERARENA BETI DA POLITA**
"Norberarena beti da polita eta edozein ipuin edo istorio kontatzera animatu gura ditut guztiak. Ipuinak ez ezik, aho-korapiloak, asmakizunak, esku-jolasak, lo egiteko kantuak... Material asko sortu da, eta, beraz, noizean behin hartu atseden eta ipuina kontatu, goxo-goxo", esan du Irati Pagoagak.

> GARRAIOAK

## Gasteizko autobus konpainia batek bikien edo hirukien ume-kotxeak sartzea onartu du

Gasteizko Tuvisa autobus konpainiak onartu egin du, azkenean, bikien ume-kotxeak autobusera sartzea. Bi baldintza jarri ditu, baina: autobusean tokia egotea ume-kotxe horiendako eta plataforma ohi baino beherago duten autobusetara igotzea. Hirukide elkarteak pozik hartu du erabakia, hilabete asko zeraman-eta eskaera hori egiten.

Garraio publikoetan ez ezik, bikiak edo hirukiak dituzten gurasoek lanak izaten dituzte hainbat tokitara sartzeko euren ume-kotxeekin; lur azpiko aparkalekuetako igogailuetara eta igogailu publikoetara, esaterako. Bi horiek estuegiak izaten dira, gehienetan, horrelako ume-kotxeak sartzeko.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com

# G2a

**Goienka2a** > KULTURA ETA AISIALDIA



**> RUPER ORDORIKA**
'Haizea Garizumakoa'-ren aurkezpenak arrakasta izan zuen Arrasaten **> 30**



**> INES GEREKA**
Oñatiarrak 'Zaborreriak' erakusketa jarri du Arrasaten, Kulturaten **> 30**



**> KLOWN**
'¿Se puede?' ikuskizuna aurkeztu zuten Zabalotegi aretoan **> 31**

**Ramon Arantzabal** > Artista

# "Bergara Gipuzkoako ikus-entzunezko arteen erdigunean kokatuko genuke"

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

**Argia, magia, kolorea eta garai makurren aurrean ilusioa ekarri gura du Bergarara Ramon Arantzabal artistak (Arrasate, 1950). Aurora boreala ekarri gura du sanjuanetarako Munibe plazara. Hori da bere ametsa eta uneotan esku zein pintzel artean darabilen proiektua, 6 urteko denboran erakusketarik egin barik egon eta gero. San Martin plazan duen estudioan izan ginen proiektuaren bitxitasunak erakarrita. Estudioko horma zuriak jada prest dauzkan koadroen koloreen bizitasunak irentsita aurkitu genituen.**



Arantzabal performance-an erabiliko duen margoetako bati ukituak ematen. JOSETXO ARANTZABAL

**Itxura denez, isilpeko lanean, estudioan giltzapetuta moduan egon zara azken urteotan. Zerbait berezia duzu, baina dagoeneko eskuen artean.**

Ebento kultural bat egin gura dut nire koadroekin, musikarekin, argiztapen ikusgarriarekin eta dantzarekin. *Gau magikoak Munibeko plazan* izena dauka eta, nolabait, nahiko nuke krisi denbora ilun hauetan jendeak ikus dezala jarduera kulturala ez dela hil krisiarekin, gainetik dagoela. Itxaropena, baikortasuna, nahiko nuke zabaldu.

**Eta zergatik Bergara eta zehazki Muniben?**

Lan egiten dudan estudioa bertan daukat nik eta egunero igarotzen naiz plazatik. Nolabait inspiratu egin nau. Leku paregabea iruditzen zait XV. eta XVIII. mendeko eraikinekin; inguratu egiten zaitu. Nik proposatzen dudan instalazio artistikoa ikuskizun bat litzateke; arkitektura bera, herria, musika eta dantza bat egiten dituen proposamena. Gainera, Bergarak berak badu potentzial bat. Ikaragarria da hemen musikaren inguruan dagoen mugimendua. Zer esanik ez pinturan. Gipuzkoa osoan horrelakorik ez dago. Simon Arrietaren garaietatik belaunaldi bat baino gehiago egon dira lehen mailako margolariekin. *Performance* horrek zelanbait hori guztia bildu eta borobilduko luke, horri ere omen eginez. Gipuzkoa mailan oso gutxi egin da horrelakorik eta uste dugu inplikazio eta bultzadarekin Bergara Gipuzkoako ikus-entzunezko arteen erdigunean kokatuko genukeela. Munibek asko inspiratzen nau ni, harribitxia iruditzen zait.

**Eta guztia ukitu mitologiko eskandinaviar batekin.**

Sibelius musikari finlandiarraren *Tuonela* obran oinarritzen da. Zisnea, Lamia eta Heriotza dira kontakizuneko elementuak eta aurora borealaren edertasuna, noski. Ikus-entzunekoez gain, dantza ere protagonista izango da. Osintxuko Musiraka dantza taldea dagoeneko koreografia prestatzen dabil Edu Muruamendiarazen gidaritzapean. Ordu erdiko ikuskizun ederra da. Anbizio handiko proiektua da; paregabea. San Juan egunean egingo litzateke gainera, udako solstizioan, horrek dakarren magia guztiarekin.

**Hala ere, oraindik badago gainditu beharreko oztopoa: finantzazioa.**

Guk gauzak nahiko aurreratuta dauzkagu, baina ez dugu murrizketa handiegirik egin gura, ikuskizun kulturala merkatuko da bestela. Babes ekonomikoa falta zaigu eta dagoeneko jarri naiz harremanetan erakunde eta instituzioekin. Benetan pena merezi duen proiektua da eta datozen asteetan finantzazio horren bila jardungo dut. Proiektu polita dela transmititu gurako nuke.

Baikor naiz, nahiz eta jakin badakigun garai estuak direla, baina agian horregatik, kontraesana eman arren, garrantzitsua da itxaropenerako dei hori ere zabaltzea.

**Zure margoak, baina, ardatz izango dira, ez?**

Orain dela lau urtekoak dira hasierako pinturak eta dagoeneko urte eta erdiko lana egina dut. Kolore bizia duten margo oso indartsuak dira, aurora borealaren inguruan. Artea ez dago zertan beti erakustokien mende egon koadroak ezagutzera emateko. Ikuskizun honekin, gainera, ikusleak eurak partaide egiten dira; eta, gainera, koadro horiek Muniben bertan ikusiko lirateke; espazio hori irabaziko litzateke. Erakusteko beste modu bat da.

> **"Aurora borealean oinarritzen da lana. 'Gau magikoak Muniben' dauka izena"**

> **"Bergarak berak potentziala du. Pintura eta musika mugimendu ikaragarria dago"**

> **"Krisi denbora ilun hauetan jendeak ikusi dezala jarduera kulturala ez dela hil"**

> **"Benetan merezi duen proiektua da, baina finantziazioa behar du merketu ez dadin"**



Ezkerretik eskumara, Arkaitz Miner, Lutxo Neira, Ruper Ordorika eta Asier Oleaga; ikaragarriak laurak. JOSETXO ARANTZABAL

**MUSIKA** > RUPER ORDORIKA

# Puntuan landutako kantuak

**NON:** Arrasateko Amaia antzokian.
**EGUNA:** Zapatua, otsailak 6.
**ZENBAT JENDE:** 300 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta 40 minutu.

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Arrasatekoa izan da *Haizea Garizumakoa*-ren aurkezpen ofiziala ibarrean; aurretik Leintz Gatzagan biraren hasierako kontzertua egin zuen arren.

Eszenaratze zaindua izan zen, Javi Ullak prestatutako *atrezzo* xume bezain eraginkorrarekin eta, jakina, dagokion argiztapen dotorearekin.

**DISKO BERRIAN SAKONDU ZUEN**

Sarrionandiarekin gogoratuz, *Martin Larralde*-rekin, hasi zuen emanaldia eta kolpe batez entzule guztiak poltsikoratu zituen. Horren ostean, baina, disko berrian sakondu zuen, nahiz eta tartean salbuespen batzuk egin: kutsu malenkoniatsua daukan *Zorioneko moila* gitarreroa; oso melodikoa den eta lelo itsaskorra daukan *Jakin nahi nuke*; mandolinarekin eta ia akustikoan landutako *Zuhaitz alferra* antidesarrollista; aspaldiko *Nor da gogoan daukazuna*, 90eko poprockaren oinarriak jarri zituen kantu borobil eta distiratsua, hain zuzen; *Goiz berri bat* pausatua; eta *Belauneko*.

Azken horrekin, eskaleak gogora hartzen dituen *Belauneko*-rekin, intentsitate ikaragarria lortu zuten. Garapen handia izan zuen kantuak, biolinarekin hasita iluntasun eta indar puntu goren batera heldu arte.

**BAKARRIK ERE ARITU ZEN**

Ekaitz horren ostean, taldekideek atseden laburra hartu zuten eta Ruperrek bakarrik *Lasai joan* pieza xuxurlatu zigun belarrira.

Taldea bueltan agertokira, eta *Egunkaria*-ri elkartasuna erakutsiz, *Zaindu maite duzun hori* altxorra interpretatu zuten biolin eta guzti, folk pieza ia klasiko bilakatuz. Bati baino gehiagori oilo-ipurdia jarri zitzaion.

Bukatu aurreko lasterketan oraindik bestelako piezak eskaini zizkiguten: kantu zaharren sonoritatea daukan *Ahanzturak*, gitarra rockero eta ia blueseroekin jantzitako *Haizea Garizumakoa* eta oñatiarraren kantutegian dagoeneko kuttuna bihurtu den *Hiriak* ere, azken hori, mandolinaren laguntzaz, country zein hill billy ukituarekin.

*Olabideko borda* pieza berrian intentsitatearekin eta gitarra punteatzeekin jokatu zuten eta agurra heldu zen.

**BISAK EGITERA 'DERRIGORTUTA'**

Ordurako ordu eta erdi pasatxoko emanaldia egin zuten arren, entzuleak pozarren zeuden eta txalo etengabeak eginez, taldea itzuli egin behar izan zen.

*Sekulabelardiko kanta* Laboaren omenez, eta bukatzeko *Ene begiek* pieza rockero borobila; jende guztia kantuan eta bukaera ezinhobea.

Talde izugarria dauka Ruperrek: Arkaitz Miner gitarra, mandolina eta biolin jotzaile ikaragarria; erritmoa, giroak eta nahi duena sortzen duen Asier Oleaga bateria jotzailea eta Lutxo Neira erlojuen pareko baxu jotzailea. Ñabarduraz jositako kantuak dira, eta zuzenean eraldatu egiten dituzte folkerantz, rockerantz edo intentsitatea gehituta.

**Ines Gereka** > Sortzailea

# "Zabor gehiegi sortzen dugu eta horiekin gauza asko egin daitezke"

**I.B.** > ARRASATE

**Otsailaren 28ra arte egongo da *Zaborreriak (Cachivaches)* erakusketa koloretsua ikusgai Arrasateko Kulturateko klaustroan. Egileak Ines Gereka eta Amaia Zinkunegi dira. Gereka Zubietan harrapatu dugu, Aratusteak ospatu berri.**

**Oraindik txantxikua zara edo dagoeneko galdu dituzu sustraiak?**

(Barre) Txantxikuen herritik ijituen herrira aldatu nintzen, hala deitzen diote Zubietari. 25 urte daramat kanpoan, baina oraindik Oñatiko hizkera daukat eta joaten naiz tarteka.

**Irakasle, hezitzaile, artista... Zer zaitugu?**

(Barre). Biologia ikasi nuen, baina beti margotu egin dut, artelanak... Eta irakaslea izan naiz.

**Noiz jaio zen Birbira?**

Birbira Amaia Zinkunegik eta biok osatzen dugu. Zinkunegik Arte Ederrak eginda dauka eta biok irakasle izandakoak gara. Orain dela sei bat urte pentsatu genuen zabor gehiegi sortzen dugula eta botatzen dugun horrekin gauza asko egin daitezkeela; eta lanean jarri ginen. Birziklatze tailerrak egiten ditugu, eta orain dela hiru urte *Zaborreria (cachivaches)* erakusketa sortu genuen; eta umeei eta nagusiei zaborrarekin zer egin daitekeen erakusten dihardugu.

**Zein da erakusketaren helburu nagusia?**

Sortzen dugun zabor kopuruaz kontzientziatzea eta erakustea irudimenarekin ia edozer egin daitekeela. Eta, bide batez, barrea ere sortaraztea.

**Erakusketa koloretsuan denetariko materialak erabili dituzue...**

Bai. Mundua sarritan ikusten da beltz eta kolorea sartu behar da. Kartoia, papera, tetrabrika, txapak, plastikoa... denetatik erabiltzen dugu. Oso erraza da.

**"Helburua da zabor kopuruaz kontzientziatu eta barrea sortarazi"**

**"Zubietako inauterietara ez etorri printzesa jantzita, trapu zaharrak ibiltzen ditugu hemen"**



Ines Gereka Zubietan berak egindako txapel bat jantzita. GOIENKARIA

**ANTZERKIA** > '¿SE PUEDE?' KLOWN IKUSKIZUNA

# Irudimenaren bizia hilerrian

**NON:** Bergarako Zabalotegi aretoan
**EGUNA:** Zapatua, otsailak 6.
**ZENBAT JENDE:** 40 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu bete inguru.

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

Klown baten txorakeriak hilerrian kokatzen ditu Mama Crea antzerki taldearen lehen ikuskizunak. Hiru kidek osatzen duten konpainiaren debuta da gainera. Antzezle bakarra, Ana i punto, eta hilarriz osatutako eszenografia soila, ikus-entzunezko proiekzioek eta argiztapen eraginkorrak lagunduta. Umorea hilerrian bai, baina umore beltzik ez –kokapenak berak ia nahitaez hori eskatzen badu ere. Umore zuri-zuria, orbainik uzten ez duena, eta aktore bakarraren imintzio nabarmena eta objektuekin egindako jolasetan oinarritzen dena. Heriotza eta bizitza, eta guztien erdian umorea eta jolasa. Agian mezua horixe da; horixe da klowna bera.

Hildako senarrari bisitan doakion alargunaren istorioa da ardatza. Bertan, hilerrian, ematen ditu egun batzuk eta leku mortuari bere barne munduko bizia ematen dio klown-alargunak. Horixe da *¿Se puede?* lanak agertokiratzen duen jolasa. Alargunak ezin dio senarraren galerari aurre egin eta bizitza berriari hilerrian ekiten dio, hildako bikotearen hilarrian bertan etxe berria eginez..

Olgetarako prest egonez gero, ba, aurrera.

Klown antzerkia dela entzun eta muturra okertuz gero, hobe antzokiko atarian geratu izana. Ostera, gonbidapena onartu eta aurrera eginez gero, irudimenak bizitzaz bete zueneko hilerri baten istorio polita aurkituko zuten ikusleek; beharbada, haurren begirada kuxkuxero eta garbiarekin ikusi behar den ipuin bat, nagusien begirada hotz eta analitiko barik.

**GALDETU BARIK, BARRURA**

Halaxe hasten da, hain zuzen, Ana i punto, ikusleen artetik eszenara igota eta itxuraz dauden elementu urriei –hiru hilarri, bere txoritxoa eta poltsan dakartzan objektuei– zuku guztia ateratа. Esku onekoa eta iaioa da Ana i punto objektuen manipulazio eta jolasean, eta horixe izan daiteke ikuskizunaren erpin aipagarrietako bat. Ezin bestela, irudimenaren ahaleginarekin aurrera ateratako lana da entretenimendu soil eta dibertsiora bideratua. Umore zuria, esan moduan, garbia eta edonoren atseginekoa izan daiteke. Ala ez.

**GENERO EZ HAIN ERRAZA**

Dibertigarria eta erraz entretenitzekoa bada ere, klown umorea ez dago publiko guztientzat egina, kontrakoa eman arren. Ana i puntoren keinu teatroa ziurrenik landu eta sakona da, baina klowna gustuko duzu edo aspergurak hil zaitzake. Protagonistari ezin zaio uka haren keinu, jolas eta txorakeriekin ordu beteko ikuskizunari eusten diola, klownak berak eman dezaken guztiaren erakusgarri; baina generoko lan bat da eta sudurgorrien ez oso zaletuek txaloekin baino aho-zabalka har dezakete jolasa. Ez zen, halere, Zabalotegiko kasua hori izan eta ederto barre egin zuenik ere egon zen. Amaierako txaloei entzunda, gainera, gustura egon ziren hilerri bizidunean bertaratutakoak. Jolaserako gonbita onartu eta ondo pasatu zutenaren seinale. Bakan batzuk, hori bai, hurrengo baten birritan pentsatuko dute kartelean sudur gorri bat edo klown hitza ikusiz gero.



Ana i punto eta antzezlanean lagun duen txoritxoa. I.A.



# Ongi etorri Goiena Klubera




Goiena Komunikazio Zerbitzuak Goiena Kluba aurkezten dizu.
Orain arte **Asteleheneko Goienkaria**-ren harpidedun izan zaretenok Goiena Klubeko bazkide izango zarete aurrerantzean.

## Nola egin klubeko bazkide

Urteko kuota: **45 euro**
Telefonoa: **943 25 05 05**
Posta-e: **kluba@goiena.com**

Goiena kluba

## Onura bikoitza txartel bakarrean




### 1. Goiena Kluba

Bazkide-txartel personalizatua jasoko duzu etxean.
Bazkide-txartelarekin abantaila eta onura esklusiboetan parte-hartzeko aukera izango duzu.
Askotariko ekitaldi eta zerbitzuetan bazkide-txartela erakutsi, onurak aprobetxatu, eta gozatzera!

### 2. Topakide

**Bazkide-txartelaren beste aurpegia**
Euskara elkarteek antolatzen dituzten kultura ekitaldietako batzuk Topaguneko agendan sartuko dira, eta ekitaldi horietara joaten diren bazkideak txartela erakutsi eta doan edo prezio berezian sartuko dira.

## Goiena Klubeko bazkideen abantailak

Asko dira Goiena Klubak eskaintzen dituen abantailak.

- **Goienkaria** astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia:
  DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak…

**eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat**

## Deskontu bereziak

Goiena Klubeko txartela aurkeztu, eta ondorengo enpresetan deskontu eta abantailak izango dituzu.

**BARCELÓ BIDAIAK**
BERGARA/ARRASATE
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

**LILURA** EDERTZE INSTITUTUA
BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

**NAREN** FISIOTERAPIA ZENTROA
ARETXABALETA
- **-%15** zerbitzu guztietan.

**IKER** SUKALDEAK
ARRASATE/OÑATI
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

**LARRAÑAGA** AUTOESKOLA
BERGARA
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE** (MECA)
ARRASATE
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

**MONDRAGON LINGUA**
ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.
  Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

**AUTOBERRI**
ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa **20 euro**.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

**CLINICA DENTAL BERGARA**
BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

**ZIENTZIEN KUTXAGUNEA**
DONOSTIA
- Bi erosi eta bat ordaindu

**AQUARIUM**
DONOSTIA
- Bi erosi eta bat ordaindu

**TXURI-URDIN** IZOTZ JAUREGIA
DONOSTIA
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu**

ASTE BUKAERA...

## Inaxio Garrorekin



Aste bukaeretan korrika saioa egitea atsegin du Inaxio Garrok; batzuetan bakarrik eta beste batzuetan lagunekin. JOSETXO ARANTZABAL

# "Orain ez naiz maratoietan ibiltzen, baina korrika egitea gustatzen zait"

Inaxio Garro Aretxabaletako alkatea da eta herritarrekin duen hartu-emana gustatzen zaio gehienbat

Sukaldari lanak egitea, kirola eta familiarekin egotea atsegin du; aldika, eskiatzera joaten da

**MIREIA BIKUÑA** > ARETXABALETA
Inaxio Garro (Aretxabaleta, 1963) Aretxabaletako alkatea da azken agintaldian. 08:00etan heltzen da udaletxera, eta 20:00ak arte egoten da. "Ordu asko dira, baina alkate izateak duen gauzetako bat da", dio Garrok.

Udaletxean ematen dituen orduetan askotariko lanak egiten ditu. Alde batetik udaletxe barruko lanak. "Aretxabaletako udalbatza modu berezian osatu genuen, eta Aralarrek gutxiengoan agintzen du. Hortaz, batzorde asko nire ardurapean daude; hain zuzen ere, Hirigintza, Euskara, Kultura, Gazteria, eta Komunikazioa eta Informazioa. Gainera, ez daukat idazkari pertsonalik eta horrek buruhauste asko sortzen dizkit", esan digu.

Beste alde batetik, udaletxetik kanporako lanak egiten ditu. "Udaletik kanporako beste hainbat erakunde eta enpresatan ordezkaritza dugu eta bileretan parte hartzen dut. Lan guztia egiteko ordu gehiago beharko nituzke!".

**EMAZTEA ETA BI ALABA**
Baina, Garroren ustez, alkate izateak duen lanik aberasgarriena herritarrekin duen hartu-emana da. "Oso aberasgarria da herritarrekin hartu-eman zuzena edukitzea. Aldika biltzen naiz eurekin, dituzten arazoak eta esku artean dituzten eskaerak entzuteko. Ahal dugun neurrian, noski, irtenbidea ematen ahalegintzen gara", dio.

Udaletxeko lanak bukatuta, familiarekin egoteko ordua da. Emaztea eta 15 eta 13 urteko bi alaba ditu. "Egun osoa elkar ikusi barik egon ondoren, gauean elkartzen gara afaltzeko orduan. Euren kontuak entzun, etxeko lanak egiten lagundu, afaria egin... Lasaitzeko momentua da".

Aste bukaeran alkate moduan lanik ez duenean, beste hainbat gauza egitea gustatzen zaio; baina bereziki kirola maite duela esan digu. "Kirola egiten dut eta kirola ikusten dut. Korrika egitea asko gustatzen zait, eta aldika proba batzuetan parte hartzen dut. San Silbestre egunean Oñatiko proba korritu nuen anaiarekin". Dena den, esan digu orain lehen baino askoz gutxiago entrenatzen dela. "2005ean eta 2006an Donostiako maratoiak egin nituen, baina orain ez daukat denborarik 42 kilometroko proba bat prestatzeko".

**ESKIATZERA**
Alaben kirol hitzorduen arabera antolatzen du aste bukaera –atletismoan eta saskibaloian dihardute–, baina UDAk etxean jokatzen duenean Ibarrara joateko denbora izaten du.

Orain dela hiru aste bukaera eskiatzen egon zirela esan digu: "Alabei elurra gustatzen zaie, eta urtean zehar pare bat aldiz joaten gara. Ez naiz zale amorratua, baina gustura ibiltzen naiz. 40 urterekin ikasi nuen eskiatzen!".

Oraingoz, Aste Santurako planik egin ez dutela esan digu, eta mendia hondartza baino gehiago gustatzen zaiola: "Itsasoa atsegin dut, baina hondartzetako masifikazioa ez... Tamalez, alabek hondartza gustuko dute. Hortaz, ondo pentsatu beharko dugu".

### "Sukaldean ibiltzea atsegin dut: entsalada eta barazki-menestra goxoak egiten ditut"

Amantala jantzita sukaldean ibiltzea gustatzen zaio Inaxio Garrori. Sukaldari trebea dela esan digu: "Astegunetan bakarrik bazkaltzen dut, eta nik prestatutakoa jaten dut. Aste bukaeran etxeko guztiondako egiten dut bazkaria. Gustura jaten dute nik egindakoa; hortaz, plater goxoak egiten ditudala esango nuke". Denetarik prestatzen du, eta "dena goxoa", baina esan digu bereziki onak egiten dituela entsaladak eta barazki-menestra. Era berean, esan digu koadrilakoekin elkartean bazkaltzen edo afaltzen dutenean ere egiten dituela sukaldari lanak.

Sukaldari trebea den arren, astean behin gurasoen etxera bazkaltzera joaten dela esan digu: "Amak egindako jakiak oso goxoak daude. Astean behin bisitatxoa egiten diet". Gaineratu digu egubakoitzetan, 18 urtean Euskadiko Kutxan izandako lankideekin bazkaltzera joaten dela: "Kontu kontari ibiltzen gara. Aste bukaera hasteko modu onena izaten da".

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan 90 metro koadroko etxea salgai edo errentan: 3 logela, 2 bainugela, 2 balkoi, sukaldea, egongela eta despentsa. Igogailua eta garaje itxiarekin. Jantzita. 687 11 07 21 edo 617 00 37 30

**Arrasate.** San Andres auzoan 58 metro koadroko etxea salgai edo errentan. Bi logela, bainugela bat, balkoi bat, sukaldea, egongela eta trastelekua. Deitu 635 73 94 91 telefonora.

**Azkoitia.** Pisua salgai Azkoitian, 2 logela, egongela, sukaldea, komuna, berogailua, aluminiozko leiho berriak, ganbara erraldoia. Dena berritua eta altzariekin saltzen dut. Pisua oso ondo dago, merezi du. Deitu 665 73 51 11 telefonora.

**Etxarri Aranatz.** Familiabakarra salgai Etxarri Aranazko Kalamurtxei kaleko 20. zenbakian. Praktikan berria eta jantzitakoa. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Bi balkoietatik mendia ikusten da. Autoa sartzeko bajera eta lorategia. Prezioa adosteko. Deitu 645 73 50 59 telefonora (Maite).

**Irurtzun.** Eraberritutako pisua salgai Irurtzunen. 3 logela, 2 balkoi, sukaldea jantzia. Prezioa 150.000 euro. Deitu 699 02 03 63 telefonora.

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. Bi logela, sukaldea, komuna, egongela eta trastelekua argi patioan. Igogailuarekin. Deitu 652 70 12 49 zenbakira

**Oñati.** Eraikuntza berriko etxea salgai Kalebarrian. Prezio oso interesgarria. Deitu 652 75 60 52 telefono zenbakira.

### 102. EROSI

**Antzuola.** Trukean Lanan (Na) ditugun etxea (150 m) eta baratzea eskaintzen dira. 3 logela, egongela,sukaldea, komuna, ganbara eta ukuiluak. Beheko sua du. Gasteiztik 45 minutura eta Lizarratik oso gertu. Aproposa asteburuetarako eta oporraldietarako. Trukea zehazteko orduan aukera guztiak zabalik (garai baterako, betiko...) Deitu 699 24 86 99 zenbakira

### 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Barrenkalen. Guztiz berritua. Bi logela. Altzariekin. 629 38 29 96

**Hendaia.** Hendaian gelak ematen ditut errentan. Egonaldi luzeetarako, oporretarako edo asteburuetarako. Interesa baduzu helbide honetara idatzi: *davidlorea@aol.com* edo telefonoz deitu: 688 68 11 40

**Oñati.** Etxea saldu edo errentan ematen da. Hiru logela, komun bat, sukaldea eta egongela. Garajea aukeran. Guztiz berriztatua. Deitu 665 72 87 89 edo 657 72 25 70 telefono zenbakietara.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 4 pertsonarentzat. 618 14 71 34

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 609 38 86 47

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 671 33 75 54

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 943 76 32 85

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 657 08 96 69

**Debagoiena.** Bergara edo Arrasaten etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu 639 94 48 65 edo 615 57 81 54 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Bikote batek logela bakarreko etxebizitza hartuko luke errentan. 655 74 41 60

**Donostia.** Donostian etxe bila errentan hartzeko, denbora luzerako. 661 33 85 87

**Donostia.** Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan, Donostiko auzo hauetan: Igara, Berio, Lorea, Martutene.... Eskaintzarik baduzue, deitu telefono honetara: 686 65 97 20 Nerea. Eskerrik asko.

**Gipuzkoa.** Etxea edo baserria alokagai hartuko nuke Gipuzkoan. Ahal bada Donostialdetik gertu. Deitu 605 73 63 71 telefono zenbakira.

**Iruñea.** Bikote batek pisua errentan hartuko luke Iruñean. Gutxienez bi gela dituena, eta argitsua. Idatzi mezu bat: *marutegi@yahoo.com.*

**Oñati.** Bikote batek etxea hartuko luke erretan Oñatin, 3 gela eta igogaluarekin. Deitu 665 75 59 13 telefonora.

### 105. ETXEAK OSATU

**Altsasu.** Pisu konpartitu batean logela eskaintzen da, egongela, sukalde eta komun handiko etxean, Altsasun, herri erdian. Animatu eta deitu 608 57 97 70 telefonora.

**Altsasu.** Logela alokatzen da Altsasun, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Deitu 606 00 23 40 telefonora.

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu alokagai. 630 71 35 83

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu otsailetik aurrera. Berogailua eta igogailua. Egoera onean. 250 euro hilean. Deitu 606 74 42 37 zenbakira.

**Arrasate.** Mutil arduratsua logela bila. Lan finkoa daukat. Deitu 647 28 82 41 zenbakira

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona behar da. Egongela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fiarekin. Unibertsitatetik gertu. 608 57 97 70 edo 665 71 69 10

**Arrasate.** Eskola Politeknikoko 3 Erasmus ikasle gara eta pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 4 banakako logela, sukaldea, komuna, terraza handia. Unibertsitate aurrean. 200 euro + 30 euro (gastuak) hilean. Internetarekin 12 euro gehiago. Otsailetik uztailera. Interesatuok idatzi helbide honetara: *septunova.zuza@centrum.cz*, edo deitu telefono hauetara. Emilia edo Chiara. 638 15 76 98 edo 638 15 77 00

**Bergara.** Bi logelako apartamentu berriztuan, logela bat errentan ematen da. 250 euro. 626 86 67 36

**Donostia.** Amara auzoan gela bat alokatzen da neska batentzat pisu konpartitu batean. Berdin ikasle edo langile. Telefonoa: 943 65 16 92, hartu ezean mezua utzi

**Errenteria-Orereta.** Galtzaborda auzoan pisua konpartitzeko pisukide bila nabil. Interesa dutenek deitu telefono zenbaki honetara: 943 52 08 07

**Etxarri Aranatz.** Logela bat alokatzen dut Etxarri Aranazen. Deitu 655 74 79 19 telefonora.

**Iruñea.** Iruñeko Aralar kalean pisua osatzeko langile baten bila gabiltza. 220 euro + gastuak. Telefonoa: 660 97 01 12 .

**Oñati.** Logela hartuko nuke errentan partekatutako etxeren batean. Deitu mesedez telefono zenbakira honetara: 635 70 07 92

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garaje itxia salgai Usaetxe plazan. 686 02 56 56.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje irekia ematen da errentan Aldaigainen. 14:00etatik aurrera deitu. Deitu 680 84 09 45 telefonora.

**Etxarri Aranatz.** Garaje partzela bat alokatzen da Etxarri Aranatzen. Deitu 652 26 28 18 telefonora.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garaje bat errentan hartuko nuke Bolu auzoan. deitu 658 73 35 96 zenbakira.

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan San Lorentzon. Deitu 665 73 51 59 telefonora.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Bulegorako egokitutako 90 metro koadro inguruko lokala eta 100 metro koadro inguruko lokal industriala, errentan edo salgai. Atsegina eta bista ezin hobeak. Deitu 943 76 33 56 telefonora.

**Bilbo.** Bulego bi, 30 eta 40 metro koadrokoak, alokatzen ditut Bilbon. Telefonoa. 639 66 36 89.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 656 77 46 60

**Bergara.** Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar dugu. 943 76 53 55.

### 402. ESKAERAK

Arrasate. Arrasateko neska gazte euskalduna arratsaldeetan umeak zaintzeko, etxeak edota atariak garbitzeko prest. Esperientzia handikoa. 618 41 24 79.

**Arrasate.** Emakume serio eta arduratsua gertu orduka garbiketak egiteko edo jatetxeetan plantxan zein sukalde laguntzaile jarduteko. 647 16 40 49

**Arrasate.** Hemengo neska umeak zaintzeko,etxeko lanak egiteko edo edozein lanerako prest,orduka ere bai. Deitu 659 55 27 16 telefonora.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu 15:00etatik aurrera garbitasun zein plantxa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko. 699 54 17 27.

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 606 42 64 14

**Bergara.** Neska gertu etxeko lanak egiteko. 660 57 33 92

**Bergara.** Garbiketa eta pertsona edadetuen zainketa lanak egiteko gertu nago, 13:00etatik aurrera. 691 03 25 02

**Bergara.** Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar dugu. 943 76 53 55

**Bergara.** Emakume euskalduna gertu umeak edo pertsona nagusiak arratsaldez zaintzeko. Itziar: 695 78 22 47 edo 943 76 17 17.

**Bergara.** Garbiketarako, pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko eta tabernari moduan lan egiteko gertu egongo nintzateke 637 28 58 52

**Bergara.** Garbiketarako, pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko eta tabernari moduan lan egiteko gertu egongo nintzateke. 671 71 90 03

**Bergara.** Bergarako emakume arduratsua gertu garbiketa lanak egiteko. 690 05 79 07

**Bergara.** Pertsona nagusiak zaintzen, garbitasunean edo tabernan egingo nuke lan. 637 28 58 52

**Bergara.** Pertsona nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko emakumea gertu. 691 03 25 02

**Bergara.** Pertsonak zaintzen, garbitasunean edo tabernan egingo nuke lan. 671 71 90 03

**Bergara.** Garbiketarako eta pertsona edadetuen zaintza lanetarako gertu egongo nintzateke. Orduka egingo nuke, eta etxe barruan lan egiteko ez dut arazorik. 686 76 22 96

**Bergara.** Bikotea gertu edozein lan egiteko. Deitu 645 72 92 87 zenbakira.

**Bergara.** Larunbatetan eta domeketan egunkariak banatzen egingo nuke lan. Deitu 654 98 69 14 telefonora

**Bilbo.** Sukaldaritzako ikaslea, janari manipulatzaile karnetarekin, prest nago sukalde laguntzaile, pintxoak egiteko, zerbitzari edota tabernari lanak egiteko. Asteburuetan libre nago. 625 11 20 71

**Debagoiena.** 45 urteko emakume euskalduna gertu nagusi edo umeak zaintzeko, goizez, 13:00ak arte. Autoa daukat. Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. Deitu 943 79 54 21 edo 619 42 75 21 zenbakietara.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luisa de los Santos. 671 27 78 36

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edo ume zein nagusiak zainduko nituzke. 637 12 15 18

**Debagoiena.** Garbiketa lanak, sukalde laguntzaile edo etxeko lanak egingo nituzke. Deitu 630 20 12 03 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil esperientziaduna nagusiak zaintzeko edo garbiketak egiteko prest. Etxean bizi izaten edo orduka. Baserrietara joateko arazo barik. 648 06 84 71

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna gertu nagusi edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Baserrietan ere bai. Etxean bizi izateko prest nengoke. 690 70 63 39

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumeak lan egingo luke sukaldean, nagusiak zaintzen edo garbitasun lanak egiten: bulegoak, etxeak eta abar. Enpresa zein partikularrekin. 661 48 86 74

**Debagoiena.** Kamioi gidari aritzeko gertu. Hainbat baimen ditut: makinak, garabiak, kamioiak, eta abar. Urte askotako esperientzia. Antonio. 630 65 30 22

**Debagoiena.** Egun erdiz lan egingo nuke: umezain, garbiketa, sukalde laguntzaile... Mondragon Unibertsitatean dagoen Txekiar Errepublikako Erasmus ikaslea naiz, gaztelera ikasten ari naiz eta ingelesa hitz egiten dut. Idatzi mezu bat *septunova.zuza@centrum.cz* edo deitu 638 15 77 12 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu gerontologia sektorean lan egiteko, esperientziaduna eta erreferentziaduna. Arratsaldez egingo luke lan. 943 79 04 69

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo ostalaritzan sukaldari aritzeko. Esperientzia daukat. Deitu 637 12 15 18 telefonora.

**Debagoiena.** Pintore lanak egingo nituzke partikularrentzat edo enpresentzat. 697 88 35 62

**Debagoiena.** Kamioi gidari baimena ateratzen ari naiz eta horretan lan egin gura nuke. Praktiketan ere bai. C+E baimena, ADR, zisterna edota lehengaiekin lan egiteko. Deitu 610 67 18 60 telefonora.

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo edozein mota garbiketa lanak egiteko. Gainera, igeltsero laguntzaile lanposturako ere gertu nago. Ez ditut papelik, baina horretan nago. Lan kontratu behar dut lehenago. Deitu 697 54 28 76 zenbakria.

**Debagoiena.** Denbora libre luzea daukan gazte aramaioar zintzo eta esperientziaduna baso-lan zein baserriko lanak egiteko gertu. Nire materialen artean motozerra txikia daukat. 649 54 24 61

**Debagoiena.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Emakumea erreferentzia onekin gertu pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko. Paperak ditut. Lanaldi

---

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

# 943 25 05 05

**sailkatuak@goiena.com**
**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU/ALOKATU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 21 € (+BEZ).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 28 € (+BEZ).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Aranerreka 85 $m^2$. Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 $m^2$. Eguzkitsua.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 $m^2$. Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 $m^2$. Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua.
**PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 $m^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 $m^2$.
- San Antonio, 65 $m^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 $m^2$, eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 $m^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

osoa edo murriztua egingo nuke. Deitu 696 19 05 15 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten zein orduka lan egingo nuke. Legezko paperak ditut. Deitu 663 65 78 43 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Arratsaldetan, astebukaeratan eta jai egunetan. Auxiliar laguntzaile titulua. Itxaso. Deitu 943 74 82 09 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Paperak dituen emakumea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Deitu 606 64 16 09 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakume arduratsua gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gauez edo bestela. Legezko paperak dauzkat. 638 89 98 60

**Debagoiena.** Geriatria laguntzailea gertu ospitalean gauez gaixoak zaintzeko. Deitu 676 07 23 72 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu ospitalean dauden gaixo zein nagusi edo umeak zaintzeko. Deitu gauetan, mesedez 943 71 46 24 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edota zerbitzari lanak egiteko. Zerbitzari titulazioa daukat. Esperientziarekin eta informe onekin. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak ditut. Deitu 638 89 98 60 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. Emakumea gertu nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Umeak ere zainduko lituzke. Felisa. Deitu 943 53 33 92 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Orduka, egun osoz zein etxean bizi izaten. Legezko paperak dauzkat. Detiu 680 30 24 64 telefono zenbakira.

**Donostia.** Neska euskalduna, haur hezitzailea, haurrak zaintzeko prest.Donostia eta inguruko herrietan, edozein ordutegitan. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromezurik gabe. Deitu 616 38 31 64 telefono zenbakira.

**Donostia.** Neskaeuskalduna, haur hezitzailea, haurrak zaintzeko prest.Donostia eta inguruko herrietan, edozein ordutegitan. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe. 616 38 31 64 .

**Donostia.** Neska gaztea, haurrak zaintzeko edo klase partikularrak emateko prest Donostia edo inguruetan (Astigarraga, Hernani...). Biologian lizentziatua naiz, EGA titulua daukat eta begirale bezala 4 urteko esperientzia. Interesatuek deitu 679 28 08 28 telefonora.

**Gernika-Lumo.** Erizain laguntzailea geriatrian lan bila dabil Gernika-Lumo aldean. Eskarmentu handia zaintze lanetan. Orduka zein egun osorako. Telefonoa: 645 70 40 20 (Marisa)

**Goierri .** Goierrin emakume euskalduna etxeko lanak egiteko prest: 660 02 85 52

**Haurrak zainduko nituzke.** Haurrak zaintzeko prest nago, goizez eta arratsaldez. Haur hezkuntzan diplomatua naiz eta 4 urtetako esperientzia daukat haurreskoletan. Deitu telefono zenbaki honetara: 628-33 31 56. Mila esker.

**Irun.** Bidasoaldea-Oarsoaldea. Emakume euskalduna jakintsu eta arduratsua, frantsesez eta espainolez dakiena, etxean idazkari zein etxeko lanetarako prest. Gidabaimena eta autoa baditut. Deitu 622 06 33 48 telefono zenbakira..

**Lakuntza.** Astelehenetik ostiralera, goizetan, Lakuntzan edo inguruan lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Telefonoa: 653 99 80 35. Posta: *iruneagirrebeina@hotmail.com.*

**Oñati.** Neska euskaldun oñatiarra haurrak zaintzeko eta etxeko gauzak egiteko prest. Arduratsua. Interesa baduzue deitu zenbaki honetara: 618 09 47 87

**Sakana.** Haurrak zaindu eta plantxatzeko prest nagoen emakumea naiz. Deitu 651 47 27 21 telefonora.

**Zarautz.** Andre euskalduna, etxeko lanetarako prest, asteazken eta ostiralerako. Esperientzia handia. Harremanetan ipintzeko deitu: 634 45 91 59.

**Zarautz.** Gizon euskalduna gertu lanerako, asteburuetan ere lan egiteko prest edozein lan: jardinero, mahastietan eta abar. 658 73 08 08.

**Zumarraga.** Erregulazio eta kontrol-sistema automatikoan titulatua naiz. Elektrikari eta mantenu lanetan esperientziduna. Edozein beharretarako 667 03 52 16ra deitu eta Ramonengatik galdetu.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Matematika eta euskara eskola partikularrak emateko norbait behar dut. 6. maila. Deitu 652 75 68 95 telefono zenbakira.

**Bergaran.** Irakaslea behar da Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailetako eskolak emateko. Eskolak eguerdian jaso nahi nituzke. Deitu 639 03 43 58 telefono zenbakira..

**Gasteiz.** Klase partikularrak emateko eta haurrak zaintzeko prest nago. Haur hezkuntzako ikasketak egiten ari naiz eta ondorioz arratsaldetan bakarrik lan egin ahalko nuke. Esperientzia daukat bai klaseak ematen eta baita haurrak zaintzen ere. Aisialdirako monitore titulua daukat. EGAere badaukat. Kontaktuan jartzeko deitu 648 70 15 92 telefono zenbakira.

**Hizkuntza ikasketak trukean.** Nik dudan frantserera maila hobetu nahi nuke (2. maila hasteko egongo nintzateke) eta trukean beste pertsona baten euskara maila hobetzen lagunduko nuke. Truke honetan norbait prest *balegoke pelloastiz@hotmail.com* posta elektronikora jo edo 618- 09 62 04 telefonora hots egin. Animatu, hizkuntza hauetan dugun maila hobetuko baita, ziur.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen ditut Musakola eta Santa Marina inguruan. Deitu 696 37 92 29 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Goi ingeniaritza ikasten duen neska arduratsua Arrasaten eskola partikularrak emateko prest. Deitu arratsaldetan. Deitu 625 74 91 50 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Goi maialako ingeneritza ikasten dabilen neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. Deitu 606 88 94 20 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Goi mailako Ingeniari Industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. Deitu 630 71 35 83 telefono zenbakira.

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Elkarrizketa lantzeko ere bai. Deitu 654 94 87 26 telefono zenbakira.

**Bergara.** Kimikan lizentziaduna naiz eta matematika, fisika, kimika, geologia eta natur zientzietako eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Irakaskuntzan esperientzia.Deitu 648 06 79 85 telefono zenbakira.

**Bergara.** Irakaslea behar da Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailako klaseak emateko. Klaseak eguerdian jaso nahi nituzke. 639 03 43 58

**Bergara.** Aleman Filologian Lizentziaduna eta irakaslea naiz. Ingeles eta aleman eskolak emango nituzke. 660 52 25 01

**Gernika-Lumo.** Klase partilularrak emango nituzte Gernika zein inguruko herrietan, oro har, Busturialdean. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik zenbaki honetara: 680 53 84 82

**Gernika-Lumo.** Esperientziadun irakasleak talde txikitako klase partikularrak eskaintzen ditu Gernikan lehen hezkuntza eta DBH-ko ikasleentzako. Kontaktua: 656 77 20 12 (Nahia)

**Lasarte-Oria.** Photoshop eskola partikularrak ematen ditut. Argazki-tratamendu eta ukitu digitala. Esperientziaduna informatika eta diseinu eskolak ematen. Telefonoa: 626 73 40 19

**Oñati.** Ingeniaritza ikasten dabilen neska arduratsua Oñatin eskola partikularrak emateko prest. Deitu arratsaldetan. 667 52 83 29

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Opel Corsa 1.7D salgai.** Telefonoa: 696-23 74 16Posta elektronikoa: *anlapa622@hotmail.com*

**Kawasaki Z750 salgai.** Kawasaki Z750 Salgai 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000 kilometro. Azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. Harremanetan jartzeko deitu 660-33 77 16 telefonora.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Zaldi hispaniar-arabiarra** salgai. Monturakoa. 7 urte. Zuria. 616 00 34 29.

### 703. EMAN

**Txakurkumeak ematen dira opari.** Txakurkumeak oparitzen dira. Interesatuek hots egin 948-46 00 43 telefonora

**Txakurkumeak opari.** Txakurkume jaioberriak oparitzen ditut. Coli arraza eta euskal artzain txakurren nahasketa dira. Interesatuek deitu ondoko telefonora: 650-27 86 95

### 704. BESTELAKOAK

**Bi setter** eme daude jasoak, aurreko astelehenetik, urtarrilak 11. Zuri-beltzak dira. Deitu 625 70 86 49 telefono zenbaki honetara.

**Txakurtxoa Bergaran.** Txakur txikitxoa aurkitu dut Bergarako Bolu kalean. Emea. Deitu 620 61 91 34 telefono zenbakira.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Altzariak.** Hiru plazako sofa beixa (300 euro), sarrerako altzaria (100 euro) eta kristalezko mahai luzagarria (100 euro). Ia berriak. Indesit garbigailua, 2009koa, 100 euro. Deitu 635 74 27 43 telefono zenbakira.

**Bikiendako aulkia** salgai. Jane etxekoa. Urdin iluna. Hiru gurpilduna. 200 euro. Deitu 650 57 36 07

**Bizikleta.** Errepideko bizikleta gorria salgai. Egoera onean. Merke. Harremanetan jartzeko deitu: 943-79 11 24

**Bizikleta estatikoa** salgai. Sinplea, arina eta berria. Deitu 670 08 12 16 telefono zenbakira.

**DJ maleta.** Technics DJ maleta saltzen dut. 80 binilorendako lekua. Deitu 648 06 79 85 telefono zenbakira.

**Erremailadora** industriala salgai. Egoera onean. Prezioa adosteko. Antzuolan. Deitu 685 77 08 46 telefono zenbakira.

**Eskiak.** Dynastar Vitesse etxekoak, Look fijazioekin, 1,85 m neurrikoak: 60 euro. Eta Rossignol etxekoak, Rossignol fijazioekin, 1,78 m neurrikoak: 60 euro. Eskiatzen hasteko oso aproposak. 690 83 98 53.

**Eskiatzeko ekipo berria salgai.** Eskiak: Salomon Space Framer 33. Salomon fijazioak. 1,66 m neurrikoak. Botak: Atomic. 40-41neurrikoak. Berriak. 300 euro. Makilak eta zorroa opari. 690-83 98 53

**Eskiatzeko trajea,** Eskiatzeko trajea salgai Debagoienean. Deitu 943-79 65 99 edo 639-48 60 49 zenbakietara.

**Eskiatzeko buzoa salgai eta Gore-Tex eskularruak opari.** 10 neurrikoa. 15 euro. Gore-Tex eskularruak opari. 656-78 64 64

**Eskiatzeko ekipo** berria salgai. Eskiak: Salomon Space Framer 33. Salomon fijazioak. 1,66 m neurrikoak. Botak: Atomic. 40-41 neurrikoak. Berriak. 300 euro. Makilak eta zorroa opari. 690 83 98 53.

**Ezkontza soinekoa salgai.** 38-40 neurrikoa. Deitu mesedez telefono zenbaki honetara: 635-70 07 92

**GPSa.** Mendirako GPSa salgai. Egokia oinez, BTT, motor eta abarrerako. Magellan Triton 500. Ordenagailura konexioa, memoria txartela mapendako eta Euskal Herri, Pirinio, Europako mendi eta abarreko mapa zehatzekin. 150 euro. 656 71 41 59.

**Golf pilotak salgai Debagoienean.** Golf pilotak salgai Debagoienean. 943-79 65 99 edo 639-48 60 49

**Karabana salgai.** Lau plazakoa. Egoera onean. 658-75 58 23

**Pinarello bizikleta .**54 neurrikoa. Aluminiozko koadroa. Karbonozko Look urkila. Ultegra-Durace taldea. Argazkiak bidaltzen ditut. 700 euro. 677 24 31 98 edo 943 78 29 19

**Tabike-armairua.** Tabike-armairua salgai. Debagoienean.Interesatuek harremanetan jartzeko, deitu telefono zenbaki honetara:670-08 12 16

**Telebista.** 2 urte dituen 28 hazbeteko telebista salgai. 170 euro. 616 22 49 64

**Narruzko txupa beltza salgai.** M neurrikoa. Ia berria (bi aldiz jantzia). 35 euro. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara:626-28 68 13

**Snow taula** salgai, Kay Wright markakoa. 1,55 metroko altuera. 130 euro. 630 29 16 01.

**Snow taula** salgai. 1,51 metroko altuera. 175 €. 630 29 16 01.

### 802. EROSI

**Aretxabaleta** inguruan ortua egiteko lursaila erosi edo errentan hartuko nuke. Interesa izanez gero, deitu telefono zenbaki honetara: 696 32 63 13

**Autorako** umeendako segurtasun aulkia behar dut. 9-36 kilo artekoa. Harremanetan jartzeko deitu mesedez telefono zenbaki honetara: 650 57 36 07.

**Lur Hiztegia.** Lur Hiztegi Entziklopedikoaren hamabigarren liburua hartuko nuke. Prezioa adosteko. Deitu mesedez telefono zenbaki honetara: 94-460 74 44. Getxo.

**Moisesa** erosiko nuke. Deitu 650 57 36 07 telefonora.

**Nintendoa erosi.** Bigarren eskuko Nintendo DSa erosiko nuke. Deitu mesedez telefono zenbaki honetara: 626 73 40 19

### 803. EMAN

**Somierra.** 150x190ko somierra ematen da opari. Ohez, hankak eta somierra. Egoera oso onean. Deitu 635 12 87 82 edo 943 25 05 79 telefono zenbakietara.

### 804. HARTU

**Trona.** Erabiltzen ez duzun umeendako trona badaukazu, gustura erosi edo hartuko nuke opari. Aldez aurretik eskerrik asko. 635 75 54 53 .

**Sofak botatzeko asmotan?** Zure sofa zaharrekin zer egin ez baldin badakizu... gustura hartuko ditugu guk! Deitu edo idatzi eta joango gara gu euren bila. Mila esker! Deitu 688-62 39 55 telefono zenbakira edo idatzi mezu bat *haizearenfereka@hotmail.com*

### 806. GALDU

**Amantala galdu Oñatin.** Ikastolako amantal berdea galdu dut Bidebarrieta eta Errementari plaza inguruan, ostiralean, hilak 22. Aurkitu baduzu, deitu telefono zenbaki hauetara: 943- 78 00 01 edo 943-78 08 09

**Autoko giltza galdu.** Abenduaren 15ean, asteartean, San Andres auzotik Arimazubi (San Viator Txiki) ikastolara bidean. Aurkitu baduzu, deitu telefono zenbaki hauetara: 618-49 28 56 edo 943-79 58 98

**Betaurrekoak galdu Etxarrin.** Aurreko ostiralean betaurreko graduatu batzuk galdu ziren Etxarri Aranatzen. Funda marroian gordeta daude. Opatu dituenak Beleixe irratian utz ditzala edo 948 46 08 32 telefonora hots egin dezala.

**Eraztuneko harria.** Zubiaurre eta Ozaeta artean (Bergara) eraztuneko amatista harria galdu nuen. 637 77 45 57

**Eskiak galdu Arantzazun.** Martitzenean, hilaren 12an, K2 Fujative trabesiarako eskiak ahaztu nituen Arantzazun. Norbaitek topatu baditu, dei diezadala. Eskerrik asko. 652-75 66 97 edo 669-78 17 81

**Lapitzen zorro bat eta memoria bat galdu.** Oñatiko Bidebarrieta Kalean. Astelehena 25ean Oñatiko Bidebarrieta Kalean 18:30ak inguruan arkatzak eramateko laukidun zorro ilun bat galdu nuen. Informazio garrantzitsua duen memoria bat ere bertan neukan. Norbaitek zorroa jaso edo aurkitu baldin badu, faborez dei dezala 653-71-79-81 telefono zenbakira. Eskertuko dut. 653-71 79 81 edo 943-53 44 71

**Omega erlojua** galdu nuen Bergaran, igandean, urtarrilaren 10ean. Atzekjaldean 'PG' inizialak dauzka eta ondorengo datak: 1932-1982. Zubietatik Oxirondo merkatura artean galdu nuen. Guretzat balio handikoa da. Aurkitu baduzu, deitu telefono zenbaki hauetara: 669 73 84 02

**Sakelako telefonoa galdu.** Bergaran, autobus geltoki inguruan, urtarrilaren 18an (astelehena). Nokia beltza da. Saarituko da SIM txartela, behintzat, bueltatzea. Aurkitu baldin baduzu, deitu telefono zenbaki: 676-66 02 66

**Nintendo Ds grisa galdu.** Urriaren 12an Nintendo Ds grisa galdu zen Zarautzen, bere babes poltsa urdinean zegoen, joko eta guzti. Aurkitu baduzu, deitu telefono zenbaki: 685-71 75 62ra deitu ezazu.

### 807. AURKITU

**Betaurreko gorriak aurkitu dira Arrasaten.** Arrasateko Eroski inguruan, Musakolan, abendu hasieran. Graduatuak dira eta kaxa batean zeuden. Zurea bada, deitu zenbaki honetara: 943 79 48 02

**Giltzak aurkitu Arbizun.** Athletic en giltzarria duen giltza jokoa topatu dute Arbizuko Nafarroako Kutxako kutxazainean. Galdu dituena bertatik pasatu dadila.

**Giltzak aurkitu dira Ugarrixan.** Bi giltzatako aurkitu dira: horietako batek hiru giltza ditu eta besteak hamabi.. Zurea bada, deitu zenbaki honetara: 689-70 44 17

**Kartera topatu Altsasun.** Urtarrilaren 9an Altsasuko Foruen plazan karteratxo bat opatu genuen. Galdu duenak Guaixen galde dezake.

**Urrezko domina Altsasun.** Urrezko domina aurkitu da Altsasun. Karratua da. Alde batean *Javi, 7-3-03* agertzen da grabaturik eta bestean gizonezkoaren erretratua. Informaziorako jo Guaixera (948-56 42 75).

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Mutil bila.** 39 urteko mutil bat naiz eta beste mutil batekin harremanak izan nahiko nituzke, ahal bada, gazteagoarekin. Interesa izanez gero, bidali SMS bat telefono honetara:. 615 39 82 46.

**Neska bila.** Kaixo! Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizitaterako,interesatuak idatzi *mgpelmaz@gmail.com* helbide honetara.

### 903. DEIAK

**Lekuko bila Bergaran.** Azaroaren 11n, 17:00etan, Bergarako Super Amara supermerkatuaren aparkalekuaren kanpoaldean, bi pertsonaren arteko erasoan parte hartu zuen mutil gazte baten bila gabiltza, lekuko moduan epaiketara etortzeko. 657 79 79 35.

### 904. BESTELAKOAK

**Basauri-Gasteiz bidea kotxez konpartitzeko lagun bila nabil.** Lakua inguruan lan egiten dut, eta goizeko 07:15 inguruan irtengo nintzateke Basauritik Gasteizera. Arratsaldean Gasteiztik 17:00etarako irtengo nintzateke Basaurira. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 685 73 17 18. Ana.

**Oñati-Gasteiz.** Egunero Oñatitik Gasteizera joaten gara. Momentu honetan hiru pertsona joaten gara auto berean. Bidaia konpartitu nahi duenak dei diezagula. 635 20 33 14.


Jose Ramon Guridi
Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarteko foru diputatua

MAGAZINEA
Martitzenean, otsailaren 9an,
19:45, 21:15 eta 23:30ean.



Goitb Goiena Telebista
Ikustekoa!

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | 6 |
| 4 | | 5 | 7 | 8 | 9 | 2 | | 3 |
| | | | | 2 | 6 | 4 | | 9 |
| | | 1 | | 9 | 5 | | 2 | |
| 9 | | 2 | 8 | 6 | | 7 | 3 | |
| | | 8 | | 4 | 7 | 6 | | 1 |
| 5 | | 3 | 4 | | 8 | | | |
| | | | 6 | 7 | | | 5 | |
| | | | | | | | | |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Danimarkako hiria / Gipuzkoako herria

Dimentsio bakarrekoa / Ibilia

Katalunia-koak / Zegoen

Ipar EH-n, txapel / Aldia

Ondorioa / * Irudiko ontzia

Gailena / Eskuleku

50 / Urkabe

Eskuburdina / Gidaliburu

Frantziako ibaia / Telebista

Hots egin / Zalgurdi talde

Errepikatuz, gorotza / Nitrogenoa

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Euskaldun asko da...




## hizki salda

Eskolako materiala.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | D | L | I | B | U | R | U | M |
| M | R | A | T | H | E | E | Z | O |
| A | T | K | X | T | T | Z | E | T |
| N | J | A | E | M | A | K | E | X |
| T | A | S | D | S | D | F | A | I |
| A | G | Z | A | Y | T | S | N | L |
| L | K | S | A | E | T | E | L | A |
| A | E | A | R | K | A | T | Z | R |
| K | O | A | D | E | R | N | O | A |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | D | L | I | B | U | R | U | M |
| M | R | A | T | H | E | E | Z | O |
| A | T | K | X | T | T | Z | E | T |
| N | J | A | E | M | A | K | E | X |
| T | A | S | D | S | D | F | A | I |
| A | G | Z | A | Y | T | S | N | L |
| L | K | S | A | E | T | E | L | A |
| A | E | A | R | K | A | T | Z | R |
| K | O | A | D | E | R | N | O | A |

**Hieroglifoa:** Elebiduna.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | 8 | 9 | 1 | 3 | 4 | 5 | 7 | 6 |
| 4 | 6 | 5 | 7 | 8 | 9 | 2 | 1 | 3 |
| 1 | 3 | 7 | 5 | 2 | 6 | 4 | 8 | 9 |
| 6 | 7 | 1 | 3 | 9 | 5 | 8 | 2 | 4 |
| 9 | 4 | 2 | 8 | 6 | 1 | 7 | 3 | 5 |
| 3 | 5 | 8 | 2 | 4 | 7 | 6 | 9 | 1 |
| 5 | 2 | 3 | 4 | 1 | 8 | 9 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 4 | 6 | 7 | 3 | 1 | 5 | 2 |
| 7 | 1 | 6 | 9 | 5 | 2 | 3 | 4 | 8 |



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | A | ■ | L | ■ | K |
| | | | A | L | K | I | Z | A |
| | | | ■ | B | O | N | E | T |
| ■ | S | ■ | G | O | R | E | N | A |
| P | E | G | A | R | R | A | ■ | L |
| ■ | G | I | R | G | I | L | U | A |
| G | I | D | A | ■ | T | A | R | N |
| ■ | D | E | I | T | U | ■ | K | A |
| K | A | R | A | B | A | N | A | K |

## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Energiaz gainezka ibiliko zara eta ondo erabiliz gero, zure helburuak lortuko dituzu. Kontuz ibili, baliteke-eta estropezu egin eta orkatila bihurritzea.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Barneko lasaitasun handiari esker, erabateko segurtasuna edukiko duzu zeure buruarengan. Bolada txarra negozio berrietan ibiltzeko.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Diru kontuetan inbertsioak-eta egiteko bolada aproposa. Ziurrenik, Ogasunekoek edo beste erakunderen batekoek zor zizutena ordainduko dizute.

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Kontuz nori kontatzen dizkiozun zure ideia eta arazoak, inguruko baten batek traizio egin diezazuke eta. Bestalde, kontuz zure jokaerarekin.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Krisialdian zauden arren, zure izaera praktikoari esker aurrera egingo duzu, eta denbora joan ahala guztia argituko da. Diru-sarrerek gora egingo dute.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Bikotekidea badaukazu, edo harremana eten egingo duzue edo guztiak hobera egingo du; ez badaukazu, harremanetan hasteko moduko baten bat ezagutuko duzu.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Zure kontura bidaiaren bat egiteko asmoa bazeneukan, atzeratu egin beharko duzu, orain eginbehar larregi daukazu eta. Zeure buruarengan konfiantza edukiko duzu.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Lan beharra dela-eta, kanpora joan edo batetik bestera ibili beharko duzu. Zentzuz jokatu, baliteke istripuren bat edukitzea eta.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Etxea apaintzeko dauzkazun ideiak gauzatuko dituzu. Aisialdirako asti gehiago edukiko duzu, eta senideekin egoteko erabiliko duzu.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Beharrean edukiko dituzun aldaketak ez dira onak izango, ardura handiagoa izan arren ez duzulako behar besteko soldata edukiko.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Beharrean espero ez zenituen aldaketek zure diru-sarrerak handitzea eragingo dute. Zure ideia eta usteak kontuan hartuko dituzte.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Hainbat aldaketa egingo dituzu bertan, eta askotxo gastatuko duzu etxerako gutizietan. Hori dela-eta, larri samar ibiliko zara hil honetan.

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> Itzulpena.** Europako Batzordea. Europar Batzordeko itzulpen zerbitzuan praktikak egiteko dirulaguntza. Unibertsitate titulua duten edo ikasketa horietako lehen zikloa amaitu duten eta komunitateko beste erakunderen batean praktikak egin ez dituzten gazteak. Epea: otsailaren 15a.

**> Ikerketa.** Eusko Ikaskuntza eta Institut d'Estudis Catalans erakundeak ikerketarako beka bana ematen du. Epea: martxoak 15.

**LANA**

**> Liburutegi laguntzailea.** Bergarako Udala. Aldi baterako liburutegi laguntzaile postua betetzeko eta lan-poltsa osatzeko deialdia. Epea: otsailak 10.

**> Ingenieritza.** CAF-ek ingenieroak (industrialak, automatikoak eta elektronikoak, telekomunikabideak eta aeronautikoak) behar ditu. Interesdunek CV *cafenlanegin@caf.net*-era bidali.

**LEHIAKETAK**

**> Musika.** Euskal Herria Zuzenean. EHZ jaialdian aritzeko musika lehiaketa. Epea: otsailaren 28a.

**> Musika.** Leioako X. Pop Rock Lehiaketa. Kultur Leioa, Aterpe Gazte Bulegoa. Epea: martxoak 12.

**> Huhezinema.** film laburren Lehiaketa. Huhezi Mondragon Unibertsitatea. Epea: martxoak 12.

**> Argazkiak.** *Berria* Egunkaria. Inauterietako argazki onenaren lehiaketa. Epea: otsailak 18.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 8



**> Euskadiko eski txapeldunordeak, 'Harmailatik'-en**
**22:15**

Iban Letamendi eta Aitor Otxoa Euskadiko mendiko eski txapeldunordeak elkarrizketatuko ditu Xabier Urtzelaik.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Onein.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Erloklip.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Kalekantoi.
**18:15** Sakonduz.
**18:45** Ilunpean.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kiroleroak.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 9



**> Berrikuntzako diputatua, Goiena Telebistan**
**19:45, 21:15**

Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko foru diputatu Jose Ramon Guridi elkarrizketatuko du Eneko Azkaratek.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** On Ein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Ikusten.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Kurtulzulo.
**18:15** Gipuzkoakultura.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** 28 Klip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 10



**> Juan Mari Beltran musikaria 'Ilunpean'-en**
**20:45**

Juan Mari Beltran donostiarra euskal musikaren irudirik garrantzitsuenetakoa dugu. Jon Berezibarren asteko gonbidatua da.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Kiroleroak.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Ilunpean.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**23:00** Kalekantoi
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 11



**> Olerki topaketak 'Gipuzkoakultura' saioan**
**22:15**

Kabigorri Ateneoak antolatutako olerki topaketak izango ditugu ikusgai. Oskarbi taldea eta Andoni Salamero izan ziren han.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkoa kultura.
**15:45** Erloklip.
**16:15** Ikusmira.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Kalekantoi.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Euskaldunak hizketan.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoakultura.
**22:45** Kulturzulo->Eskuokin.
**23:20** Itsasoari begira
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 12



**> Debagoieneko gaurkotasuna, 'Berriak' saioan**
**14:45**

Bailarak eman dituen albiste garrantzitsuenak emango ditu Goiena Telebistak egunean zehar, hainbat emanalditan.

**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Euskaldunak hizketan.
**14:15** On ein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta Lur.
**15:45** Itsasoari begira.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gipuzkoa kultura.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Sakonduz.
**22:45** Kiroleroak.
**23:15** Kalekantoi.
**23:45** Magazinea
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> 'Xabinaitor' delako antzezlanerako sarrerak zozketatuko dituzte**
**10:00**

*Xabinaitor* antzezlana ikustera joateko sarrerak zozkatuko ditu irratiak. Hitzordua da otsailaren 14an, domekan, Amaia Udal Antzokian. Bestalde, 3 aretoko kontzerturako sarrerak ere egongo dira: Bastards on Paradise musika taldeak joko du otsailaren 12an, 23:30ean.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

**ESTREINALDIA** > EUSKAL TELEBISTA

# 'Euskadi directo' saioa "herritarren bozgorailu" izateko asmoz itzuli da

Gaur, astelehena, hasiko dira berriz ematen ETBren bigarren katean, 13:30ean, Miriam Duquek gidatuta

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Euskal Telebistak *Euskadi directo* saioaren aro berria estreinatuko du gaur, astelehena. Eguneko gertakari garrantzitsuenen zuzeneko ikuspegia eskainiko duen albistegia da *Euskadi directo*, Miriam Duque kazetariak aurkeztuta. 13 erreportari Euskadiko hiri eta herrietan barrena ibiliko dira albiste, gertakari eta ekitaldien berri "modu arin eta atseginean" emateko, ETBko arduradunen esanetan. Astelehenetik egubakoitzera emango dute, ETB2n, 13:30ean.

**HIRITARRAK, PROTAGONISTA**

"Herritarren bozgorailu bihurtzeko asmoz" itzuli da *Euskadi directo*, arduradunen esanetan. "Istorio atseginak" jorratuko dituzte, "ikus-entzuleentzat gertukoak" direnak. "Hiritarrak ez dira ikus-entzule sinple moduan geratuko, gure saioaren protagonistak izango dira", dio Miriam Duquek. "Euskaldunen interes, beharrizan eta arduren inguruan" arituko direla ziurtatu du.

Osasunaren eta kulturaren inguruko gaiak ere landuko dituzte, xarma berezia duten parajeak erakutsiko dituzte eta irudi harrigarriak ere bai.

## telealbisteak

> ESTREINALDIA

### 'Gran Hermano: el reencuentro'-k, 3,6 milioi ikusle

*Gran Hermano: el reencuentro* saioa izan zen garaile garbia eguazten gauean, 3.665.000 ikus-entzulerekin eta %24,5eko pantaila-kuotarekin. *Urrezko minutua* 23:17ean izan zen, 5.245.000 ikus-entzule batuta, %27,6ko pantaila-kuota. Oraingoan, aurreko 11 edizioetan ibilitako hainbat lagun batu ditu Telecincok Guadalix-eko etxean. *GH 11* saioaren finala ere bere gauean nagusitu zen, ia 4.496.000 ikuslerekin.

Gaueko bigarren saio ikusiena Television Españolaren 1. kateko *Telediario* albistegia izan zen: 3.532.000 ikus-entzule eta %20,3ko kuota izan zituen. Antena3 katearen *Adolfo Suárez, el presidente* telesail laburrak Telecincoren jipoia jaso zuen, eta 2.832.000 ikus-entzule eta %16,2ko pantaila-kuotarekin gelditu behar izan zuen.

> EUROVISION

### Ainhoa Cantalapiedra izan daiteke finalistetako bat

TVEk gaur, astelehena, jakinaraziko du zeintzuk izango diren Espainia aurtengo Eurovision musika lehiaketan ordezkatzeko lehiako finalistak, eta litekeena da Ainhoa Cantalapiedra bizkaitarra izatea horietako bat; izan ere, lehen hamarren artean egon da azken egunotan.

Ikus-entzuleek bozkatzeko aukera izan zuten egubakoitzera arte TVEren webgunean, eta eguen arratsalderako dagoeneko 5.400.000 lagunek baino gehiagok zuten botoa emanda. Finalistek gala baten abestuko dute TVEn, eta hor aukeratuko da Espainia maiatzaren 29an Oslon ordezkatuko duen abeslaria.

Ainhoa Cantalapiedra *Volveré* abestiarekin dago lehian. Coral Segovia eta John Diges dira bozkatuenak, bakoitza 260.000 bozka baino gehiagorekin.

ESKER ONA

## M. Dolores Lete Aranguren

Florentino Aguirrezabalen alarguna

Bergaran hil zen 2010eko otsailaren 4an, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2010eko otsailaren 8an.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 05**
Edo zatoz ordezkaritza batera.

**Eskelaren prezioa: 120 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **160** euro.

**Goienkaria: astero, 36.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**



## asteburuko albuma




**Bedoñako txakolina.** Bedoñako Otxia baserriko txakolina dastatzeko eta erosteko aukera egon zen domeka eguerdian Arrasaten, Herriko Plazan. Kajoi tabernarekin elkarlanean, txakolin horren *aita* Felix Etxagibelek jendaurrean aurkeztu zuen uzta berria. Aurten, gainera, Getariako Txakolinaren jatorri izena lortu du Otxiakoak. Borroka handia egin behar izan du azken urteotan Etxagibelek eta azkenean jaso du merezitakoa. Jende asko batu zen Herriko Plazan eta, antza, gustatu zitzaien Bedoñako edana.





**San Blas jaiak Bergaran.** Ekitaldiz jositako aste bukaera izan zuten Bergarako Murinondo auzoan, San Blas jaien ospakizunetan. Egubakoitzeko auzo afarian 52 lagun elkartu ziren eta mozorro eta soinujole eta guzti, giro alaia izan zen nagusi. Zapatuko mus txapelketan, bestalde, 23 bikotek hartu zuten parte eta Gabilondotarrak -aita eta semea- nagusitu ziren; garaikurra eta 120 euro eraman zituzten etxera. Domekan, azkenik, salda, dantza eta aizkolariak izan ziren protagonista: Moises Azpiazu dantza taldeko dantzariek egin zuten ikuskizuna eta Ugaitz eta Arantz Fausto Mugerza aizkolari ospetsuaren semeek 2,80 metroko lodiera zuen enborra moztu zuten 27 minutu eta 43 segundotan. Orokorrean antolatzaileak pozik agertu ziren jaietako parte-hartzearekin.

## kuxkuxeroa



Jon Berezibar

# "Haizea Inauterietakoa" eta olagarroa

Inauteri haizea dabilkigu. **Ziripot** aurten lapikoan zer egosten dabilen jakin gura duenak Arrasateko Gaztetxera gerturatu besterik ez du. Baina sorpresei ezin aurretik estalkia kendu eta zapatura itxaron beharko Arrasateko Aratuste indarberrituek zer ekarriko duten ikusteko. Aretxabaletarren baimenarekin, aurten ere gureko Inauterien txapeldunaren zetroa Leintzeko bi herri horien artean lehiatuko da. Leintzeko Inauteriak Lantzekoei gailendu zaizkie aurki. **Txapeltxin** bera nahikoa abantaila izango da? Bolbora, kola, oihal eta purpurina usaina airean, beraz. Bergaran olagarro usaina izen zen nagusi eta 11 euroren trukeko anoarekin lurrinik goxoaren esentzia beharko luke **Javier Ferreiro** *maestro pulpeiro*-aren gutiziak, alajaina. Euria zen zapatuan eta haizeak ez zuen herrira usaina (garestia) zabaldu. Eta haizea, "Garizumakoa". **Ruper**rek Amaia antzokian kantatutakoa. Pastazko antipar lodiak jantzi eta arropa beltzekin; ez da mozorro txarra. Baina jakin badakigu ikono bihurtze horrek graziarik ez diola egiten Ordorikari. Haizeak ezin beti alde jo. Azkenean denoi iritsiko zaigu garizumakoa. Disko ederra, alajaina.

> **"Leintzeko inauteriak Lantzekoei gailenduko zaizkie aurki, ziur"**

## zorion agurrak


BERGARA
**Itsaso Goenaga**
Urtarrilaren 30ean, 13 urte. Zorionak amama eta etxekoen partetik.


BERGARA
**June Igarza**
Urtarrilaren 31n, 9 urte. Zorionak etxekoen eta, bereziki, Iraia eta Ikerren partetik.


BERGARA
**Nagore Tena Hervas**
Otsailaren 3an, urtebete. Zorionak etxekoen eta, bereziki, Landerren partetik.


OÑATI
**Maitane Aranburu**
Otsailaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak, Maitane! Ondo pasatu eguna eta bialdu pastatxo batzuk edo...


BERGARA
**Urko Agirrezabala**
Otsailaren 5ean, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure egun berezi hori! Patxo ugari etxekoen eta, bereziki, Olaitzen partetik.


BERGARA
**Julen Crespo Zubia**
Otsailaren 5ean, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Etxekoen eta lagunen partetik patxo handi bat.


ARETXABALETA
**June Elkoro Gereka**
Otsailaren 6an, 6 urte. Gure etxeko poxpolinari muxu handi bat.


ARRASATE
**Gaizka Agirreurreta Litago**
Otsailaren 6an, 2 urte. Zorionak, bihotza, etxeko guztien partetik eta patxo potolo-potolo bat.


BERGARA
**Aitor Larrea**
Otsailaren 7an, urtebetetzea. Zorionak etxekoen eta lagunen partetik. Bereziki Nora eta Anerren partetik.


BERGARA
**Gorka Kortabarria**
Otsailaren 7an, 12 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo pilo bat etxeko guztien partetik.


ARRASATE
**Mikel Agirre Uribarri**
Otsailaren 8an, 8 urte. Zorionak eta patxo handia etxeko eta lagunen partetik!


OÑATI
**Maider Molinero**
Otsailaren 8an, 5 urte. Zorionak, potxola, eta ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu potolo pila bat etxekuen partetik.


OÑATI
**Julen Aranburu Gomendio**
Otsailaren 8an, 6 urte. Zorionak, Julen! Zure eguna alai eta pozik igaro dezazula opa dizugu. Muxu handi bat etxekoen partetik.


BERGARA
**Malen Arando Salaberria**
Otsailaren 8an, 2 urte. Zorionak eta patxo potolo-potoluak gure etxeko sorgintxuai. Aitatxo, amatxo eta bereziki zure ahiztatxo Juneren partetik.


OÑATI
**Maialen Regueiro Larrea**
Otsailaren 9an, 2 urte. Zorionak, poxpolin! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxekoen partetik.


OÑATI
**Maddi Arlanzon**
Otsailaren 9an, 6 urte. Zorionak, printzesa. Ondo pasatu eguna eta mila muxu amatxo, aitatxo eta Anjeren partetik.


BERGARA
**June Alberdi eta Xabi alberdi**
Junek otsailaren 9an, 10 urte eta Xabik otsailaren 19an, 8 urte. Zorionak bioi eta patxo handi bat danon partetik.


OÑATI
**Oihana Diaz**
Otsailaren 10ean, 30 urte. Zorionak, Oihan! Ondo-ondo pasatu, eta honutz be pastatxuak bialdu! Zaindu tripatxo hori!


OÑATI
**Arantzazu Aranburu**
Otsailaren 10ean, urtebetetzea. Aran Aran! Zorionak Atxazu! 18? tirakada handi belarri bakoitzetik. Ondo-ondo pasatu eguna.


ARRASATE
**Ane Enbeita Ezpeleta**
Otsailaren 10ean, 4 urte. Zorionak, marisorgin! Durangoko familia guztiaren partetik, egun goxoa pasatu!


OÑATI
**Aimar Etxebeste Bolinaga**
Otsailaren 13an, 6 urte. Zorionak eta patxo potolo mordoa etxekoen partetik. Aupa, txapeldun!


ARETXABALETA
**Alaitz Iturbe Murgiondo**
Otsailak 13an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik. Ondo-ondo pasatu eguna!

### ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:

**Internet bidez**
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu.
Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

**e-postaz**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera.
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik argitaratuko ditugu. Ordu horretatik aurrera jasotakoak hurrengo astean aterako ditugu.

## jaiotakoak


**Ilargi Martin Arias**
Arrasate > 3,190 kilo. Urtarrilaren 29an. Gurasoak: Ainara (Aramaio) eta Angel (Arrasate). Argazkian, Ilargi jaioberria, sehaskan lo.


**Jon Saenz-Azkunaga Fabian**
Aretxabaleta > 3,520 kilo. Urtarrilaren 29an. Gurasoak: Iñaki (Aretxabaleta) eta Kati (Aretxabaleta). Argazkian, Jon jaioberria, sehaskan lo.


**Ane Arenaza Axpe**
Arrasate > 3,690 kilo. Urtarrilaren 30ean. Gurasoak: Debora (Arrasate) eta Xabier (Aretxabaleta). Argazkian, Ane, amarekin eta nebarekin.


**Jon Melgarejo Alvarez**
Eskoriatza > 3,200 kilo. Urtarrilaren 30ean. Gurasoak: Maite (Eskoriatza) eta Josema (Eskoriatza). Argazkian, Jon jaioberria, amaren besoetan.


**Ilazki Urtzelai Ruiz**
Oñati > 2,950 kilo. Otsailaren 1ean. Gurasoak: Mirari (Oñati) eta Joseba (Aretxabaleta). Argazkian, Ilazki jaioberria, gurasoekin.

BABESLEA


Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ASTELEHENEKO Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2010-02-08

**Juan Mari Beltran** > Musikaria eta musikologoa

# "Lan neketsuak jolas ziren txalapartarekin"

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

***Tttkun ttan ttakun* ikuskizunarekin txalapartaren historia erakusten dabil Beltran (Donostia, 1947) antzokirik antzoki. Herri musikaren ikerle eta maitale; txalapartak behin sorgindu zuen gaztetan eta ordutik bestelako musikaria dela dio. "Behin jo eta errepikatzen ez den soinua du txalapartak".**

**Arrunta, trauskila eta itxura sinpleduna da txalaparta. Zelan hunki dezake instrumentu horrek hainbeste?**

Ez da beste tresnarik egon txalapartak adinako zabalkundea izan duenik Euskal Herrian. Agian ez da hain sinple ala arrunt eta bere indarra ezkutuan du.

**Lehen aldiz entzutean zer sentitu zenuen?**

Txalapartak musikari moduan eraldatu ninduen. Donostiako Trinitateko plazan izan zen aurrenekoa *Fiestas Éuscaras* ziren horietan. Sorgindu-ta geratu nintzen, geldirik.

**Ekitaldi publikoetan ezinbesteko bilakatu da egun.**

Ikur bihurtu delako, baina niretzat ez da hain garrantzitsua hori, ze sarri loreontzi funtzioa izaten du.

**Txalapartaren jatorriaz zuk baduzu ikuspuntu bat ohiko istorio mitikoetatik aldentzen dena.**

Hori da ikertuaz nik aurkitu dudan erabilera bat eta lan erritmoei lotua dago. Ote-jotzea, kirikoketa, belar-batzea... lan nekean tsu eta errepikakorrak ziren. Jolasa eta lanarekin nahasten zen txalaparta eta gauez jotzen zuten, baserri kanpoan, auzo osoak entzun zezan.

**Txalapartari ikuspuntu filosofikoa ere hartzen diozu gainera.**

Hain zuzen, irakasle ere banaiz. Ikasle horiek nik erakutsitakoa modu zehatz baten ulertzen dute eta ulermen horretatik nik ere ikasten dut aldi berean. Hori da txalaparta, bakarka jotzea, baina kidearen joaldiarekin bat eginda: elkarrizketa.

**Belaunaldi berriak ere bermatuta dauzkazue.**

Bukatzen ari dira zorionez hiru aste irauten zuten ikastaro horiek eta jendea sakon dabil ikasten txalaparta. Nirekin badaude 15 urte ikasten diharduenak eta oraindik ere sakontzen. Perkusio mundutik edota Musikene bertatik hasi dira musikariak gerturatzen eta garapen handia dakarte horiek.

SOSLAIA

## Unea da musika

60ko hamarkadan tradizioa edo modernitatea zen hautua. Bizi osoa darama herri musika ikertu eta zabaltzen, berrikuntzan. Eta orain, tradizio horretan sakondu-ta, sustar horiek abangoardia bilakatu dira. Soinuek txunditzen dute eta leize baten kontra jo dezake txalaparta edo artalde baten erdian zintzarrien sinfonia grabatu. Soinuen ordenean dator Beltranentzat musika. Txalapartarekin ikasi zuen balio duena momentua dela, eta une bakoitza errepikaezina dela.



Herri musikaren maisu eta ikasle da, aldi berean, Beltran. JONE INUNTZIAGA

### ai, ene!




**Pilak barik, lurra**

Lurrak berak dauzkan bakterioetatik eskuratzen du energia irudiko ordulariak. Ez du bestelako energia-iturririk behar. Landare polit bi eta erlojua badabil. Zink eta kuprezko elektrodoen bitartez dabil banbuzko erlojua.

http://www.gajitz.com

### biharamuna

Iñigo Biain

## Euskal Herria, "normaltasunez"

Isabel Celaá hezkuntza sailburuak ontzat eman du Epaitegi Gorenaren erabakia: 'Euskal Herria' terminoa kultur esparrura mugatuta erabili beharko dela. Sanz, Nafarroakoa, ere pozik izango da; berak jarri zuen eta, Ibarretxeren sasoian, euskal curriculumaren kontrako helegitea. Baina barikuan Aralarreko eta Abertzaleen Batasunako Basabe, Perez eta Garaik esan zutenari eutsi nahi diot nik: "Batzuek beren jardun osoa oinarritzen dute Euskal Herriaren ukazioan. Bada, guk, Aralarrek eta Abertzaleen Batasunak, argi eta garbi esaten diogu baietz Euskal Herriari, lehen, orain eta beti". Ez Surioren eguraldi mapak, ezta Euskalmeten kolore biko mapak, ezta Basagoitik Lopezen gobernuari agindutakoak, ez dute aldatuko euskaldunontzat Euskal Herriak esan nahi duena. Hala sinetsi nahi dut nik behintzat.

Jose Luis Lizundiak Jaime Otamendiren *Mezulari*-an gogoratu zuenez, "Euskaltzaindiak Euskal Herria izenaren egokitasuna, zuzentasuna eta zehaztasuna berresten du, zazpi probintzia edo herrialdeen osotasuna adierazteko".

Aldaketaren gobernuak benetan "normaltasuna" zer den ulertuko balu, arazorik ez litzateke sortuko ez dagoen lekuan.



### eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +12 | +07 |

Astelehenean giro bustia izango dugu. Zerua tarteka oso hodeitsu egongo da eta euria egingo du, ugariago arratsalde-gauean.

www.euskalmet.net



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51